

goiena

ARRASATE  
PRESS25  
URTE

## AITZINDARIARI ZOR

Arrasate Press izan zen, orain 25 urte, tokian tokiko informazioa lantzen aldizkari aitzindari eta euskara hutsezkoa; gainontzeko guztiak gara haren oinordeko. Egun berean, baina orain 10 urte sortu zen *Goiena.net* Interneteko ataria | 2

Durangotik mundura,  
Azoka  
Telebistarekin

CIEseko datuen arabera, 204.000 ikusle izango ditu | 25

## SINADURAK

Kolore festa | 7  
GARIKOITZ ITURBE

19 | Euskarak 365 egun  
ANDERE ARRIOLABENGOA

Olatuak eta gu | 32  
IDOA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4

ELKARRIZKETA 6 | IRITZIA 7

HERRIAK 10 | KIROLA 22 | KULTURA 24

ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28

EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

Bergararrak izango dira  
akusazioaren protagonista

- ▶ Abenduaren 28an egingo dute hirugarren tobera
- ▶ 30 antzezletik gora izango du aurtengo saioak | 24

## "Realean jokalariek euskaraz jarduten dute"

Jagoba  
Arrasate

Entrenatzailea | 6



Eskaintza berezia, Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker

Egin zaitez Goiena Klubeko bazkide eta irabazi iPad bat

2013ko abenduaren 31ra arte bazkide egiten direnen artean zozketatuko dugu iPada



GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO:  
943 25 05 05

goienakluba

## SEAT LEON BERRIA



Gozatzeko teknologia

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





# 25 urte tokiko informazioa euskaraz lantzen

'Arrasate Press' orain dela 25 urte sortu zen; sortzaile eta adituekin hitz egin dugu lehenaz eta orainaz

**IRATI GOITIA** | ARRASATE  
Abenduaren 2a, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezpera, egun seinalatua da Debagoienean. Izan ere, egun horretantxe, orain dela 25 urte sortu zen *Arrasate Press*. Eta egun berean, baina orain dela 10 urte sortu zen *Goiena.net* Interneteko ataria.

**'Arrasate Press', aitzindaria**  
Tokian tokiko informazioa euskaraz lantzen aldizkari aitzindaria izan zen *Arrasate Press*. Erreferente, ondoren etorri ziren beste hainbatentzako.

Sorrera hartan, era batean edo bestean, zerikusia izan zuten hainbatekin izan gara. "Nik uste dut *Arrasate Press*-en ekarpenik handiena izan zela euskararentzako ez zegoen esparru bat sortu zuela: prentsa lokalarena. Ordura arte ez zegoen era horretara antolatutako ezer. Bazeuden kultura aldizkariak-eta, baina ez bertako informazioa lantzen zutenak. Hori xe egin zuen, eta, izan zuen arrakasta ikusita, beste herri askotan zabaldu zen eredu", dio *Arrasate Press*-eko lehen zuzendari izan zen Joxe Arantzabalek. Talde sortzaileko kide izan zen Jose Felix Diaz de Tuesta bat dator:

"Herri txiki batean hori egin ahal izateak bidea ireki zien beste askori. Hain justu, handik gutxira sortu zen *Egunkaria*".

Juan Luis Azkarate *Arrasate Press*-eko kazetaria zen orain dela 25 urte; hura beste ekarpen batez ere mintzo da: "Uste dut euskararen normalizatorako oso urrats garrantzitsua izan zela". Orduko alkate Xabier Zubizarretak ere ildo hori azpimarratu nahi izan du: "Nik uste dut tokiko bitartekoa izanik, gure identitatearekin edo izaerarekin lotura bereziak lortu zituela; beharbada, balio berezi batzuk mantentzeko bitarteko egokiagoa da urrutiko medio asko baino. Hala, guregana etorri zirenean proposamena egitera, zalan-tza gutxi izan genituen, planteamendua berritzailea bazen ere".

**"Guztionez aldizkaria"**  
"Ez zuen alderdikeriarik, euskaldun guztientzat eginiko aldizkaria zen", dio *Arrasate Press* sortu zenean AED elkartearen presidentea zen Joxemari Muxikak. Eta gaineratzen du eredu haren oinarri finantzarioak bi izan zirela: batetik, publikitate bidez finantzatzen zen %56 inguru. Horrek

**ESANAK**

**"Arrasate Press'-ek bidea ireki zuen tokiko prentsan"**



**JOXE ARANTZABAL**  
'ARRASATE PRESS'-EKO LEHEN ZUZENDARIA



---

**"Kazetari dinamizatzailerena da orain dugun erronka"**



**IBAN ARANTZABAL**  
GOIENAKO ZUZENDARIA



---

**"Auto-edizioa jartzean, urrezko domina irabazi zen"**



**MIKEL IRIZAR**  
TOKIKOM-EKO PRESIDENTEA





Arrasate Press-eko azalak. | GOIENA

adierazten du jendeak ondo ikusitakoa zela. Bestetik, diru laguntzak ere jasotzen ziren".

Beste ezaugarri batzuk ere garrantzitsutzat jotzen ditu Diaz de Tuestak: "Doakoa izatea eta euskalgintzaren eta Udalaren inplikazioa lortzea garrantzitsuak izan ziren". Ildo horretatik mintzo da baita Estepan Plazaola ere, Goienako presidentea ohia: "Gizarte eragileen eta administrazioaren arteko elkarlana izan zen. Ez zen administrazioak diruz laguntzea izan bakarrik".

Tokikom-eko presidentea Mikel Irizarrek urrezko domina bat irabazi zuela dio: "Auto-edizioaz hasi zen funtzionatzen *Arrasate Press*, Gipuzkoan liderra zen *El Diario Vasco*-k hiru urtera sartu

zuen. Beraz, euskarak urrezko domina bat irabazi zuen".

Jon Sarasuak, Garabideko kideak, garai hartan izandako intuizioa azpimarratzen du: "25 urte geroago sen egokia izan zela ikusi dugu eta urte hauetan gutietan lan egokia egin dela".

**10 urte sarean**  
"Arrasate Press" sortu zenean, ez genituen egungo GOIENA papera edo beste euskarriak irudikatzen. Garai berrietara egokitzen jakin duela esango nuke", esan digu Zubizarretak.

Halaxe sortu zen *Goiena.net* ataria orain dela 10 urte, garai berrietara aurreratzeko asmoz; Goienako zuzendari Iban Arantzabal: "Arrasate Press-ek asmatu

eta leiho bat, kapelu, kamioi eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
leiho bat, kapelu, kamioi eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
bat, kapelu, kamioi eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
kapelu, kamioi eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
kamioi eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
eta autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
autoen gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
gainetik beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
beste leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
leiho batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
batzuetara ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
ematen duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
duena; eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
eta gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
gela barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
barruko mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
mahai baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik ez  
ETA LITERATURA. Besterik ez  
LITERATURA. Besterik ez  
Besterik ez  
ez

**ANTOLATZAILA**



**BABESLE NAGUSIA**



**BABESLE PUBLIKOAK**





**BABESLE PRIVATUAK**




**48. DURANGOKO AZOKA**  
kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com)

@durangokoazoka



zuen auto-edizioaz, *Goiena.net* antzerako zerbait izan zen. Blog munduarekin hasi ginen eta *Sustatu.com*-en sorreran ere hartu genuen parte, edukien aldetik. Segituan etorri zen *Goiena.net*. Ekarpina izan zen euskara kioskoetan, tabernetan eta telebistaz etxeko egongeletan egotetik, indar handia hartzen zebilen beste pantaila baten ere izatea".

Iban Arregik, Berria Taldeko kontseilari ordezkariek, hau nabarmendu du: "*Goiena.net*-en ekarpen nagusia izango litzateke erdal medioen hegemoniari aurre egiten diela. Eskualdean gaztelarazkoak baino erreferenteago da".

**Hedabide tradizionalak krisian**  
Egungo komunikabide ereduaren gainean gogoeta asko egiten dira, batez ere, prentsaren inguruan. Esaten da hedabide tradizionalak krisian daudela. Hainbat aditurrekin izan gara berbetan.

"Zaila izango da paperak zein etorkizun izango duen jakitea. Gogoratzen dut orain dela bost bat urte batek esaten zuela papezko egunkariak desagertuko zirela 2050ean eta guztiok erantzun genuela: 'Beno, beno, beno...'. Egun, ez dakit iritsi ere egingo diren, izatekotan gutxi batzuk", dio Goio Aranak, Mondragon Unibertsitateko irakaslea. Aitor Zuberogitia MUko irakaslea unibertsitatean eginiko ikerketa baten berri eman digu: "Iaz azterketa bat egin genuen ikusteko zela informatzen diren gazteak eta ikasle batek esan zigun: 'Zela joango naiz papezko egunkari batekin kaletik!'. Argi dago paperari ez diotela erreferentzialtasunik ematen; sareari bai, ordea". Amaia Pavon ere MUko irakaslea da eta honakoa zehazten digu: "Nik uste dut gero eta gehiago bilatzen dugula Interneten entretenimendua; ikus-entzunezko euskarrira jotzen dugu gehiago, idatzizkora baino".

Bestalde, teknologia berriek kazetariaren lana bera ere jarri dute bidegurutzean. "Internetek ahalbidetu du kazetari ez direnei hitza ematea. Hala ere, nik, kaleko herritar bezala, gertaera bat kontatzeak ez nau kazetari bilakatzen. Kontakizun horiek ezingo dira parekatu kazetari baten lanarekin, beste entitate bat izan behar du azken horren zereginak", dio



Goiena.net Interneteko atariaren irudia, eguaztenean aterata. | IMANOL SORIANO.

## 'Goiena.net' berritua

*Goiena.net*-ek ere urteak bete ditu abenduaren 2an, *Arrasate Press*-ek bezala. 10 urte dira *Goiena.net* abian jarri zela. Goienaren hedabiderik gazteena da, hortaz, eta gehien hazi dena ere bai. Gaur egun, batez beste, 5.000 erabiltzaile bakar ditu astean zehar. Berritua etorriko da *Goiena.net* datorren astean eta abenduaren 12an ekitaldi berezia egingo da hori aurkezteko Arrasaten, Kulturaten. Komunitatea, *Aurreztu.com* eta Gida izango dira *Goiena.net*-eko berritasun nagusiak.

Pavonek. Eneko Bidegain MUko irakaslea honakoa gaineratzen du: "Ez Internetekin, ez ezerekin, ez dira kazetari batek izan behar dituen dohainak aldatuko. Gaitasun berriak beharko dira, esaterako, etengabe egokitzen joatea, baina beharrezkoak izaten jarraituko dute: idazteko zuzentasunak, sintesia egiteak, mundua ulertzeak edo memoria historikoa izatearen beharrak".

### Komunitatea sortzea

Joxe Arantzabalek beste kazetaritza eredu bat proposatu digu: "Alemanian zabaltzen ari da sakoneko kazetaritza eta arrakasta izaten ari da. Guk bat-bateko informazioa lantzen dugu batez ere, baina aurrerantzean kazetariak informazioa gehiago landu beharko du". Ildo beretik mintzo da Arana ere eta adibide bat jartzen digu: "Istripu bat izan bada, gaur eta orain albiste nagusi izan daiteke sarean, baina paperean (bost egun geroago) azaldu beharko duzu, agian, zergatik gertatu diren horrenbeste istripu zona horretan azken urteotan". Zuberogitiak, berriz, bi tendentzia nabarmentzen ditu: "Bat izan daiteke *El Mundo*-k, *New York Times*-ek edo *Naiz.info*-k hartu duten kobratzearen erabakia. Beste bat izan daiteke (*Berria*-k egin zuen bere garaian) zure inguruan komunitate bat sortzea. Bigarren ideia hori interesgarriagoa izan daitekeela iruditzen zait; izan ere, langak jartzea Interneten beraren logikaren aurka doala begitantzen zait". Maite Iturbek, Eitb taldeko zuzendari nagusiak, komunitatearen garrantziaz hitz egin digu: "Internetek informazioz itotzen gaitu. Arazoa da hori nola landu eta nola komunikatu. Ideia komunak edo komunitate txikiak sortu behar dira. Euskara da gure komunitate egiteko *link* nagusia".

Hain zuzen, bigarren bide hori hartu du Goienak. "Kazetariak aspalditik dira multimedia Goienan. Erraz sartu ginen bide horretan. Orain, gure ekimena da kazetari dinamizatzailearena. Inguruan saretze bat lortzera bidean lan egingo duen kazetaria da", azaldu digu Iban Arantzabalek.




**ATE IREKIAK**

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**  
ARRASATE · ABENDUAK 14  
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA FAKULTATEA**  
OÑATI · ABENDUAK 12  
Osteguna, 18:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA · ABENDUAK 14**  
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · ABENDUAK 13**  
Ostirala, 18:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA -**  
Basque Culinary Center  
**DONOSTIA · ABENDUAK 14**  
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

**ONLINE ATE IREKIAK**  
**ABENDUAK 17**  
Asteartea, 18:00 (Euskaraz) / 19:00 (Gaztelaraz)  
<http://mukom.mondragon.edu/mutb>

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI  
**902 110 436**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



### ESANAK

**"Erdal medioen hegemoniari aurre egin dio 'Goiena.net' atariak"**



IBAN ARREGI  
BERRIA TALDEKO KONTSEILARI ORDEZKARIA

**"Ez nau kazetari egiten gertaera kontatze hutsak"**



AMAIA PAVON  
MU-KO IRAKASLEA



# Kamiseta urdin eta gorriak batera, Martxa Urdinean

- ▶ Mondragon Taldeak esandakoa bete dezala eskatu dute Edesakoek
- ▶ Birkokatzeetarako "faktore objektiboak" eskatu dituzte Ordaindukoek

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Fabrika atzera ere zabaltzea "zaila" izango den arren, hasieratik dute horren esperantza Edesan, eta mezu hori ekarri dute asteon, oinez, Basauritik Arrasatera, Martxa Urdinean: "Uste dut irekiko dugula. Hasieratik dago jendea horretarako lanean eta jakin badakigu Edesak aurrera egin dezakeela, bideragarria delako. Beraz, gure esperantza da ea norbaitek laguntzen digun zeregin horretan", adierazi du Joseba Lopategik, Edesako langileen ordezkariak.

Basauri-Zornotza-Apatamonasterio (gaua bertan)-Elorrio-Kanpanzar-Mondragon Taldearen egoitza da bi egunean egin duten ibilbidea, 60 kilometro pasa oinez. 50 bat lagun atera ziren martitzenean, bidean 20-30 gehitu zitzaizkien eta atzo, eguaztena, Kanpanzarren Basauritik etorritako hiru autobuskada, bazkideak eta Ordaindu Plataformetako kideak eta Fagor Etxetresnetako beste langile eta bazkide asko ere. Horrez gain,

beste batzuk ere zain izan zituzten Olandixon, Fagorrekoen kamiseta gorriek Edesakoen urdinekin bat egin eta Mondragon Taldearen egoitza aurrera joateko.

## "Gestio txarra guk, giltza eurek"

Han, Edesakoek mezu garbia helarazi zieten Mondragon Taldeko

arduradunei: "Eurek esan zuten bideragarriak diren negozioak aurrera eramango zituztela. Badakigu Fagorren guk egin genuela gestio txarra, baina orain eurek dute giltza fabrika aurrera ateratzeko, eta Kontseilu Orokorraren lana da hori egitea. Langileak eta politikariak atzetik joango gara".



Martxa Urdina, Mondragon Taldearen egoitzara bidean. | IURE EIZAGIRRE



Edesakoekin bat egin zuten Debagoienekoek Kanpanzarren. | UBANE MADERA

Horrekin batera, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkari politikoendako mezua ere ekarri zuten Edesakoek Basauritik: "Bai Gari-tanok, bai Bilbaok, bai Eusko Jaurlaritzak, denok batera jardun dezatela eta ez daitezela ibili elkarri harrika. Lan egin dezatela fabrika irekitzeko, ez botoak lortzeko bakarrik".

## "Faktore objektiboak"

Bestalde, Martxa Urdina aprobetxatuta, Ordaindu Plataformatik bazkideen birkokatzeen ardura duen Enplegu Bulego Korporatiboari eskatu gura izan diote birkokatzeak egiteko orduan "faktore objektiboak" har ditzatela kontuan: "Familiaren beharrak, emakume eta gizonezkoen arteko parekotasuna, lantoki berriaren eta langilearen bizilekuaren artean ahalik eta kilometro gutxien izatea,

zailtasunak dituztenak (300 pasa dira) kontuan har ditzatela...", azaldu du Mikel Olabe ordezkariak.

Orain arte egindako birkokatzeei dagokienez, berriz, salatu gura izan du "behin-behineko" izaera dutela. Hau da, bazkideak birkokatu arren, lanpostua hartzen duten lantoki berriaren behin-behineko izaera ematen dietela, eta horrek "segurtasun eza" eragiten duela kolektibo horretan.

Bukatzeke, gogora ekarri du bihar, eguena, Biterin agerraldia egingo dutela (18:00-19:00) eta egunotan Fagor Taldeko presidentearrekin, Kontsumobiderekinekin eta Fagor Etxetresnetako Kontseilu Errektorearekin (astelehena, 09:00) batzartuko direla; eta, oro har, hasieratik egindako fondo eskea indarrean dutela. Harremanetarako: [ordaindu123@gmail.com](mailto:ordaindu123@gmail.com).

## la Gipuzkoarako aurreikusitakoa batu da gurean

Bergarako Elikagaien Bankuan aurreikusi dute 60.000 kilo inguru (edo gehiago) batu direla gurean

U.M. | BERGARA

Atzo, eguaztena, oraindik ere lanpetuta eta "gainezka eginda" zebiltzan Bergarako Elikagaien Bankukoak, asteburuko elikagai bilketan batutakoa deskargatu eta antolatzen. Jose Antonio Agirrebeña, elikagaien bankuko

arduradunak, esandakoaren arabera, gaur (eguna) izango dira batutakoaren zenbatekoa emateko moduan, baina, hori jakin barik ere, oso argi dute aurreikusitakoa guztiz gainditu dela, eta, horrexegatik, eskerrak helarazi gura dizkie elkartasun keinu

hori izan zuten guztiei. Agirrebeña, hala ere, gurean batutakoaren gaineko balizko zifra ematera ausartu da: 60.000 kilo: "Eskerrak eta esker oso handiak eman behar dira. Ez dakit zer sortuko den, baina aurrekoan Gipuzkoan egin genuen aurkezpenean esaten zen Gipuzkoan 100.000-110.000 kilo batuko zirela, eta hemen batzuk optimista dira esaten ea ez garen gu izango kilo kopuru hori batu ditugunak. Ez dakit, baina nik uste dut Debagoienean (Goierrri, Urola Garaia eta sartuta) 60.000 kilo ingururen bueltan ibiliko garela".

## Bankura edo udaletxera

Batutakoarekin ekainera arte eutsi beharko diote, orduan egiten dute-eta urteko bigarren kanpaina, baina badute horretarako esperantzarik. Agirrebeña esandakoagatik, zenbait saltoki txiki galdezka dituzte ea oraindik ere baduten elikagaiak ematerik. "Horrela lasaiago eutsiko diogu ekainera arte", esan du. Bukatzeke laguntasuna behar dutenendako deia egin gura izan du bergararrak: "Lasai etor daitezela eta guk esango diogula zer egin, edo jo dezala nork bere udaletxera eta han bideratuko dutela.

J.A. AGIRREBEÑA  
BANKUKO ARDURADUNA

## "Orain gure inguruko asko etortzen da laguntza eske"

Elkartasun uholde honen arrazoi en azterketa ere egin dute.



Uste duzu izan daitekeela jendeak gertuagotik ezagutzen dituela egoera gaitzak?

Duda barik. Orain hiru urte, gu hasi ginenean, jendeak zer edo zer ezagutzen zuen, baina hiru urtean aldaketa handia gertatu da: familia askotan, senar-emazteak lanean egotetik bat langabezian geratu da, edo biak langabezian egotera pasa dira... eta gero eta jende gehiagok jotzen du gure atea. Eta kontatu zidaten Bergarako kasu bat: ama bati bi umeekin argindarra moztu ziotela... Halako gero eta gehiago ditugu.

## Eta hemengoak, ezta?

Bai; lehen, gehienak izaten ziren etorkinak, baina orain, gure inguruko jende asko etortzen da. Eta horiei esango nieke, gainera, lotsak utzi eta lasai etor daitezela gurera.

NARANJAS  
GARIBO

Garibo familiaren zelaian jasotako  
uzta, tradizionalki landatuta.  
Etxeraino eramaten dizkizugu.

Kilo bat DOAN

10 kiloko kaxa bakoitzeko,  
GOIENAKO irakurleentzako euren  
lehenengo erosketan

Pestizidak %0  
Osasuna %100



Kalitate  
Ziurtagiria

Informazioa eta eskaerak:  
961 420 831 / 606 863 245  
On Line denda:  
[www.naranjasgaribo.com](http://www.naranjasgaribo.com)



Boluntarioak Bergarako Elikagai Bankuan lanean, martitzenean. | U.M.



## Lau kontu korrante zabaldu dituzte, Filipinei laguntasuna emateko

U.M. | DEBAGOIENA

Gobernuz kanpoko Harreman erakundeak Filipinei laguntzeko kanpaina abiarazi du oraingo astean.

Haiyan tifoia Filipinak zeharkatu zituenetik (azaroaren 8a), "tragediak hondoratutako herrialdea" dela hura adierazi dute Harremanetik. "Hasierako heriotza eta hondamendiari elikagai eta laguntza sanitarioaren falta gehitu zaie, etxe, ospitale eta eskola gehienek suntsipena", gaineratu dute. Eta azpimarratu dute egoera horri aurre egiteko orduan agerian geratu dela Filipinetako "erakunde ezintasuna bizilagunei laguntzeko".

"Filipinetako herriaren larritasuna ikaragarria da, eta bihotz-bihotzetik eskatzen digute ez ditzagula ahanzi", azpimarratu dute.

### Lau kontu korrante

Hala, kaltetutako eremuak berrekitzen hasi beharra dago berehala, eta horretarako eskatu du laguntza Harremanek. Pertsona, enpresa eta erakunde guztiei egin diete elkartasuna erakusteko dei. Lau kontu korrante zabaldu dituzte: Laboral Kutxa: 3035 0001 51 0010127016. Kutxabank: 2095 5055 50 9113309330. Caja Rural: 3008 0253 49 2793534526. Eta La Caixa: 2100 1972 03 0200112601.



Bestelako edukiontzia dauden lekuan jarriko dituzte berriak. | U.M.

## Ospitalerako hondakin biltze berezitua landu dute

Debagoieneko Ospitaleko beharren arabera antolatu du biltze berezia Mankomunitateak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Debagoieneko Ospitaleak sortzen dituen hondakinen berezitasuna aintzat hartu, eta hondakinok batzeko egutegi berezitua landu du Debagoieneko Mankomunitateak bertarako.

### Egunero eta astean hirutan

Esaterako, egunero batuko dituzte fardelak eta ehun sanitarioak. Gainontzeko errefusa, organikoa barne, berriz, astean hirutan batuko dute, "Arrasaten edukiontzi berdea jasotzen den egun beretan", Leire Egañak,

Mankomunitateko Ingurumen Batzordeko buruak, esandakoaren arabera. "Beraz, ospitaleak berak egin beharko du errefusaren banaketa berezitua", gaineratu du Egañak.

Eta papera eta ontzi arinak batzeko, berriz, iglu moduko horiek jarriko dituzte, urdinak eta horiak ospitalearen atzeko aldean (gaur egun edukiontziak dauden lekuan)

Hondakin bilketa berezitua abiaraziko dute "kontratu kontuak zehaztu ostean, ahalik eta lasterren".

## Urteko hirugarren datu txarrena: azaroko langabezia

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA Hego Euskal Herrian orokorrean ez bezala, Debagoiengan langabe gehiagorekin bukatu da azaroa, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen arabera: 3.795 langabe (%12,73ko tasa), urri bukaeran baino 24 gehiago. Edozein modutan, urrian baino gutxiago hazi da: irailetik urrira, 68 langabe gehiagok eman zuten izena Lanbideren bulegoan. Urteko hirugarren datu txarrena da. Iraila ezkerro handitzen ari da langabezia datua. Irailan 3.707 langabe zeuden (%12,44).

### HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
<b>Antzuola</b>	106	%9,72
<b>Aretxabaleta</b>	351	%10,38
<b>Arrasate</b>	1.619	%15,63
<b>Bergara</b>	910	%12,98
<b>Elgeta</b>	45	%8,30
<b>Eskoriatza</b>	249	%12,22
<b>Leintz Gatzaga</b>	11	%8,15
<b>Oñati</b>	504	%9,60
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.795</b>	<b>%12,73</b>

ITURRIA: ESPAINIako ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOa

## Udalbiltza eta Topagunea bat euskararen alde

Udalbiltzak babesa agertu dio Euskaltzaleen Topaguneak tokian tokiko euskaltzale elkarteekin abiarazitako *Euskarak 365 egun* ekimenari. Laguntza ere eman du hedapenerako [www.365egun.eu](http://www.365egun.eu) webgunearen osaketan.



TOPAGUNEa

**CRISTALBOX** **DESA CRISTAL**

Autoen kristalak konpondu, aldatu eta tindatu

**20** 1993 2013

20 urte zuekin!  
Mila esker!



### INPAKTUEN KONPONKETA

Azkarragoa,  
ekologikoagoa  
eta ekonomikoagoa.

Ez itxaron kristala  
guztiz apurtu arte

Kostu barik zuretzako.  
Aseguru etxeekin  
zuzenean tramitatzen dugu.

### PROMOZIO BEREZIA!

Konponketa eginda,  
opari egingo dizugu euriaren aurkako  
tratamendua eta beira-garbigailu  
likidoaren nibelatzea.

**TAILERRA ETA BULEGOAK BERGARAN:** Santalaitz, 6 - 5. Pab. 83 P.K. Tel.: 943 76 36 09 Faxa: 943 76 73 45.  
**TAILERRA IRURAN:** Ibaiondo Bailara 17 Pab. 8 20271 Tel.: 943 69 16 16 Faxa: 943 69 12 47



Jagoba Arrasate | Realeko entrenatzailea

# "Realean, jokalarien artean, euskaraz jarduten dute eta ni ere euskaraz zuzentzen natzaie"

- ▶ Jagoba Arrasate Bergaran izan da Euskararen Egunean, Kirola Euskaraz ekitaldian
- ▶ Zubietan ere Euskararen Eguna ospatu zutela dio, euskal berba gustukoenak aukeratuta

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Jatorra, apala eta argia. Halakoxea ageri zaigu hedabideetan Jagoba Arrasate Realeko entrenatzailea (Berriatua, 1978). Gertuan, baieztatu egiten da hasierako aurreiritzia. Bergaran izan da oraingo astean, Euskararen Egunean. Hurbileko agertu da eta bertsoan ere ausartu da, bat-batean erantzuteko azkartasuna daukala erakutsita.

**Euskararen Eguna ospatu duzu?**

Bai, etxean, goizean goiz, alabarrekin. Eta, gero, Zubietan ere bai. Orri bat jarri dute jokalariek aldagelan, eta bakoitzari eskatu ipintzeko euskaraz gustukoen dugun berba. Jarri ditugu piloa, batzuk politagoak beste batzuk baino: *maitasuna, musua*... Baina bukatu dugu *txortan*-eta moduko berbeekin. Barre batzuk egin ditugu. Politza izan da.

**Zuk zeuk zein ipini duzu?**

*Kamamila* etorri zait momentuan, bi bider pentsatu barik. Politza da, baina ez daukat berba fabrikatorik.

**Kirola euskaratzeko geroago eta ahalagin handiagoak egiten dira. Ondo ikusten duzu?**

Bai, beharrezkoa eta aberasgarria da. Kirola eta euskara ez dira bateraezinak; alderantziz, batera joan behar dute.

**Bergaran zaude, besteak beste, kirola euskaratzeko lanean diharduten herriko kirolari eta kirol taldeei aitortza edo omenaldia egiteko ekitaldian. Beharrezkoak, garrantzitsuak, dira horrelakoak?**

Jende asko dago kirolean, ezkutuan, isilean, lanean diharduena eta horietako askok lan hori euskaraz egiten dutela aitortzea beharrezkoa, komenigarria, da. Jendeak ikusteko zertan dabilzan, ze lan egiten duten...

**Realeko aldagelan euskaraz?**

Bai, euskaldun asko dago eta haien artean euskaraz jarduten dute eta ni neu ere haiei euskaraz zuzentzen natzaie. Aginduak, taktika, zerbait zuzendu behar bada... bai entrenamenduetan edo bulegoan, eta baita partiduetan ere. Mikeli, *Anso*-ri, Prietori edo Markeli zerbait esan behar badiet, beti euskaraz. Berez ateratzen zaigu eta, bestalde, abantaila ere bada, partiduetan kontrarioak ez du-eta ulertzen.

**Zela hartzen dute hori atzeritarrek edo euskaraz ez dakitenek?**

Normal-normal. Haien ere hiruzpalau berba egiten dituzte euskaraz, arraroenak edo grazia handien egiten dietenak... Batzuek ulertu ere egiten dute.



Jagoba Arrasate, Bergaran, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**Euskarak 365 egun dio leloak. Zu zeu ere euskaraz bizi zara urteko egun guztietan?**

Bai. Zubietan komentatu dugu gaur. Uste dut ona dela Euskararen Eguna ospatzea, egun bat egotea egutegian hori ospatzeko, baina, euskaraz, egunero, uneoro, bizi behar dugu, urteko egun guztietan.

**Etxean, lanean, lagun artean, modu naturalean bizi zara euskaraz?**

Bai, lanak hartzen du nire egunerokoaren zatirik handiena, baina, bai, emaztearekin, alabarrekin, aitarekin, amarekin, lagunekin... beti euskaraz. Nire ingurunea oso euskalduna da.

**Arrasaten egin zenuen debuta Realekin. Ze oroitzen duzu orduko partiduetan?**

Oso polita izan zen. Berezia, benetan, ez bakarrik lehena iza-

tearren, nahiz eta adiskidantza-ko partidua izan. Halako futbol zelaietan ibilitakoa naiz, bai jokalaria eta baita entrenatzaile moduan ere. Debuta probintzian egitea berezia da. Eta partidu aurreko berbaldian jokalariei ohartarazi nahi izan nien partiduak zeukan garrantziaz, eman behar genuen irudiaz; izan ere, lurraldetik jende asko dator gu animatzera, zale asko dauzkagu eta eskuzabal jokatu behar dugu. 0-12 irabazi genuen. Jakina, emaitza ez zen izan garrantzitsuena, baina gogoan daukat amaieran presidenteak deitu zidala eta esan zidala, txantxetan: "Orain uzten baduzu, inork baino palmares hobea izango duzu!".

**Hedabideen presioa-eta zela daroazu?**

Beti izan naiz kirol prentsa edo irrati saio bereziak entzutekoa, baina orain ez. Uste dut ez dela ona zeuri edo zeure taldeari buruz esaten edo idazten dena uneoro irakurtzen, ikusten edo entzuten egotea.

**Zaila da Realeko entrenatzaile izatea?**

Ez. Nire kasuan, entrenatzaile moduan egin dudana ibilbidea prozesu bat izan da, ikasgai bat. Berez etorri da guztia.

**Irakasle izateak lagundu dizu taldeak kudeatzeko?**

Bai, seguruen, bai. Jokalari askori entzun diet esaten ez dutela beren buruak ikusten futbola amaitzen zaienean 20-25 lagun

aurrean berbetan. Irakaskuntzan horrenbeste urte aritu izanak harremanetarako-eta lagundu dit, bai.

**Asko aldatu zaizu bizitza Realeko entrenatzaile izatearren?**

Egunerokoa, ohikoa, betikoa da: entrenatzea. Egia da gure rola aldatu egin dela. Erabaki inportanteak hartu behar dituzu eta zure erabakiek edo esaten dituzunek oihartzun askoz ere handiagoa dute orain. Itziarren bizi naiz eta tarteka Berriatura joaten naiz eta han gauzak ez dira askorik aldatu. Ezagun nintzen Realeko entrenatzaile izan aurretik. Baina beste herri batzuetara banoa, edo Donostian kalean banoa, jendeak geratu egiten nau. Horretan bai aldatu da nire egunerokoa.

**Irakasle zara lanbidez. Zumaian aritu zara azkenekoz?**

**"Irakaskuntzan aritu izanak lagundu egin dit taldeak kudeatzeko"**

**"Txapeldunen Ligako partidu bat irabazi gura dugu, zaleei eskaintzeko"**

Bai, etxetik, Itziartik, gertuko herri baten. Baina Euskal Herri osoan barrena ibili naiz luzaroan, baita Arabako Errioxan ere. Esaterako, Eskoriatzan eman nituen eskolak, Luis Ezeizan. Egunen baten berriro irakaskuntzara itzuli beharra izango banu, ez nuke atzerapauso moduan hartuko.

**Ze eman dizu irakaskuntzak?**

Asko lagundu dit: jendearen aurrean egoteak, harremanak izateak pertsonekin, gurasoekin...

**Neguan fitxatuko duzue?**

Beti izan naiz daukadanari errendimendua ateratzen aldeko. Baina baloratuko dugu unea heltzen denean. Sanseko gazteak ere hor daude.

**Hurrengo hilabetean partidu garrantzitsuak dituzue, Errege Kopa, derbia...**

Kontuz ibili behar dugu Koparekin, disgustu handiak izan ditugu-eta azkeneko urteetan. Guretako oso garrantzitsua da eta ilusio handia egiten digu, baina zuhurtasunez jardun behar dugu, berbak neurtuz eta gauzak tran- kil hartuz.

**Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, derbia Anoetan.**

Urrun geratzen zaigu, baina bagabiltza kontuari bueltak ematen. Izan ere, Gabonetako etenaldiaren osteko lehen partidua da eta data konplikatua dira: atzeritarrak euren etxetara doaz, geroago itzultzen dira, jan-edana kontrolatu behar da... baina Erregeetako opari berezia egin nahi diegu zaleei, bizkaitarrei irabazita.

**Aurretik, azken partidu duzue Txapeldunen Ligan Leverkusenen aurka etxean. Ze garrantzi ematen diozue partidu horri?**

Garrantzi handia ematen diogu denok. Txapeldunen Ligako partidu bat irabazi gura dugu. Eta, bestetik, zaleekin zorretan ere bagaude.

**Ze moduz Lumbreras eta Bittor Alkiza zeure laguntzaileekin?**

Oso ondo. Lumbreras ez nuen ezagutzen; Alkiza bai. Hark ekarri ninduen Zubietara Elgoibartik, harrobiko arduraduna zenean. Hura izan da nire nagusia eta beti izan dugu harreman ona; orain neu naiz haren nagusia. Atleticen eta Realean aritu zen jokalaria moduan eta bietatik aterra zen ondo. Horrek asko esaten du haren alde.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





## ZABALIK

GARIKOITZ  
ITURBE

goiena.net/iritzia/



## Kolore festa

Egunotako emozio eta sentipenak koloretara pasatu ditut.

Urdina eta arrosa. Gabonak gertu daude, eta telebistan eta dendetan haurrentzat jostailuek presentzia handia hartu dute. Gauzak aldatu direla eman arren, oraindik bide luzea dugu egiteko. Berdintasunaz hitz egiten dugu, baina txikitatik bakoitzari rol konkretu bat betetzera zuzentzen ditugu.

Beltza. Hainbat albistoren kolorea. Batetik, Fagor elektratresnen itxiera. Lanpostuen gaitzetik haratago hausnarketarako bide luzea uzten digun itxiera. Bestetik, zapalzen gaituen estatu ilun horretatik heltzen zaizkigun berri beltzak. Hezkuntza erreforma ankerra eta presoek Sevillako espetxean bizi duten egoera larria. Besarkada bero bat!

Gorria. Gazte ekimenaren logotipoko izarraren kolorea. 10 urte Atxabaltza animatzen, alternatibak proposatzen, giroa jartzen. Generazio berrien arteko lotura saretzen. Eta hor dihardute hasieratik Zangitu eta Elik egurra ematen. Aupa zuek!

Laranja. Sinesgarriak ez diren epaiketa eta sententzien aurrean planto egiteko, laranjez margotu ditugu Euskal Herriko hainbat txoko. Konpromisoaren kolorea, kolore solidarioa, borrokarako kolorea, ilusioaren kolorea, herriaren kolorea. Libre!

Ortzadarra. Kolore festaren amaiera. Etapa baten amaiera, gatoz eta bagoaz. Bidean azterna luzea utziko didan bizipen pila bat batu ditut Txatxilipurdin. 3 urte, goiz eta batzuetan gabe. Ai, ene, zenbat bizipen! Zuekin bizitakoak bizitza ikusteko modua aldatu dit eta zuek zarete errudunak. Eskerrik asko bihotz-bihotzez. Hau ez da agur bat, Txatxilipurdin izango naiz aurrerantzean.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | <http://goiena.net/iritzia/>

## GUTUNAK

## Mozioa

**Jose Antonio Amundarain eta Jabi Altube eta Pedro Sologaitza**  
(Duintasuna Elkarte Oñati)  
Oñati

Gipuzkoako Duintasuna Elkarte jubilatua eta pentsionisten izenean lau gai sartu genituen Oñatiko Udalean azaroaren 28ko plenoan azter zitzaten:

1-PPren gobernua egiten ari den pentsioen mozketen kontrako jarrera irmoa.

2-Medikamentuen portzentaje bat berriz ordaintzearen erabateko gaitzespena.

3-Gipuzkoako Onkologikoa Osakidetzan sare Publikoan sartzea eta ez pribatizatzea.

4-Akordioa Batzar Nagusietara bidaltzea eztabaidatu eta dagokion erabakia har dezaten.

Han emandako iritziaren laburpena jasotzen dugu hemen:

Madrilgo eta Gasteizko gobernuetatik jubilatua eta pentsionistoi medikamentuen berrordainketa inposatu zaigu. Ia 450 medikamentu sare publikotik atera dituzte eta horiek eskuratzeko %100 ordaindu beharko dugu.

Beste medikamentu

guztietan berriz %10 ordaindu beharreko obligazioa jarri zaigu, nahiz eta Jaurilaritzaren dekretu baten ondorioz urtean 18.000 eurotik behera kobratzen dutenei uztailetik hasita hasiko zaien, betiere gaixo objektibo egoeran daudenei. Beste guztiok %10 ordaindu beharko dugu medikamentu bakoitzeko, betiere pentsioak hiru mailatan sailkatuta, maila bakoitzari jarri zaion mugaraino.

Azken urtez urteko pentsioei kasu egiten badiegu, berriz, 2011n ez ziren igo, 2012an %1 igo ziren eta 2013an %2 1.000 euro azpiko pentsioentzat eta %1 hortik gorakoentzat.

Autonomia Erkidegoan 630.000 pentsiodunetatik 500.000k 1.000 eurotik beherako pentsioa dute eta eros ahalmena gutxituaz doan neurriaren egoera larritzen ari da, batez ere emakume alargunen artean.

Hala ere, eraso ez da hemen bukatzen; orain, Pentsio Sistema Publikoa indargabetu eta suntsitu nahi dute Madrildik.

PP errekurtsio ekonomikorik gabe uzten ari da Pentsio Kaxa eta aitzakia horrekin pentsio pribatuak

gizendu nahi ditu.

Gure seme-alaben eta biloben etorkizuna ere jokoan dago eta borroka ez dugu gure pentsioei begira bakarrik egin nahi, ondorengoena ere ez baita izango lasai egoteko modukoa.

Pentsioak hemen kotizatu ditugu eta bertan kudeatzeko eskubidea daukagu, eta, horregatik, Gipuzkoako Duintasuna taldetik bertako Pentsio Sistema aldarrikatzen dugu.

Donostiako Onkologia Zentroa ere noraezean da Osakidetzan sartzeko agindua ez delako bete oraindik, eta pribatizatzeke maniobrak baztertuta sare publikoan ikusi nahi dugu.

Gaur bertan, plenoaren aurretik, kontzentrazioa egin da plazan egoera salatuaz, eta gu ere hor egon gara eta dinamika horrekin jarraitu beharko da aurrerantzean ere pentsionisten elkarte, plataforma, asoziazio... denok bat eginaz.

Hau da plenoan esandakoa laburpen gisa: pentsioak eguneratzea; murrizketen aplikazioaren etena; berrordainketarik ez; guztiontzako izango den kalitatezko osasungintza publikoaren alde egitea.

Eskaera hauei Udaleko ordezkari politikoei emandako erantzuna honakoa izan zen:

EH Bilduk gure eskaera guztien defentsa egin zuen eta goitik behera onartu zituen.

PNVkoak, berriz, aurreneko puntuarekiko adostasuna agertu bazuten ere, abstenitu egin ziren.

## Arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu

### Maren Belastegi

(Bergarako Udaleko Euskara, Gazteria eta Hezkuntza zinegotzia)  
Bergara

Abenduaren 3a, Euskararen Eguna. Aurten ere, Euskararen Egunean izango da tarterik ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako. Eta, horretarako, ekitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze-zabalean.

Lehenik eta behin, Euskararen Egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaude. Izan ere, euskara maite dugunok badugu zer ospatu 2013ko abenduaren 3an. Euskara bizirik da, baditu hiztunak, eta etorkizuneko atea zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorrenetan ere, aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak ematen dizkigu.

Geroa euskaraz eraikitzeke, ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta egun zein egoera daukagun ikustea. Eta, gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaren arabera, oso egoera soziolinguistikoa ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohartuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitateetik abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. Herriz herri euskararen arnasguneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerrria euskararen arnasgunea da, ➤

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailtako arduradunak** Xabi Urzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaria), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | [publi@goiena.com](mailto:publi@goiena.com)

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

**Lege Cordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdetan, edo bestelako orrialdetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



► zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera, gune hauen erabateko normalizatorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitza dagokigu, legea bera ere beharren neurria egokituz.

Udalerrri euskaldunetan biztanleen %70ek baino gehiagok dakite euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako herritarrok. Udalerrri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituenez ezinbestean, udalerrriok funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerrri euskaldunetako administrazioak, batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea; eta herritarrok, bestetik, euskararen geroan jada jokatzeko dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentziatzeko dira euskarari dagokionez, eta ondorioz, baita bertako herritarrek ere. Gune hauetan egiten diren hizkuntza politikak eta norbanakook egunerokoa ditugun hizkuntza ohiturek, jarrerak eta joerak eragin zuzena dute euskararengan.

Gure herritik abiatuta, herritar soilen inplikazioaz, elkarte eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnaguneak zabaltzeko. Bergararik inguruko herrietara, Bergararik Euskal Herrira.

Bergarako Udalak, 2013ko abenduaren 3an, Euskararen Egunean, honako adierazpen hau plazaratu nahi du:

-Bergaran euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoiak garatzeko baldintzak daude. Udalerrri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.

-Udalerrri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta, beraz, ezinbestekoa da Bergara bezalako udalerrriek euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua aitortzea.

-Gure herria euskarari dagokionez erreferentziatzeko udalerrria dela jakinda, konpromisoa hartzen dugu Bergara garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketean eragin soziolinguistikoa kontuan hartzeko.

-Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntza irizpideen aurka jarritako helegiteek, esaterako,

kalte nabarmena egiten diote euskararen normalizazioari.

-Bergarako Udalak, herriko eragile eta norbanakoeekin elkarlanean, euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

## Desobedientzia zibila(k)

**Ibai Redondo**

(Bergarako Sortuko koordinatzailea)  
Bergara

Lege injustuen aurka eta auzo/ herri/mundu hobe baten alde egiteko tresna baketsua eta sarri eraginkorra izan ohi da desobedientzia zibila. Pertsona eta kolektibo askok erabili izan du eta gogorki jazarriak izan dira, baina garaipen handiak ere lortu izan dituzte: Ameriketako Estatu Batuetako beltzek, Martin Luther King buru, desobedientzia zibilaren bitartez arrazakeria gainditzeko garaipen garrantzitsuak lortu zituzten; Indian Mohandas Ghandi buru zuen desobedientzia zibileko mugimenduak Erresuma Batuekiko independentzia lortu zuen; nuklearren aurkako mugimenduak, tartean desobedientzia zibileko ekimen ugari eginez, Euskal Herrian zentral nuklearrik ez gotea lortu zuen; Euskal Herrian derrigorrezko soldadutzaren eta militarismoaren aurkako mugimenduak desobedientzia eta intsumisioaren bidez Espainiako ejerzito inperialista eta genozidan ez parte hartzea lortu zuen... Arrazakeria, kolonialismoa, zentral nuklearrak, militarismoa, etab. garaitzea lortu da mobilizazioa eta desobedientzia zibilaren bitartez. Herri edo mundu hobe, justuagoa, solidarioagoa, ekologikoagoa lortzea da desobedientzia zibilaren helburua.

Bergaran, aldiz, "desobedientzialari berrien" helburua zein da? Mundu hobe? Justuagoa? Ekologikoagoa? Arrazismoa gainditzea? Zakar poltsak ikusi ditugu zintzilikarioetan. Horietako ugari nahastutako hondakinekin, birziklatuko ez diren hondakinekin beteak. Gainera, mugimenduaren bultzatzaileek errauskailuaren aldeko jarrera hartu dute: osasunaren aurkakoa, ekologiararen aurkakoa, ekonomikoki garestia... En fin, beti bezala jarraitu, kontsumitu, ez birziklatu eta errauskailuan erre. Kapitalari, enpresa handiei, banketxeei, alderdi usteleki sumisioa eta birziklatzeko balio duen sistemari intsumisioa. Hamaika ikusteko jaiok. Desobedientziara berandu, oso berandu eta gaizki, oso gaizki iritsi dira batzuk.

Baditugu arrazoiak, bai, mobilizatzeko eta

desobedientziarako. Bergarak baditu bestelako lehentasunak denbora galtzen ibiltzeko. Horiekin gelditzen gara gu: enpleguaren defentsan ari diren langileekin; pentsio duinen alde ari direnekin; elikagai bankua hornitzeko ari direnekin; presoen eskubideen aldekoekin; kalitatezkoa eta bertakoa den hezkuntza sistemaren aldekoekin; gizon-emakumeen aukera berdintasunaren aldekoekin; AHTren aurkakoeekin; etxegabeteen aurka ari direnekin; euskararen aldekoekin; bertako merkataritzaren aldekoekin... Zuekin gaude, Bergara hobe bat egiteko. Elkarrekin. Aldarrikapen txatxuak baztertu eta benetakoei heltzeko.

Hala, igandean Durangon elkar ikusiko dugu, mozorrotuta eta kulturaz gozatzen, auzipetuekin batera epaiketa politikoen aurka egingo den desobedientzia ekimen masiboan.

## Ikurrina

**Mikel Iturrospe eta Lourdes Idoiaga**

(Oñatiko EAJ-PNV)

Oñati

Oñatiko Udalak, bandera jartzera behartzen duen sententzia betetzera obligatuta egonik, ikurrinaren omenaldi ekitaldi bat antolatu zuen abenduaren 1erako, aldi berean 1977ko Korporazioari gorazarrea eginez (urte hartan legalizatu baitzen ikurrina).

EAJ-PNVkook ekitaldi horretan parte hartzea erabaki genuen; izan ere, ikurrinak elkar ulertzearen ikur izan behar du, eta ez diskordiararena. Beti defendatu izan dugu ikurrina, legezkoa izan den garaietan eta klandestinitatean. Sabino Aranek orain 120 urte sortu zuenetik, beti defendatu izan da: gudariek gerran, Eusko Jaurilaritzako abertzaleek atzerrian, militanteek -inolako biolentziarik gabe- izaera ofizial, kultural edo kiroletakoetan aireratzten zutenean. Hau da, gaurdaino, bai errepresio garaian militante izanez eta bai 1977an legalizatu zenetik.

Eta orain, "arma hotsa" isildu denean, isil dadila ezker abertzaletik EAJren aurka erabili izan diren *hitzena* ere, banderaren alboan *PNV española, PNV traidorea, PNV saldua* ziotenak. Edo eta, EAJ-PNVk gobernatzen zituena erakundeetan bandera jartzera obligaturik egonda, honelako akusazioak egiten zizkigutenean: "Jardute hutsa, hipokrisia, euskal ikurrinaren konpromiso eza...". Min egiten zigun horrek eta, hala ere, isildu egiten ginen; orain ez dugu nahi izan txanpon berarekin ordaintzerik

eta elkar ulertzearen alde jarraitzea erabaki dugu.

Eta beti, geure ideiak, geure pentsaera, geure programa eta egiteko moduak defendatzen jarraituko dugu, alde edo aurka egonez, baina hori bai, tinkotasunez kritikatu dugu errespetu falta edo diskordia sustatu lezakeen edozein jarrera.

## Ez da bidezkoa!

**Irma Arabaolaza**

Oñati

Bagara ikasle dexente ostiralero Donostitik Oñatira faten garenak. San Prudentzian paradia egonda, bertan bajaitzen gara, baiña konturatu gara parada horrek ez dauela fabore haundirik egiten. Ondiok badauz autobusak San Prudentzian geldiketan ez dianak, eta nik dakitela autobus danak dakoi bertan geldiketako obligaziñua. Askotan, autobusa marxtan egonda ez zutitu ezker, autobusa Arrasatera fango litzake San Prudentzian gelditu barik. Hori ez da bidezkoa.

Beste alde batetik, San Prudentzian bajaitzen garelako ez dau esan gura maleta barik gatzela. Gidarixana korrika fan bihar izan du askotan maletaria eraitteko eskaketan. Gaiñera, bertan bajaitzen dan pertsona bakarra bazara eta momentuan ez badau ñor be autobusera igoteko, autobusa fan eta maleta barik gelditu zara. Hori be ez da bidezkoa.

Beste milla aldiz pasau xaku Donostiko autobusa San Prudentzioko rotondara ailegaitzen ebillela mutur parian San Prudentziotik Oñatira dabillen autobusak ihes egittia. Horrek esan gura dau beste ordu erdi itxoin biharra eukitten dula autobusa hartu eta Oñatira fan ahal izateko. Behin pasaittia ulergarria da, baiña ostiralero berdiña pasaittia ez da bapebe ulergarria. Egualdi onakin umore pittin bateaz hartzen dia gauzak, baiña negu osua hola pasaittia merezi du ikasliok? Ez da bidezkoa.

Honekin danakin esan gura dotena da batez be autobusan ordutegixak hobeto antolatu biharra dauzela. Hiriburutatik datozen autobusak bat etorri biher daue ordutegixak eta neri eta beste zenbait ikasleri oin arte, behintzat, ez dosku ezer be lagundu autobus honek. Gauzak zaildu besterik ez dau egiten; izan be, oin kotxe bat etorri bihar izaten da hainbat ikasleren billa ordu erdi itxoitten ez egotiatik, eta askotan samurraua eta dana izaten da autostop egittia, segidan baten batek hartzen zaittu eta. Benetan autobus zerbitzu honek onurarik ekarten dosku?

Astelehenian bertan pasau xakun beste gauza bat. Ailegaur giñan San Prudentzioko paradara eta papel bat pegauta euen bertan. Esaten ebena zan autobus batzuk bertan ez ziala geldituko, beste aldiran geldituko ziala. Orduan, hiriburu batetik datorren pertsona bat betiko paradan gelditu eta beste aldera pasau biher da Oñatirako autobusa hartu ahal izateko? Ez dau denporarik. Ordutegixak aldatu ezian, ez da autobus hori hartzera ailegaurko, eta gaiñera, ez da bapebe komodia.

Honekin danakin hainbat ikaslek eskertuko geke neurriren batzuk hartzea. Ikasle dexente gara hola gabitzenak eta nahiko nekagarria da, egixa esan. Espero dot zeozetarako balixo izatia hemen idatzitako *keja* honeik.

## Eskerrik asko!

**Jabi, Joxerra eta Nati Sanchez Marco**

Arrasate

Orain dela egun gutxi gure aita Tomas Sanchez hil zen.

Eskutitz honen bitartez, senideok bene-benetan eskerrak ematen dizkizuegu samin agurrak bidali eta bere hileta zibilera etorri zineten gutzioi.

Batez ere, bihotz-bihotzez, eskerrik asko eta mirespen sakona, ekintza zibilean mezuak idatzi eta irakurri zenituztenei, gure aitaren bizitzari buruz errekonozimenduz beterik.

Eskutitz honen bitartez, Iturbide egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Gure gurasok denboratxo bat eman dute hantxe. Beti, bai gurasa, bai gu, atendiduta sentitu gara, eta jakin ezazue aita eskertzen zuela zuen lana, eta miretsi ere bai, jakinez berak nahi zuen bezala beti ezin zela, baina bai miretsi eta errespetatu; berak bazekien laguntza behar zuela.

Gure amaren eta aitaren partez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuenoi, eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Agur bero bat, eta aurrera bolie!

(*Negar egiten baduzu eguzkia galtzearen, malkoek ez dizute utziko izarrak ikusten;* Rabindranath Tagore)

## ZUZENKETA

Aurreko egubakoitzeko GOIENAn, 18. orrian, *Olentzeroren sekretua* lana iragartzeko erabili genuen argazkia ez zettorren bat antzeztanarekin. Guk publikatu genuena *Mister Olentzero* antzeztanari zegokion. Lerro hauen bidez barkamena eskatu nahi diegu antzeztan horretako aktore eta lagunei.



# Ez zaitez galdu.



**EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!**

... eta hartu parte  
20 euroko

**100**

erosketa-bonuren  
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA





# HERRIAK

ONATI

## Erdal hiztunak euskarara hurbiltzeko ekimena

- ▶ Auzoko abiarazi dute Oñatin, Topagunearekin eta Uemarekin batera
- ▶ 'Auzotarrak' eta 'auzokideak' eguenero elkartzen dira Bidebarrietan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Auzoko ekimena abian da Oñatin. Zazpi erdal hiztunek osatutako taldearekin hasi da lanean Urko Egaña dinamizatzailea. Helburu bakarra dauka: euskararen lurraldera kanpotik etorritako pertsonen euskararen berri ematea, beraiek dakarten hizkuntza eta kultur aberastasuna errekonozituz eta balioa emanez.

Oñatiko taldea eguenero elkartzen da Bidebarrietan, eta askotariko ekintzak egiten dituzte. "Elkarrizketa euskaraz egiteko gai izatea lortu gura dugu, eta hori lantzeko askotariko ariketak egiten ditugu. Adibidez, pintxopoteoan nola jokatu landu genuen aurreko astean. Edariak eta pintxoak nola eskatu, nola ordaindu, zerbitzariaren aurrean nola jokatu... Egunerokotasunean baliagarriak izango zaizkien ereduak lantzen ditugu. Euskaldunok kuadrillak antolatzen dugu gure aisialdia. Lagun taldean egiten ditugu gauza gehienak. Bada, guk ere kuadrilla bat izatera heldu gura dugu", esan digu Urko Egaña dinamizatzaileak.

### Eguenero elkartzen dira

Topaguneak eta Uemak herri euskaldunetarako diseinatutako plana da Auzoko, eta bi zutabe ditu ekimenak: *auzokideak* -euskaraz ez dakitenak, etorkinak edo bertakoak- eta *auzotarrak* -euskal hiztunak-. Oñatiko taldean zazpi auzokidek dihardute eta hiru auzotarrek. "Erantzun ona jaso dugu. Dei asko jaso genituen



Oñatiko Auzoko ekimeneko kideak: 'auzotarrak' eta 'auzokideak', Urko Egañarekin (goian, ezkerretik, lehena). | M.B.

taldea osatzeko, baina askok ezin izan dute parte hartu ordutegiarengatik. Eguenetan elkartzen gara, 20:15ean. Ordu eta laurdeneko jarduna egiten dugu", esan

digu Egañak. Oraingo taldearekin urtea bukatu arte egongo dira. Horren ostean, beste talde bat sortzeko asmoa dute.

Hori horrela, interesatuek 665 73 66 05 telefonora deitu edo [urko\\_egana@hotmail.com](mailto:urko_egana@hotmail.com) helbidera mezua bidal dezakete. "Taldekide izan gura duten guztiak dei egiten diegu. *Auzotarrak* eta *auzokideak* ezinbestekoak dira ekimena aurrera eramateko. Azken horiendako baldintza bakarra euskaraz berba egiten jakitea da. Egitasmo aberasgarria da. Bi aldeek badute zer ikasi; beraz, animatu eta etorri taldea ezagutzera", diote.



Kaleko karteletako bat. | KONTEJUPETIK

### "Esperientzia aberasgarria"

Auzoko ekimeneko talde guztiak astean behin elkartzen dira, baita Oñatiko ere. Euskara oinarri hartuta, bi aldeak elkar ezagutu

eta elkarrengandik ikasteko asmoz elkartzen dira. "*Auzotar* garenok gure ama hizkuntza erakusten diegu. Gure herrian eroso sentitzen eta egunerokotasunean euskara erabiltzen laguntzen diegu. Baina, trukean, bestelako informazioa jasoko dugu. Euskal hiztunondako esperientzia aberasgarria da, beste hizkuntza, kultura eta ohitura batzuk ezagutzeko aukera dugulako", esan digute Auzoko ekimenean parte hartzen dutenek. Aberasgarritasun horren adibide bat: Oñatin, egun, 35 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Oñatiko Udalak Auzoko ekimenean parte hartzeko dei egin zuenean, hainbat kartel (ikus beheko irudia) ipini zituen herriko hainbat gunetan. Sentsibilizazio kanpainari indarra emateko, herrian erabiltzen diren hizkuntzei keinu egin gura izan zuten: errumaniera, wolofera, italiara, mandarin txinera, kitxua, galiziera, poloniera...

### Ekimen bateratua

Auzoko ekimena Oñatin ez ezik Debagoieneko beste hainbat herritan landu dute eta lantzen dihardute. Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, esaterako. "Ekimen bateratua izanik, herri askotan dihardugu aldi berean. Ni neu dinamizatzaile naizen aldetik, oso gustura dihardut. Oso aberasgarria da", dio Urko Egañak.

Urtea bukatu arte zazpiko taldearekin jarraituko dute lanean, eta 2014an beste talde bat izango dute esku artean *auzotarrek*. Zuk ere euskarara hurbildu nahi baduzu, edo euskara beste batzuei hurbildu gura badiezu, gonbidatuta zaude!

ESANAK

"Elkar ezagutzeko aitzakia da euskara"

URKO EGAÑA | DINAMIZATZAILEA

DATUA

7

'AUZOKIDE'

Horiek dira, hain zuzen, Auzoko ekimenean hasitako erdal hiztunak.



**Wok Sheng Xing Yuan**

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab.  
San Andres auzoa • ARRASATE  
943 79 90 29 • 629 41 59 58

### GABONETAKO ESKAINTZA!

Abenduaren 24an eta 31n ZABALIK!  
Menua 18 €  
Xanpain kopa barne (edariak ez daude barne)

Animatu eta etorri guregana!



Ondo pasa Gabonetan!



# Edukiontzi bidezko hondakin bilketa sistema

Data zehatzik eman ez zuten arren, datorren urteko bigarren seihilekorako martxan nahi dute

G.A./I.G. | ARRASATE

Edukiontzi bidezko sistema berria 2014ko bigarren seihilekoan abiaraztea aurreikusten dute. Helburua da gutxienez gaikako bilketaren %70 lortzea, eta bederatzihileko epea jarri dute horretarako, sistema ezartzen dutenetik hasita.

Gaikako bilketa sistema ezartzeari buruzko konpromisoa ez ezik, hondakinak kudeatzeko sistema iraunkorra lortzeko lan egiteko konpromisoa ere lortu dutela azpimarratu dute; eta gaineratu dute "denok irabazteko

alde bakoitzak amore ematen jakitea" izan dela giltzarria.

## Behin-behineko sistema

Edukiontzi berdearen ordeztu edukiontzi izango dituzte, sarbide kontrolarekin –oraindik zehazteko dago txipa edo kontrolerako beste ze sistema erabiliko duten–: bata organikoarentzat eta bestea errefusa biltzeko. Hondakin organikoak bereizita biltzea da sistema berriaren hobekuntza nagusienetakoa bat.

Funtsezko aldaketak eginez, oraingo bilketa sistema egokitu

egingo dute; behar diren edukiontziak jarriko dituzte herriko leku esanguratsuetan eta lur azpiko edukiontziak ere operatibo egongo dira. Auzo-konposta akordiotik kanpo geratu da, oraingoz.

Sistema ezarri eta hiru hilabetera, bilketaren emaitzak aztertu eta bidezkoak diren zuzenketa neurriak ezarriko dira. Hiru hilabete geroago berriro ere emaitzak aztertuko dira, eta, azkenik, beste hiru hilabeteren ostean bilketaren emaitzak ebaluatu egingo dira. Gaikako bilketa %70era iristen ez bada, hiri eremuan atez ateko sistema jarriko dute, baina adostutako helburua lortuz gero, sistema baliozkotzat hartu eta behin betiko jarriko dute.

## Informazio kanpaina

Beharrezko prestakuntza eta informazioa emango dituztela iragarri dute, eta gai honetan



Hondakinaren Mahaiko kideek egindako prentsaurrekoa. | IMANOL GALLEGU

bikain dabilzan udalerrien esperientzien berri ere emango dutela gaineratu.

Asmoa da sistema berria ezarri arte hainbat informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio kanpaina egitea, eta horietan, Hon-

dakinaren Mahaiko kide guztiek hartuko dute parte: "Garbi dugu zein garrantzitsua den jarrera bateratua sustatzea arrasatearren artean, apurka-apurka hondakinaren birziklatze kota handiagoak lortzeko".

## Abenduaren 14a, 'ganorazko' eredu bat aldarrikatzeko eguna

J.D./I.G. | ARRASATE

Datorren zapatarako, abenduaren 14rako, *Ganorazko keinuak* eguna antolatu dute Arrasateko Udalak, Gureztatuk eta Emausek. *Ganorazko keinuen* helburua da guztion artean bizitzeko beste filosofia edo eredu bat bultzatzea.

Herriko hainbat eragilek bat egin dute ekimenarekin: Ibai-Artek, Txatxilipurdik, ASPACEK, Jakionek, Harremanek, Ekin Emakumeak eta Harremanek, besteak beste.

## Ekintzaz betetako eguna

Goizean goiz hasiko dira; 10:00etan zabalduko den azokan, bai-

larako hainbat artisauz gain, Txatxilipurdik jostailuak trukatzeko gunea jarriko du. Horrez gain, bidezko merkataritza produktuak egongo dira eta eguerdian hainbat kulturatako janaria dastatzeko aukera egongo da.

Seber Altube plazan bigarren eskuko produktuekin apaindutako egongelen erakusketa egingo dute eta Kulturaten ere hainbat tailer egingo dituzte; adibidez, sormen gunea egingo dute areto nagusian.

Eta Biteri plazan, etxeko txikien gozamenarako, Ibai-Arte merkataria elkarrekin puzgarriak jarriko ditu.

## Iaranen bezeroarekiko fideltasunari eta konfiantzari ematen diote garrantzia

Ile-apaintzaile izateaz gainera, alorreko profesionalen hezitzailea ere bada Ines Andres, Iaran ile-apaindegiko arduraduna. Horrek abantaila ematen dio azken joeren, produktuen... berri izateko.

Londresko azken kongresutik (urteroizaten dira) etorri berri, Ines Andresek gogora ekarri du han bezala Iaranen ere gero eta garrantzi handiagoa ematen dietela gizonen ile-apainketa kontuei. Emakumeendako moduan, haiendako ere produktu berritzaileak, gero eta botanikoagoak, ilearen osasuna zaintzen dituztenak, eta luzaroan irauten dutenak eskaintzen dituztela. Oro har, horixe delako Iaranen oinarria: "Bezera fidelizatu, haren ileak behar duen moduan zainduta. Horrek gurekiko bisitak gutxitzea ekarriko dio, baina, era berean, gurekiko konfiantza areagotuko dio". Oraingo denboraldiari dagokionez, "80ko hamarkadan inspiratuta" dagoela kontatu du,



Iaran ile-apaindegiko lantaldea.

"Azken joerak eta produktuak dira gure Iaranen oinarri eta abiapuntu. Londresko kongresura joaten gara urtero eta asko ikasten dugu bertan, bereziki, joera berriei dagokionez"

"joera moderno bilakatzeko beharrezko ukituekin eta punk estiloaren eraginarekin". Udaberri-udako joera horixe izango dela jakinda, Iaranen ere horixe aplikatuko dute. "Korte eroso eta praktikoak eta era berean edertu egiten dituztenak dotoz; kizkurrek indar han-

dia hartuko dute, afro-Richi estilora. Eta kolore asko ikusiko ditugu: arrosak, pastel koloreak, urdinak... Bestalde, azazkalak ondo zainduta ikusiko ditugu, tatxuelak, stras eta bestelako aplikazio eta guzti", gaineratu du. Bukateko, Andresek azpimarratu du Iaranen

ilearekin lotutako arazoendako irtenbideak ematen dituztela: koipea, ile-erorketa, zahia (kaspia), 18 urteko eskarmentua duten B-Princeparis laborategi ospetsuekin lanean. Hilero egiten dituzte ate irekiak, "konpromisobarik" arazoak diagnostikatzen.



09:30 - 19:30  
Larunbatak: 08:00 - 14:30

Zerrajera 1 • ARRASATE • TEL.: 943 79 81 79



MAIDER ONDARTZA

## Euskarak gu gaitu hiztun

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen martitzenean, abenduaren 3; bizitzeko, aldarrikatzeko, plazaratzeko eta ospatzeko eguna euskaltzaleendako. Herriko ikastetxe, kultura elkarte eta eragileek egun berezi hori ospatzeko hainbat ekimen egin zituzten. Goiko irudian Arrasateko Udala Euskaltegiak antolatutako txokolate-jana duzue.



## ZALDIBAR

## EMAITZAK

Sonografos - Haizea 's Weah	2-2
Abokajarro - Jibaros F.C	4-7
Fidel & Discipulos - Cantauri	2-2
Sport in tus bragas - Iluntz	3-4
Betrayer - Ostantz	5-4
Lasagabaster - Dribling	1-4
Aldatz - Birigarruak	8-1
Cantauri - Sport in tus bragas	3-6

## SAILKAPENA

TALDEA	J	P
1 Aldatz	3	9
2 Dribling	3	9
3 Betrayer	3	9
4 Haizea's Weah	3	7
5 Iluntz	3	6
6 Lasagabaster	3	6
7 Fidel & Discipulos	3	4
8 Sonografos	3	4
9 Sport in tus bragas	3	3
10 Jibaros F.C.	3	3
11 Cantauri	3	1
12 Ostantz	3	0
13 Abokajarro	3	0
14 Birigarruak	3	0

## Oharra

Asteburu honetan ez da Zaldibarren jardunaldirik egongo.

## Who the Bitch talde japoniarra gaur Koolturen barruan

Japoniako Who the Bitch hirukotea igoko da gaur, eguena, gaueko hamarretan, Arrasateko Gaztetxe oholtzara. 2012ko maiatzean ere haien punk-rock doinuak entzungai egon ziren Gaztetxean; hain zuzen, orduan ere, Kooltureko lagunek gonbidatuta etorri ziren.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

## Kantatuz gozokiak jasotzeko eguna neska-mutilentzat

San Nikolas eguna ospatuko da bihar, azaroak 6, eta neska-mutilak kalera irtengo dira beste behin

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Abenduaren 6an San Nikolas eguna ospatzen da; tradizio handiko data, hain zuzen. Izan ere, urtero-urtero herriko neska-mutilak gozetik kalera irteten dira, dela etxeetatik kantuan, dendetatik zein udaletxetik botatzen dituzten gozokiak eskuratzeko helburuarekin.

## Umorezko lehia

Lehen, gaztetxoak ezagunen etxeetara bertaratzen ziren, txirrina jo eta kantatu ondoren, leihoetatik botatzen zizkieten litxarrerien zain geratzen ziren. Erronda eginda eta poltsa beteta, eguerdi partean udaletxera bertaratu eta balkoitik udal ordezkarien txanda izaten da. Eta bihar ere errepikatuko da irudi hori.

Baina, gainera, iaz auzoetara ere zabaldu zituen Udalak boloak, eta aurten bigarrenez erdigunetik kanpo ere ospatuko dute San Nikolas. Eta merkatari batzuek ere egingo dute bat festarekin.

Ohiturak aldatzen joan dira denborarekin, baina aldatu ez dena nesken eta mutilen arteko umorezko lehia da. *Neskai dana, mutilai bapez... Mutilai dana, nescai bapez*, dio kantuak, eta horixe entzungo da bihar ere Arrasateko kaleetan.

## SAN NIKOLAS BOLOAK

**12:00** Auzoetan egingo dituzte boloak: Musakolan eta Uribarrin ere banatuko dituzte gozokiak. Uribarrin, Usaetxe plazatik 11:00etan kalejira egingo da.

**12:30** Herriko Plazan egingo dute San Nikolas boloak, udaletxeko balkoitik.

## OHARRA

Euria bada, Uarkapen izango da.

## Landaluze harategikoak pozik, saria jasota

Gipuzkoako Merkataritzaren Enpresa Sarien 21. edizioan 10 Bitxiak kategoria sortu dute eta horren barruan saritu zuten aurreko astean Arrasateko Landaluzeko harategia. Pozik azaldu dira bertan lan egiten duten gizon eta emakumeak eta argazkian Ander Landaluzeko agertzen da, Iturriotz kaleko dendan, sariarekin.



IMANOL GALLEGO

## Georgia Mass Choir ikusteko sarrerak salgai

Z.V.D.M. | ARRASATE

Abenduko ekimen arrakastatsua izaten da azken urteetako gospel kontzertua. Aurten ere, abenduaren 23an izango da musika saioa; Georgia Mass Choir taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da. Emanaldia Amaia antzokian izango da, 20:00etan hasita. Sarrerak salgai daude; 20 euro balio du bakoitzak eta Arrasateko Udalaren webgunean eskura daitezke -gastuengatik 0,90 euro gehiago kobratuko da-: <http://www.arrasate-mondragon.org>.



Arrano elkartearen egindako agerraldia. | IMANOL GALLEGO

## 'Mozorro desobedientea' jantzteko dei egin dute Durangora begira

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Debagoienean hainbat ekimen antolatu eta gero, domekarako beste desobedientzia ekimen bat deitu du Libre herri mugimenduak. Desobedientzia zibilaren bidea hartu zuten lau gazteei babesa emateko mozorro eta kamiseta laranja jantzteko dituzte Durangoko Azokan.

Urriaren Auzitegi Nazionalak beste prozesu bat ireki zuenetik Libre herri mugimenduak bertso afariak, manifestazioak... antolatu ditu. Duela bi hilabete ezker ezkutuan diren lau gazte auzipetuak domekan Durangon azalduko dira, eta herritarrei mozorrotuta joateko dei egin diete [Askegunea.com](http://www.askegunea.com) web-

gunean eskegi duten bideo baten bidez. Bertan hau esaten dute: "Mozorrotzen garenak gu bakarrik bagara gureak egin du; asko bagara, ordea, beraienak egin du". Libre herri mugimenduak bere egin dituzten hitz horiek eta jendeari *mozorro desobedientea* jantzteko gonbita egin dio.

Kamiseta laranja Durangon ez ezik Arrasateko Irati tabernan ere eros daitezke eta maskarak egiteko [Askegunea.com](http://www.askegunea.com)-en txantilo bat ere badago. Azokara mozorrotuta joateaz gain, domekan 13:00etan Landako azokagunetik irtengo den kalejira desobedientean parte hartzeko proposamena egin diete debagoiendar guztiei.

arbolapeta

arrasate

beinke

PUB HAIZEA

arrasate

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



# Idea lehiaketan botoa eman dezakete herritarrek

Hilaren 10ean irekiko da epea eta boto emaileen artean sariak zozkatuko dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak antolatutako Idea Zaparrada lehiaketa aurrera doa. Lanak aurkezteko epea bukatu da eta orain herritarrek ideia eta proiektu onena bozkatzeko aukera izango dute.

Urriaren 21era arteko epea izan zuten herritarrek euren proiektu eta ideiak aurkeztuta lehiaketan parte hartzeko. Guztira, hamabost proiektu eta sei ideia izan dira lehiaketan parte hartu dutenak eta orain ideia eta proiektuak baloratzeko txanda heldu da. Aurkeztutako ideia eta proiektuek bi balorazio mota izango dute: Alde batetik, Udal ordezkariekin osatutako epaimahai batek egindakoa eta balorazio orokorraren %50 balioko du. Balorazio hori dagoeneko eginda dago, baina isilpean man-

tenduko da herritarren bozketa bukatu arte. Bestetik, herritarrek egindakoa: balorazio orokorraren %50 izango da.

## Orain herritarren txanda

Balorazioak erabat anonimoak dira. Epaimahaiak dagoeneko balorazioa egina dauka eta orain herritarren txanda da. Hain zuzen, herritarrek proiektu eta ideiak abenduaren 10etik, datorren martitzenetik 17ra bitartean baloratu ahal izango dituzte. Horretarako bi modu egongo dira eta herritar bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du: alde batetik, [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunearen bitartez bozkatu ahal izango du ideia eta proiektuak bertan ikusita, eta udal ordezkarien esanetan horixe da modurik erosoena. Bestetik, osoko bilkuren

aretoan ere ikusi ahal izango dira goizez eta arratsaldez eta udaletxean bertan ere bozkatu ahal izango da: goizez Idazkaritzan; arratsaldez, Udaltzaingoan.

## Saria bozkatzen dutenendako

Bozka ematen duten herritarren artean sariak zozkatuko dira; hiru sari, hain zuzen ere: herriko denden artean gastatu ahal izateko 150 euroko bonua; herriko jatetxe batean gastatu ahal izateko 100 euroko bonua; eta Agorrosin Ekintza Gunerako urte osoko bonua.

Idea Zaparrada lehiaketako irabazleak sari banaketa ekitaldian emango dira aditzera. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 23an izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

## TXALOAK ETA TXISTUAK

### Goimendiko ermita ondoan depositua



Irakurle batek kexa hau helarazi digu: "Goimendi auzoko lur jabe batek San Migel ermitaren ondoan ur depositua jarri du. Bere lurrak dira, baina nola da posible halako ingurunea ez errespetatzea? Angiozar edo Bergarako Udalak ez du ezer esatekorik?".



K.G.

### Arteterapia ikastaroko bigarren saioa izango da gaur Miguel Altunan

Gaur izango du jarraipena joan den astean hasitako arteterapia ikastaroak. 17:30etik 20:30era izango da ikastaroaren bigarren saioa Miguel Altuna institutuan. Parte-hartzaileei artearen bitartez adierazten irakatsiko diete, kreatibitatea eta tentsio fisikoa nahiz mentala landuta.

### Equo Bergararen hitzaldia astelehenean herriko kultur etxean

Equo Bergara alderdi ekologistak hitzaldia antolatu du astelehenerako kultur etxean. 19:30ean hasiko da eta lau gai landuko dituzte: basamortuak gizakiarendako dakarren arazoa, Fiare moduko banku etikoen jarduna, kooperatiba energetikoa eta *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa.

## Balkoietan zintzilikatutako zabor poltsak udaletxe aurrean utzi dituzte protesta gisa

Atez ateko sistema "garestia, bidegabekoa eta ez eraginkorra" dela salatu zuten



Plataformaren deiarekin bat egindako herritarrek, plazan utzitako zabor poltsak aurrean dituztela. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Z.V.D.M./I.E. | BERGARA

Protesta ekintza egin zuten astelehenean San Martin plazan, Bergara Garbia plataformak deituta. Atez ateko sistemaren kontra orain arte etxeko balkoietan zituzten zabor poltsak udaletxe aurrean utzi zituzten. Ondoren, ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten plazan.

Horrekin batera prentsa-oharra kaleratu du plataformak, eta haxe adierazi du: "Zoritxarrez, azkenean atez atekoa inposatuko digu gure Udal Gobernuak. Ez dituzte kontuan hartu nahi izan egindako protestak, manifestazioak, balkoietan jarritako poltsak ezta egindako kontsulta ere".

Atez atekoa sistema "garestia" dela eta "Oñatiko Udalak 250.000 euroko zorra duela" gaineratu du Bergara Garbiak.

"Inprobisazioz" jokatzea eta "hondakinekin zer egin zehazten duen proiektu seriorik ez izatea" leporatu dio Udal Gobernuari. "Gobernatzeko moduaren ondorioz Udalak zorpetzen" ari direla eta "zor horiek kitzatzeko urte asko pasa behar direla" azaldu dute.

### Hondakinak betiko lekuan

Aurrerantzean Bergara Garbiako etxeko hondakinekin zer egingo duten ere argitu dute oharraren: "Hondakinak poltsetan jarriko ditugu, organikoa eta errefusa banatuz, eta betiko lekuean utziko ditugu. Edukiontzirik ez badugu, lurrean utziko ditugu zintzilikarioen aldamenean".

Amaitzeko, eskerrak eman dizkiete herritarrei egindako ekimenetan parte hartu eta laguntza emateagatik.

# Abenduaren 6an ZABALIK gaude!



Loradenda Lorak Landareak Opariak  
Matxiategi Kalea, 1 20570 Bergara, Gipuzkoa

## Zatoz Bergarara!

JUNBIJU

Gazteentzako  
Arropa eta osagarriak

Barrenkale 14 • BERGARA • TEL.: 943 76 97 56



- Neska & Mutilak  
- Bakeroak  
- Tailak 36.....54

San Pedro kalea 14, behea  
Tel. 943 76 07 55



Banatzaile  
ofiziala



Etxeko kortinak • Ohe estalkiak • Alfonbrak neurria

Simon Arrieta plaza 1  
Tel.: 943 53 22 14



Barrenkalea 35 • BERGARA • 943 76 24 12



Marian Ortiz Iriondo  
Farmazian Lizentziaduna  
1.578 elkargokide zerbakia  
Ibargarai 48 • Bergara  
Tel.: 943 76 44 41  
eki-lur@hotmail.com  
[www.eki-lur.com](http://www.eki-lur.com)  
astelehenean ostiraleria 9:00-20:00  
Larunbata 9:00-13:00





Manuel Gabilondo, Aroztegi aretoan. | ANE ETXEBERRIA

Manuel Gabilondo | Taila Elkarteko presidentea

## "Kutxak, argizaiolak, figurak... 60 lan baino gehiago erakusgai ditugu"

Abenduaren 6tik 22ra egongo da zabalik erakusketa, martitzenetik domekara bitartean

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Taila Eskolako ikasleek euren lanak aurkeztuko dituzte aurten ere Aroztegi erakusketa aretoan. Abenduaren 6an irekiko dute erakusketa. Manuel Gabilondo Taila Elkarteko presidentea da eta erakusketaren nondik norakoak kontatu dizkigu.

**Zein da erakusketaren helburua?** Urtean zehar egiten ditugun lanak aurkeztea da gure helburua. Urte osoan, egunero elkartzen gara

eta gure lantxoak egiten ditugu. Gainera, ikastaroa ere antolatzen dugu eta ikasleek euren lanak erakusten dituzte.

**Zenbat lan izango dira ikusgai?** 60-70 lan izango dira ikusgai. Denetarik egongo da, gainera: kutxak, erlojuak, figurak, argizaiolak, koadroak...

**Berrikuntzarik aurten?** Bai; aurten, erakusketan, askotariko egurrak izango ditugu ikusgai. Hainbat egur taula eka-

rri ditugu, ikusleek bereiz dezaten egur mota bakoitzak ze gora-behera dituen. Erakusketaren barruan egur moten erakusketa txikia egongo dela esan daiteke, beraz.

**Eta zuek zein egur erabiltzen duzue lan egiteko?**

Ba, denetarik: haritza, pagoa, gaztaina...

**Erakusketak bi aste iraungo du.**

Bai; beste urte batzuetan astebe- tez izan ditugu gure lanak ikus- gai, baina aurten Udalaren lagun- tzaz bi astean izango dugu, aben- duaren 6tik (egubakoitza) 22ra arte (domeka). Iaz, jende asko etorri zen erakusketara; 1.400 pertsona, gutxi gorabehera. Ea aurten ere jendea animatzen den eta Aroztegi etortzen den.

**Elkarteari dagokionez, noiz sortu zenuten?**

Ba, estatutuak duela 10 bat urte egin genituen, baina aurretik ere elkartzen ginen. 35 bat kide gaud- e, gehienok erretiratuak gara, eta, tabernan egon beharrean, egunero hemen elkartzen gara eta lantxo batzuk egiten ditugu. Ikastaroa ere izaten dugu; adibi- dez, momentu honetan taila ikas- taroa martxan jarri dugu, maia- tzera arte iraungo du, eta, nahiz eta martxan egon, nahi duen orok parte har dezake. Eguazteno izaten da, 18:00etatik 20:00etara.

**Herrian zaletasunik badago?**

Nik uste dut baietz. Gainera, zenbat eta gehiago landu, orduan eta lan hobek ateratzen dira eta gauza politak egiten ditugu, gero familiakoen artean banatzeko.

## Gabonetako saskibaloiturneoan izena emateko epea ireki dute

A.E | BERGARA

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere Gabonetako saski- baloi turneoa antolatu du Ber- garako Kirol Elkartek.

Gabonetako hiruko txapel- keta Udal Pilotalekuan izango da abenduaren 26an eta 27an. Izen-emateko epea irekita dago jada eta hil honen 18ra arte egongo da zabalik. Ordutegiari dagokionez, benjamin eta haur mailetako jokalariek goizean eta arratsaldean jokatu dute, 10:00etan eta 16:00etan. Kimu mailakoei dagokienez, aben- duaren 27an jokatu dute, 10:00etan.

Haur mailako Gabonetako turneolari dagokionez, Labega-

raietako Kiroldeagian jokatu- ko da abenduaren 28an eta 29an.

**Prezioak**

Izena emateko orduan inpr- imaki bat bete beharko dute interesatuek. Bertan, jokalarien datuak batuko dituzte; besteak beste, izen-abizenak, telefono zenbakia... Gainera, adin txi- kiko parte hartzaileen kasuan, gurasoek sinatu beharko dute inprimaki hori, euren baimena emateko. Talde bakoitza lau jokalariz osatuta egongo da.

Prezioei dagokienez, 10 euroko transferentzia egin beharko dute interesatuek inprimakian aipatzen den Kutxabankeko kontu zenbakira.

### Soraluze Eskubaloi taldeak Erandio bisitatuko du

Asteburu honetan, Bergarako eskubaloi taldeak Erandio talde bizkaitarra izango du aurkari. Bergararrek kanpoan jokatu dute eta partidu interesgarria izango da, bergararrak bigarren postuan baitaude sailkapenean eta erandiotarrak, aldiz, laugarren, bi puntura.

### Saskibaloiturneoa asteburu honetan atsedena izango du

Soraluze saskibaloiturneoa atsedena izango du asteburu honetan. Tecnun taldearen aurka galdu ondoren, bergararrak hamargarren postuan daude sailkapenean. Datorren asteburuan, berriz, Internac- ional taldearen aurka lehia- tuko dira; erdialdean dauden taldeen arteko lehia, beraz.

## La Papa Antzerki taldeak 'Amama Anaren bidai' antzezlan aurkeztuko du domeka honetan

A.E | BERGARA

Domeka honetan, Bergarako nes- ka-mutikoen antzerki batez dis- frutatzeke aukera izango dute; izan ere, *Amama Anaren bidai* antzezlan izango da ikusgai, Zabalotegi aretoan, 18:00etatik aurrera. 8 urtetik gorakoei zuden- dutako antzerkia da eta 4 euro balio du sarrerak.

**La Papa Antzerki taldea**

La Papa Antzerki taldeak gure gizartean eragin eta herritarren- tzat garrantzitsuak diren gaiak

jorratzen ditu antzezpenen bidez. Urtez urte, sentsibilizazio proiektuak aurrera eramaten dabiltza eta euren apustua guraso elkar- te, emakume gela, nagusi eta beste hainbat erakunderekin harreman zuzena izan eta haus- narketara bultzatzea da. Hortaz, antzezpenen bitartez, eta adin bakoitzera egokituz, hausnarke- ta bultzatzea dute helburu. Gai- nera, esperientzia handiko taldea da eta 2008a ezker hainbat antze- zlan aurkezten dihardute herriz herri.

## Patri Bideluzeren lagunen eskertza

Patri Bideluzeren lagunek zapatuko omenaldira joan ziren senide eta lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, eta, aldi berean, auzokideei sorrarazitako eragozpen guztiengatik barkamena eskatu. Halaber, Goienatik barkamena eskatu nahi dugu, egubakoitzeko paperean abizena gaizki jarri guelako.



A.E

### BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

### Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

### TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

### TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 39 53

### UREDERRA ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918



# 600 euroko bi sari, bi orduan gastatzeko

Txandak emango ditu sariak, abenduaren 23an eta urtarrilaren 3an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Txanda elkarteak 600 euroko bi sari banatu ditu Gabonetako eskaintzaren barruan. Abenduaren 23an eta urtarrilaren 3an izango dira zozketak, eta sari-dunek bi ordu baino ez dituzte izango diru hori Txandako dendetan gastatzeko.

**Txandako dendetan**

Astehenean jarri zuen martxan Txandak Gabonetako zozketa berezia eta urtarrilaren 4ra arte iraungo du. "Txandako dendetan erosketak egiten dituzten herritarrei txartel batzuk ematen dizkiegu. Txartel horietan euren datuak jarri behar dituzte, izen-abizenak eta telefono zenbakia, eta behin datuak idatzita, dendetan jarri ditugun kutxetan sartu behar dituzte, erosketak

egin dituen komertzioaren zigituarekin", azaldu du Txandako kide Argilorain Perosterenak.

Lehenengo zozketa abenduaren 23an egingo dute eta irabazleak bi ordu izango ditu hurren-

**Denda batean edo askotan gasta dezakete dirua bi sarituek**

**Gabonetako erakusleho lehiaketa domekan hasiko da**

go goizean diru hori Txandako dendetan gastatzeko. "Berak gura duen bezala gasta dezake, denda bakarrean edo denda askotan", dio Perosterenak. Bigarren zozketa, berriz, urtarrilaren 3an egingo dute eta irabazleak urtarrilaren 4an gastatuko du dirua; bi orduan horrek ere. "Bigarren zozketa horretan ere denak sartuko dira; hau da, baita euren txartelak kutxan abenduaren 23a aurretik sartu dituztenak ere", argitu du Txandako kideak.

**Erakuslehoak**

Bestalde, Gabonetako erakusleho lehiaketan parte hartuko duten dendek domekarako izan behar dituzte apainduta erakuslehoak. Sari banaketa abenduaren 21ean egingo dute.

## 10.400 euro irabazi asmorik gabeko eragileentzat

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak 10.400 euroko diru poltsa du Oñatiko irabazi asmorik gabeko eragileek garatuko dituzten jarduera eta egitarauari laguntzeko.

Proposatzen den diru laguntzaren kopuruak ez du egitarau edo jarduerak duen aurrekontuaren erdia gaituko eta 1.400 euroko muga izango du, salbuespenak izan ezik. Bestetik, Oñatiko Udaleko beste diru laguntza bat jasotzen duten proiektuek ezingo dute poltsa honetako laguntzarik jaso.

Hori kontuan izanda, bete beharreko beste baldintzak hauek dira: idatzizko eta ikus-entzunezko dokumentu edo euskariak izango direla argitalpen motak, hamar ale Udalaren esku geldituko direla eta abenduaren 10a dela eskaragiteko azken eguna.



Martitzen eguerdian gaztetxoek egindako ekitaldi nagusia. | TXOMIN MADINA

## Euskararen Eguneko ospakizunek jarraipena izango dute asteburu honetan

O.E. | OÑATI

Martitzenean izan zen Euskararen Eguna eta orduan egin ziren egun horren harira antolatutako ekitaldi gehienak; esaterako, herriko ikasleen jolasak, tertuliak, dikoma karta jolasa, euskal abestien kantaketa eta txokolate-jana. Hala ere, asteburuan ere izango dira ekitaldiak. Gaur, eguna, esaterako, Berba eta Afarria eki-

mena egingo dute Makalena elkartearen Udalak, herriko ikasleek eta guraso elkarteek antolatuta. Iñaki Artola izango da gonbidatua. Ernaik antolatuta, berriz, trikiti soinuak eta koplak entzungo dira herriko kaleetan iluntzean; mural margotzea ere egingo dute. Bihar, berriz, afari izango da gaztetxean Laixaneko kide ohiekin.

## Unibertsitatera eta parrokiara bisita bereziak aste bukaeran

O.E. | OÑATI

Opor egunetan eta zubietan egin ohi duen moduan, asteburu honetarako ere bisita gidatu bereziak antolatu ditu Oñatiko Turismo Bulegoak; Santi Spiritus Unibertsitatea eta San Migel Parrokia ikusteko bisita gidatu bereziak izango dira.

**Hiru bisita**

Hiru bisita berezi antolatu dituzte guztira, bihar, etzi eta etzidamu egingo dituztenak. "Egubakoitzeko eta zapatuko bisitak 12:00etan egingo ditugu eta domekakoa, berriz, 11:00etan. Bi bisitak berdinak izango dira; hau da, unibertsitatea eta parrokiara erakutsiko dizkiegu bisita-

riei", azaldu du Turismo Bulegoko Eudurne Urteagak.

Aurreko urteetako esperientzia zein den ikusita, asteburu honetako bisitari gehienak ingurukoak izango direla uste dute Turismo Bulegoko langileek. "Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako herritarrak etorri ohi izan dira abenduko zubian", dio Urteagak. Dena den, bihar, egubakoitza, Inersoko talde baten bisita lotuta dute dagoeneko, eta domekako bisitara taldetxo bat datorrela ere badakite. Bisitetara joatea gura izanez gero, komeni da aurrez izena ematea, eta horretarako bideak hauek dira: 943 78 34 53 edo [turismo@oinati.org](mailto:turismo@oinati.org).

## Zazpi kantuz osatutako lehen lana aurkeztuko du bihar Bagaudak

O.E. | OÑATI

Hard-rock-stoner musika estiloa lantzen duen Bagauda talde oñatiarrak zazpi kantuz osatutako diskoa egin du eta bihar, egubakoitza, iluntzean aurkeztuko du Ona tabernan egingo duen kontzertuan. 19:00etan izango da.

**Gogoz**

"Zuzenekoak egin izan ditugu aurretik, baina diskoaren aurkezpen kontzertua izango da hau, eta hori berezia da. Oholtza gainean egotea zer den badakigu, eta alde horretatik ez gaude urduri, baina berezia

izango dela badakigu, gogo handia dugu", aitortu du Julen Agirrek, taldeko gitarra jotzaile eta abeslariak.

Agirrekin batera beste hiru lagunek osatzen dute Bagauda taldea 2010eko uda ezker. "Musikan aspalditik ibili arren, talde hau lehen esperientzia da laurondako. Errekaldeko lokalatan entseatzen dugu", dio taldeko kide Julen Agirrek.

Biharko aurkezpenaren ostean salgai jarriko du lehen diskoa Bagauda taldeak. Durangoko Azokan ere egingo da salgai diskoa, MusikaZuzenean-en erakusmahaietan.

## Aloña abesbatzak Gipuzkoako topaketan parte hartuko du

Pake Leku elkarteak Aloña abesbatzak Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteak Abesbatzen Topaketan parte hartuko du. Datorren asteko eguaztenean, abenduaren 11n, izango da. Donostian egingo dute topaketa hori, eta Gipuzkoako beste 17 talderen artean lehiatuko da Oñatikoa.

## Santa Lutzia jaiak hasiko dituzte asteburuan Berezaon

Berezaon auzoan Santa Lutzia jaiak ospatuko dituzte. Bi asteburuan egingo dituzte ospakizunak. Bihar, egubakoitza, esaterako, mus txapelketa egingo dute eta zapatuan, berriz, auzo afaria eta erromeria. Datorren asteburuan umeendako jolasak eta meza izango dituzte.

UGARTE  
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Leiho isolatzaileak  
PVC, aluminioa, beira, egurra

Aitor Zabaleta Agirre  
Amillaga 5 behea  
BERGARA

E-posta.: [txipi@txipi.com](mailto:txipi@txipi.com)  
[www.txipi.com](http://www.txipi.com)

606 53 18 10 - [www.txipi.com](http://www.txipi.com)

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55



## Ibilgailuak oinezkoen bideetatik garajeetan sartu eta bide publikoan aparkatzeko 2013ko errolda

Aretxabaletako Udalak azaroaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zuen ibilgailuek oinezkoen bideetatik garajeetan sartu eta bide publikoan haintzat aparkalekua gordetzeagatik 2013ko errolda. Hala, 60 egunekoa izango da borondatez ordaintzeko epea. Gogora ekarri dute helbideratutako ordainagiriak izan ezik, besteak udaletzeko bulegoetan ordaindu behar direla.

## Abenduaren 15ean eta 29an egingo dituzten Dantza Familiar saioetan izena emateko epea ireki dute

Abenduaren 15ean eta 29an egingo dituzte Jaiki elkarteak antolatuta hurrengo Dantza Familiar ekimeneko saioak; 16:30etik 17:30era, Kuku Mikuren lokalean elkartuko dira. Interesatuak izena eman dezakete [jaikielkartea@yahoo.es](mailto:jaikielkartea@yahoo.es) helbidera idatzita edo 943 53 43 96 zenbakira deituta. Saioak 2 eta 6 urte bitarteko haurrak dituztenei daude zuzenduta, eta 3 euro ordaindu behar dira pertsonako eta saioko.

## Aretxabaletan bost tona jaki batu zituzten aurreko astean Gipuzkoako Elikagai Bankuarentzat

Gipuzkoako Elikagaien Bankuarentzako elikagai bilketa egin zuten aurreko astean Aretxabaletan eta bost tona jaki inguru batzea lortu zuten eta bi furgoneta eta lau automobil behar izan zituzten guztia Bergarara eramateko. Aretxabaletako ordezkariak eskerrak eman gura izan dizkiete "boluntarioei, gazteei, helduei eta erretiratuei. Pozik azaldu ziren deialdia egin zutenak, uste baino erantzun hobea lortu baitute Gipuzkoa osoan.



Zarafa filmaren une bat. | PRIMA LINEA

## Abenduan zine eskaintza zabala izango da Zاراian

Asteburuan helduei eta haurrei zuzenduta 'Gravity' eta 'Zarafa' filmak eskainiko dituzte

Z.V.D.M. | ARETXABALETA  
Abenduko Zaraiaiko zine eskaintza aberatsa izango da eta gazte zein helduek izango dute zere ikusi. Asteburu honetan, esa-

terako, Sandra Bullock eta George Clooney aktoreak protagonista diren *Gravity* filma emango dute. Bihar eta zapatuan 22:00etan hasiko da saioa, domekan 19:00etan eta astelehenean 16:00etan.

Haurrentzako zinema ere eskainiko dute: *Zarafa*. Animaziozko film honek haur baten eta jirafa baten arteko harremana kontatzen du. Zapatuan eta domekan eskainiko dute, 17:00etan hasita.

### Askotariko filmak

Abenduan zehar ikusi ahal izango diren beste filmetako batzuk hauek dira: *Séptimo*, *Malavita*, *Enderren jokoa*, *Justin y la Espada de Valor*, *Turbo...* Eta zineklubaren barruan *Mount St. Elias* eta *El último concierto* eskainiko dute.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# 'Jar gaitzen' ekimenaren lehen fasea, "emankorra"

Ateratako ondorioak eta lan ildoak ipiniko dituzte ikusgai urtarrilean Arkupen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

*Jar gaitzen* ekimenaren lehenengo faseari amaiera eman diote; izan ere, irailaren 19an herritarren aurrean egitasmoa aurkeztuta zenbait bilera egin, eta azaroaren 28an bateratze saioa egin zuten.

### Herritarren inplikazio handia

"Nahiko emankorra izan da lehenengo fasea. Arlo bakoitzean, gutxienez, bi bilera egin dira; horrez gain, 2. eta 3. sektoreak apur bat lantzeko inkestak eta gazteekin eta nerabeekin bilerak ere egin dira". Halaxe azaldu du Bagarako Arkaitz Biainek. Herritarren inplikazio handia nabarmendu gura izan du. "Jendea gaiarekin busti egin dela ikusi dugu, bileretara etorri da, euren iritzia eman dute, gaiaren jarraipena egin...".

Aretxabaletan eragile asko daudela eta konpromiso handiko herria dela ikusi dutela izan da Bagaratik atera duten ondorioetako bat. "Bizitza handiko herria da, asko inplikazena da eta eragile asko ditu".

Eta gogora ekarri dute *Jar gaitzen* ez dela izan parte orain arte hartze prozesu bidez garatutako egitasmo bakarra: "Garraioari buruzkoa egon da, etorkinekin ere garatu da prozesu bat, aurrekontuarekin eta hondakinaren gaiarekin lotutakoa ere egin dute...".

### Hutsune eta indargune ugari

Oro har, Bagarakoen esanetan, *Jar gaitzen* ekimeneko bilerek erakutsi dute herritarrek Aretxabaletari buruz asko daukela esateko, eta, horren harira, ekarpen ugari jaso dira; besteak beste, hutsune, indargune eta



Jar gaitzen ekimeneko lehenengo bilera. | Z.V.D.M.

## Lehiaketaren epea luzatuta

*Aretxabaleta argazkitan* lehiaketaren epea luzatu egin dute hilaren 31ra arte. Hala, urtarrilean Bagarakoek Arkupen ipiniko duten erakustetan ikusgai egongo dira lehiaketara aurkeztutako lanak eta herritarrek euren bozka emateko aukera izango dute. Lehiaketako oinarriek orain artekoak izaten jarraitzen dute: parte hartzaile bakoitzak herriari buruzko hiru argazkiko bilduma bat aurkeztu beharko du, edozein gai, arlo edo errealitate islatuz.

aukera ezberdinak nabarmendu dira. Hain zuzen ere, mugikortasuna eta irisgarritasuna, etxebizitza, euskararen erabilera, jaiak, kiroldegia, plazak, nekazaritza, hezkuntza eta komunitatea izan dituzte aztergai.

Herriaren diagnosis egiteko orduan alde onak zeintzuk diren ere ikusi gura zuten. "Herri bizia dela ikusi da eta elementu indartsu asko ditu: besteak beste, hezkuntza, euskararen, kultura eta kirolean eragile eta ekimen interesgarri ugari ditu. Eta horiek identifikatuta izatea oso garrantzitsua da".

### Urtarrilean Arkupen

Horrez gainera, lehenengo fase honetan eginiko analisisa eta horietan oinarrituta proposatuko diren lan-ildoak ipiniko dira ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan urtarrilean zehar.

## Euskaraz bizi izateko aldarri ozena egin zuten

Martitzenean Euskararen Eguna izan zen eta hainbat ekitaldi egin zituzten Aretxabaletan. Esate baterako, goizean zehar jinkana egin zuten Leintz Udala Euskaltegiko lagunek (argazkian). Arratsaldean, oster, Herriko Plazan sua piztu zuten Loramendiren eskutik eta ekitalditxoak egin zuten.



KARMELE AGIRREGABIRIA





MIRIAN BITERI

## Euskararen aldeko aldarria

Eskoriatzan ere euskara izan dute mintzagai egunotan. Astelehenean, euskararekiko jarrera baikorrak sustatzen ikasi zuten museoan egindako tailerren parte hartu zutenek. Martitzenean, plaza apaindu zuten euskaltzaleek, euskararen aldeko mezuak, marrazkiak eta leloak jarrita; eta arratsaldean, Osakidetzan euskarak bizi duen egoera aztertu zuten.

## OHARRAK

### KANTU KALEJIRA

Euskararen Egunaren bueltan, pintxo-poteoa dagoela aprobeztatuz, kantu kalejira egingo dute gaur, herriko txistulariek gidatuta. 19:00etan elkartuko dira plazan.

### FRONTENIS TXAPELKETA

Aste bukaera honetan hasiko da buruz buruko V. frontenis txapelketa. Hamar lagunek

eman dute izena, eta norgehiagokak datozen bi aste bukaeretan jokatu dira Udal Pilotalekuan.

### ESKORIATZA GARBIA

Eskoriatza Garbiak batzarra deitu du astelehenerako, hilak 9, Ibarraundi museoan, 18:30ean. Bilkura horretan, orain arte egindakoak aztertuko dituzte, eta ekintza berriak adostu.

# Inkernuren urteurrenean Lukas Prestek eta Angerrek joko dute gaur

Hamar urte pasa dira 2003ko abenduaren 5ean taberna zabaldu zutenetik

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ospakizunetan murgilduta daude Inkernu eta Aitzorrotz kultura elkarteak, tabernak hamar urte betetzen dituelako. Horren bueltan, egitarau zabala gertatu dute datozen asteotarako: gaur, eguna, hasiko dira ekintzak Lukas Prest eta Anger taldeen kontzertuekin, 22:00etan, Zapatuan, ostera, Akerbeltzen bisita jasoko dute, 21:00etan.

Esan bezala, dagoeneko hamar urte pasa dira Inkernu zabaldu zutenetik, eta, denbora horretan, lau kudeatzaile izan ditu. Lagun talde batek hasi zuen kudeatzen 2003ko abenduaren 5ean, eta, handik urtebetera, Ainitze Luzerok eta Iñaki Kortazarrek hartu zuten horren ardura. Bost urte eman zituzten barra atzean. Jarraian, Juan Karlos Kortazarrek hartu zuen, hiru urtez, eta haren ostean, Biki Gurrutxagak eta Jabi Zurbanok izan zuten, egungo kudeatzaileak etorri ziren arte: Ane Zubillaga eta Alex Gorosarri.

### Errotuta

Orain arteko balorazioa "oso positiboa" izan dela nabarmendu du Inkernuko kudeatzaile ohi eta Aitzorrotz kultura elkarte kide




Inkernun egindako emanaldiak iragartzeko hainbat kartel. | IÑAKI KORTAZAR


Iñaki Kortazarrek. Honakoa nabarmendu du: "Debagoieneko eta Euskal Herriko musika eta kultura panoraman bere izena errotzea lortu du eta oso gustura gaude horrekin. Inkernu ez da taberna soil bat, Aitzorrotz kultura elkarteak antolatzen dituen kontzertu eta antzerkien lekuko da. Egia esan, hamar urteotan handik pasa diren kontzertu, antzerki eta hitzaldiak ez dira gutxi izan!".

Horrekin harira, Kortazarrek aipatu digu ez dela erraza ekimen

bakar bat aipatzea. Honakoa esan du: "Ez da erraza batekin geratzea; gogoratzen naiz orain dela 9 urte, kontzertuak egiten hasi ginenean, emanaldi akustikoak bakarrik egiten genituela, bizilagunen beldur; egun batean Kemen Lertxundi taldea sartzea bururatu zitzaidan: agertokian sei lagun, bateria... handik aurrera gogor hasi ginen: Eina, Gose, Governors, Lauraboa edo Bide Ertzean, batzuk aipatzearen. Eta kontzertu guztiak debalde". Ildo beretik jarraitzeko asmoa dute Inkernun.



**EKONOMIKOA** (sinplea eta bero-emailea) • **BEHEKO SUA** (sinplea eta bero-emailea) • **ESTUFAK** • **GALDAREN ORDEZKATZEAK**  
Dei egiguzu eta dauden aukerez informatuko zaitugu!



Zure **bainuontzia kendu**  
eta dutxa jartzen dizugu  
**EGUN BATEAN!**  
Informa zaitetz!



Marka guztiekin lan egiten dugu.



Mitarte 5, behea  
Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92  
**ARETXABAETA**





## Kontsumo taldea osatzeko lehen bilera egingo dute eguaztenean

I.E. | ANTZUOLA

Baserritarrek euren produktuak saltzeko azokak gero eta gutxiago diren garaiotan, herri askotan ari dira sortzen kontsumo taldeak. Antzuolan ere urratsak egiten hasi nahi dute eta lehen bilera egingo dute datorren eguaztenean Olanen etxean.

Hitzaldia 19:00etan hasiko da eta kontsumo taldeen koordinatzaile eta kide moduan esperientzia duen Leo Argotek emango du. "Kontsumo taldeak osatzen dira produktuak merkaturatzeko prezioak oso baxuak direlako baserritarrentzat eta jendeak baduelako produktu osasuntsuak, kalitatezkoak eta bertakoak kontsumitzeko konzientzia", dio Argotek.

Kontsumitzaileek kuota bat ordaintzen dute hilero eta horren truke astero otarre bat jasotzen dute: "Barazkiena bakarrik, edo produktu gehiagorena: ogia, arrautzak, okela...". Taldeko kideek eta baserritarrek ados ohi dituzte produktuak.

Lehen hitzaldia informatiboa izango da eta jendeak interesa erakusten badu beste bilera bat egitea aurreikusten dute, baserritarrek bilatu eta antolakuntza zehazteko. Gotzon Madina herritarra dabil kontsumo taldearen antolakuntza eta bere esanetan, "jende asko dago interesa duena eta beste asko jakinmina gutxienez, duena. Hitzaldiaren ondoren ikusiko dugu jendea benetan prest dagoen edo zalantzak sortzen diren".

### Baserritarrek

Eguazteneko bilera, ordea, ez da kontsumo taldeko kide izan nahi dutenentzako bakarrik. "Baserritarrei ere galdetu behar ko genieke ea horrelako esperientzia batean parte hartzeko prest dauden", dio Madinak. Izan ere, baserritarrek hurbileko tratua izatea bilatzen dute kontsumo taldeetan eta horrek bi aldean interesekoak izan daitezkeen eskari eta eskaintzak egitea ahalbidetzen du.

## Hainbat hitzaldi eta tailer antolatu ditu Landatxope elkarrekin datorren asterako

I.E. | ANTZUOLA

Gaur amaituko da Landatxo-peren karta txapelketa eta datorren asterako *Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan* egitaraua prestatu dute.

### Astelehenetik eguenera

Bada, hitzaldiak eta tailerrak eskainiko dituzte erretiratuen

egoitzan. Astelehenean *Kontsumo iraunkorra* hitzaldia egingo du Igor Marcosek, Ingurumen teknikariak, eta eguaztenean *Banku zerbitzuak* Sara Muñoz finantza aholkulariak.

Martitzenean *Produktuen bermea eta LTZ* eta eguenean *Banku zerbitzuak* tailerrak emango ditu Begoña Olabarrietak.

## OHARRAK

### PILOTA PARTIDUAK GAUR

Bi pilota partidu izango dira gaur, 19:30ean. 2. urteko alebiretan, Olalde 1 taldeak Tolosa 5en aurka jokatuko du eta larruzko paleta nagusiko 3. mailan, Olalde Alzatarra 2ren aurka ariko da.

### TXISTULARIEN KALEJIRA

Txistulariek kalejira egingo dute domekan herriko kaleetan

zehar. 10:00etan hasiko da kalejira.

### "NOR BERE BURUAREKIN BERRAURKITZEKO" TALDEA

"Nor bere buruarekin berraurkitzeko" emakumeendako taldea osatzekotan dira. Urtariletik maiatzera batuko dira, kopuruaren arabera Antzuolan edo Urretxun. Informazio gehiago: [Karmeleiturbe.com](http://Karmeleiturbe.com).

# Umeen elkarbizitza mantentzeko gogoz dator Kikirixo Txiki Txokoa

Martitzenean ireki zuten eta harrena ona egin zieten ume zein gurasoek

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Koltxonetak, marrazkiak egiteko mahaiak, aurpegia margotzeko txokoa, arbela... denbora-pasarako eta heziketarako elementu asko dituzte herriko txikien martitzenean ireki zuten Kikirixo Txiki Txokoan. Gurasoak umearekin egoteko, jolasteko, psikomotritzitatea lantzeko nahiz joko sinbolikoak egiteko eremua prestatzea izan dute helburu.

Oraindik guztiz egokitzeke dute Udalak Eguzki auzoan utzi dien lokala, baina irekiera egunean harrera ona izan zuen eta guraso ugari hurbildu ziren, euren seme-alabekin, neguan ohiko izango duten gunera. Entzundako iritziak ere positiboak izan ziren. "Ondo dago", esan zion ama batek beste bati.

Andoni Rodriguez da Kikirixo Txiki Txokoaren bultzatzaileetako bat eta hark egin zituen aurkezpen lanak martitzenean. Lokala adin askotariko haurrentzako guneean banatzeko asmoa dutela iragarri zuen. Izan ere, 0 eta 8 urte artekoentzako zerbitzua eskainiko du. "Dena den, ez zaio inori aterik itxiko eta 9 edo 10 urteko umeei ez zaie esango ez sartzeko".

### Gurasoak arduradun

Kikirixok ez du hezitzaile talde batekin funtzionatuko, baizik eta gurasoak eurak izango dira zerbitzuaren arduradun. Rodriguezek hauxe dio: "Arau bezala jarri dugu lokalean ezin dutela umeek



Umeak eta gurasoak martitzenean aurkezpenean. | IURE EIZAGIRRE

## Neguari begira antolatutakoa

Negua oraindik heltzeko egon eta lokala guztiz egokitu gabe izan arren, hotza gero eta handiagoa da eta horregatik erabaki dute orain irekitzea Txiki Txokoa. Neguko hilabete hotzetan umeen arteko elkarbizitza jarraipena izatea dute helburu.

"Zerbitzuak ez du amaierako datarik, baina, aurreikuspenen arabera, apirilera arte-edo izango da", dio Rodriguezek.

bakarrik sartu, ez da umeen apartakaleku bat. Ume guztiak egongo dira gurasoen edo heldu baten ardurapean.

Oraingoz, 25 familiak hartu dute Txiki Txokoaren ardura eta euren ordaindutako kuotarekin ari dira materiala erosten. Hala ere, zerbitzua herri guztiarentzako egongo da zabalik. "Zerbitzuari dagokionez ez dago alderik bazkide izan edo ez, baina bazkideek bozkatzeko eta ordutegiak eta kudeaketa erabakitzeke auzo izango dute".

Kikirixo Txiki Txokoa astelehenean egubakoitzera egongo da irekita, 16:30etik 19:30era. Eta bertan bazkiderik ez dagoen uneetan, udal liburutegian hartu ahal izango da giltza.

## Bakarrizketarekin agur Euskararen Egunari

AEDk sustatutako 'Bua txabal!' bakarrizketa eskainiko dute gaur, 22:00etan, gaztetxean

I.E. | ANTZUOLA

Euskararen Nazioarteko Egunak hitzaldi eta ekintza interesgarriak ekarri ditu. Gaur egingo dute azken ekitaldia: *Bua txabal!*

bakarrizketa gaztetxean. Ema-naldia 22:00etan hasiko da.

Jon Zubiaga aktore arrasatearra da *Bua txabal!* laneko protagonista. Hura da Garikoitz

Kortabitarte *Beti*, lokaletik ateratzen ez den gaztea. Parrandara irtengo da gau batean eta mugikorraldi galduko du; bada, gertaera hori tragedia bihurtuko da harentzat. Mugikorraldi galduta zergatik den hain garrantzitsua azalduko du *Beti*-k bakarrizketa zehar, eta kontaketa, euskarekin duen harreman gatazkatsua agerian geratuko da.


Arrasateko AEDren eskariz idatzi zuen *Bua txabal!* bakarrizketa Unai Iturriaga bertsolariak eta gazteen artean euskaren erabileraren inguruko gogoea eragitea du helburu.

### Hitzaldiak

Euskararen Egunarekin lotuta bi hitzaldi egin dituzte egunotan. Azkena atzo izan zen eta Iñaki Perurena harri-jasotzailea izan zen Olanen etxean. Euskaldunek harriarekin duten harremana eta harria kirol bihurtu izanaz aritu zen Perurena. Aurreko astean, berriz, Paula Kasares Nafarroako Unibertsitate Publiko irakaslea egon zen eta, besteak beste, umei inguruko dieten azaldu zuen.

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak  
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak  
Kalebarren 1 ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34





Euskararen Egunean eskolakoek ekitaldia egin zuten kiroldegian; irudian, ikasleek abestutako bertsoak. | SAN MARTIN ESKOLA

# Eskolatik herritarrengana, euskaraz bizi izateko nahia

'Euskaraz bizi nahi dut' banderatzok bakoietan jartzea eskatu zuen Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaion ere Euskararen Eguna ez zen oharkabean pasa, hezkuntzan bereziki. Izan ere, San Martin eskolak egitaraua berezia antolatu zuen eta aurreikusitako ekintza guztiak egin ziren: "Prinzipioz, pilotalekuan egin behar ziren ekintzak, baina hotzagatik kiroldegian egitea erabaki genuen", esan digu Santi Roman eskolako zuzendariak. Astelehenean hasi ziren ekitaldiak, Eriz magoaren ikuskizunarekin: "Oso ondo egon



Bi ikasle aurkezle lanetan, ikasle, irakasle zein gurasoen aurrean. | SAN MARTIN ESKOLA

zen, oso hurbileko egon zen umekin", uste du Romanek. Ikuski-zunaren ostean guraso elkarteak txokolate-jana prestatu zuen haur zein gurasoendako. Elkartasuna guraso elkarteak eskolako komunitateko kide aktiboa dela erakutsi du beste behin ere.

Martitzenean, Euskararen Egunean, kiroldegia hartu zuten ikasle, irakasle eta gurasoek. *Ongi etorri San Martin eskolara* abestia kantatu eta dantzatu zuten eta *Euskaraz bizi nahi dut* leloari jarraituz hainbat bertso kantatu zituzten, besteak beste.

## Aldarria etxeetako balkoietan

Aldi berean, Udalak *Euskaraz bizi nahi dut* aldarria Euskal Herriko etxeetako balkoietan jartzeko deialdiarekin bat egin zuen. Udaletxeko balkoian banderatzokoa jartzeaz gain, herritarrei dei egin zieten ikur bera euren etxetako balkoian jartzeko: "Euskaldunen euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea errespetatzearen alde egonik, deialdi horrekin bat egiten dut. Herritarroi ere deialdiarekin bat egiteko gonbidapena luzatzen dizuet", zioen alkateak ateratako bandoak.

Honakoa ere gaineratu gura izan zuen Ramon Ajuria: "Urte osoan bezala, euskaraz bizitzera eta euskaraz gozatzera animatu nahi zaituztet. Guztiok batera lortuko dugu, pertsona bakoitzetik, taldera, taldetik udalerrira eta udalerrira bakoitzetik Euskal Herri osora zabalduko den ilusioz eta bizi nahiaz, aurrera egitea".

## Logotipoa sortzeko lehiaketa deitu du Alaiak-ek

J.B. | ARAMAIO

Elkartea identifikatuko duen logotipoa aukeratzeko lehiaketa deitu du Alaiak erretiratu elkarteak. Aramaion jaio eta bizi den edonork har dezake parte; irudiak aurretik inon argitaratu gabekoa eta beste lehiaketa batzuetan aurkeztu gabekoa izan behar du.

Irudiaren balio artistikoa eta ordezkatzeko zein komunikatzeko duen gaitasuna hartuko ditu aintzat epaimahaiak. Era berean, moldatzeko erraza duen diseinua den ere baloratuko dute, hainbat euskarritan erabili ahal izateko. Hori bai, epaimahaiak lehiaketa irabazlerik gabe uztea erabaki dezake, aurkeztu diren lanek ez badute gutxienezko kalitatetik. Abenduaren 31 baino lehen bidali beharko dira lanak, honako helbide elektronikora: [alaiak202@gmail.com](mailto:alaiak202@gmail.com).

100 euro jasoko du irabazleak eta sari banaketa Alaiak elkarteak egingo duen batzarrean izango da, 2014ko urtarriaren 31a baino lehen egin beharko da eskaera. 605 72 05 31.

## Ikurrinari omenaldiak herritar ugari elkartu zituen

J.B. | ARAMAIO

"Euskal ikurra izanda, ikurrinak kohesioa eta batasuna adierazten du Euskal Herrian eta horixe da helburua Aramaion ere. Ikurrina gurea delako". Hitz horiek izan zituen, besteak beste, Ramon Ajuria alkateak domekan, ikurrinari egin zitzaion omenaldian. Euskal ikurra jasotzeko orduan Ajuria Julian Untzuetaren lekua hartu zuen -Untzuetak lehenengoz jarri zuen balkoian 1977ko urtarriaren-, azken orduan kale egin zuelako. Ajuriaren ondoan egon zen Jose Ramon Uribe alkate ohia -egun zinegotzia da-, 1994an igo zuela gogoratzeko: "Gogoan izan nahi ditugu historiar zehar herrian gertatu diren bi ekintza garrantzitsu".

Ikurrinari omenaldia egitea herri batzarretan adostu zen, Madrilgo Gobernuak Espainiako bandera jartzeko "inposaketaren" aurrean. Beste erabaki bat izan da herriko nazionalitate guztietako banderak ere jartzea udal txean.



Ikurrin-dantza egin zuten plazan, hainbat herritarren aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL



Jose Ramon Uribe alkate ohia eta Ramon Ajuria ikurrina jasotzen. | J.A.

## NIRE USTEZ

ANDERE  
ARRIOLABENGOA



## Euskarak 365 egun

Hori da Euskaltzaleen Topaguneak aurten go euskararen egunerako aukeratutako leloa. Batzuek euskararen normalkuntzan emandako urratsak garaipentzat dituzten bitartean, errealitateak beste hausnarketa bat egitera behartzen gaitu.

Iparraldean, Frantziako hizkuntz politikak euskarari ez diote inongo baliorik ematen. Nafarroan, *Vascuencearen Legea*-k guztiz mugatzen du euskararen normalizazioa eta berau bertan behera utzi ezean nekez garatu ahal izango da benetako politika linguistikorik. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, egoera ez da zoriontzeko modukoa. 31 urte pasatu dira Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zenetik eta oraindik hori da indarrean daukagun lege bakarra. Agerian dago ez dela gaur egungo erronkei erantzuna emateko tresna aproposa.

Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako datuen arabera, euskararen erabilera "trabatuta" dago, ez aurrera eta ez atzera. Nola liteke ezagutza maila %25ekoa izanda erabilera %3koa izatea?

Esanguratsua da Gasteizen, Bilbon eta Iruñean euskara eta gaztelania ez diren hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzea. Zerbait gaizki egiten ari gara. Ez ahaztu itsaso bat tantaz tanta osatzen dela eta gutako bakoitza tanta garela. Gure eskuetan dago tanta izan nahi dugun erabakitzea.

## "Ezagutza maila %25ekoa izanda, erabilera %3koa izatea?"

## Udal mendietako larreak aprobetxatzeko deialdia zabalik

2014rako udal mendietako larreak aprobetxatu nahi dituzten abeltzainek udal txean egin behar dute eskaera. Arabako Diputazioko abere-erregistroko agiria aurkeztu beharko da, horietatik larreak zeintzuk erabiliko dituzten zehaztuz. 2014ko urtarriaren 31a baino lehen egin beharko da eskaera.



## ELGETA

# Ur kontsumoa fakturatzeko sistema aldaketa, urtarrilean

Etxebizitzan erroldatuta dagoen pertsona kopurua ere kontuan hartuko da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da ur kontsumoari dagokion fakturazio sistema berria Elgetan. Aldaketa horren aldeko botoa eman zuten azaroko osoko bilkuran udalbatzako ordezkari politiko guztiek. Hala, Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak, aurreantzean, kontsumo-tarteak ez ezik etxebizitza bakoitzean erroldatuta dagoen pertsona kopurua ere kontuan hartuko du faktura egiterakoan. Esan beharra dago sistema berriak hiru kontsumo-tarte izango dituela aurrerantzean ere.

Aldaketa esanguratsuenetako bat inor erroldatuta ez dagoen etxebizitzetan gertatuko da. Kasu horietan, aplikatuko den prezioa kontsumo-tarte handienari dagokiona izango da, eta fakturaren igoera %14,6ra irits daiteke.

Gainontzekoendako bi adibide ematen ditu Kontsurtzioak. Pertsona bakarra erroldatuta dagoen etxebizitza batean ur kontsumoa 25 metro kubikokoa bada, faktura %4,2 garestituko da. Aldiz, sei pertsona badaude erroldatuta eta kontsumoa 60 metro kubikokoa bada, faktura %4 merkatuko da.



Herritar bat uraren azken faktura irakurtzen. | L.Z.

## 'Ontziratuz zaituzte!' kanpaina

*Ontziratuz zaituzte!* kanpainaren azaroko zenbaki sarituen berri ere eman du Udalak: Goikoetxe harategian, 712; Amagoia arran-

degian, 1.036; eta Ugari dendan, 123. Kanpainaren hasieratik 2.000 erosketatik gora egin dira herrian tupperrak erabilia, bultzatzaileek aditzera eman dutenez.

## Idazkariaren erretiroa prestatzen

Martxoan hartu behar du erretiroa Elgetako udalean urteetan idazkari lanak egin dituen Marian Elkoro. Azaroko osoko bilkuran udalbatzak aho batez onartu zuen idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua Leintz-Gatzagako Udalarekin bateratzeko espedienteari hasiera ematea. Proposamenak aurrera eginez gero, bi Udalek elkarbanatu egingo lukete lanpostu hori.



## Negu eta uda euskaraz egin, laguna!

Martitzenean goizetik hasi ziren Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak Elgetan. Herri Eskolan horma erraldoia egin zuten marrazkiekin. Lelo lehiaketa eta karaokea ere bai. Lelo irabazlea izan da: *Negu eta uda euskaraz egin, laguna!* Arratsaldean, berriz, euskarazko liburuen erakusketa, umeendako jokoak eta txokolate beroa izan ziren. Euskara Mundura ekimenean paperezko globoak askatu zituzten zerura.

## LEINTZ GATZAGA

# Olentzero eta batzarraren berritzea, Gurelen hizpide

Abenduaren 15erako (domeka) egin dute hitzordua; ludotekan elkartuko dira, 11:30ean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Olentzero bezperan (Gabon bezperan) baserriz baserri herriko neska-mutikoez egiten duten urteroko irteera eta Gurel elkar-tea osatzen duten lau kideetatik

bi irten eta haien ordezkariak zeintzuk izango diren erabakitzea.

Bi gai horiek lantzeko deitu du batzarra Gurel elkar-tea datorren abenduaren 15erako (domeka) ludotekan. "Olentzero-

ren irteera egiteko autobusa erabili behar izaten dugu, eta bereziki hori antolatu beharko dugu abenduaren 15eko batzarrean. Izan ere, herriko bi auzoetako baserrietara joan ahal izateko ezinbestekoa dugu autobusa erabiltzea, oso barreiatuta daude -eta baserriak", azaldu du Inaxio Gabilondok, Gurel elkarteko kideak.

Gurasoen elkarteko kideak emandako xehetasunen arabera, baserriz baserriko buelta egin ostean, herrian bertan jardungo

dute kantuan abenduaren 24an, eguerdi partean: "Kuadrillatxoak elkartzen da herrian. Jendeak dirua eta bestelako oparitzoak ematen ditu. Eta herrian ibili eta gero, elkartean bazkaria egiten dugu". Eta aurten ere horretarako asmoarekin dabilta.

## Gabonetarako bestelakorik

Horrez gainera, esandako moduan, Gurel osatzen duten lau kideetatik bik utzi egingo dute gurasoen elkar-tea aurten, eta haien ordezkariak zeintzuk izango diren ere

erabakiko dute abenduaren 15eko batzarrean.

Burokrazia kontua da egin beharreko hori; izan ere, bi urterako jarduna izaten dute Gurel osatzen duten kideek, eta irteera doazen biek bete dute epe hori.

Bukatzeke, hauxe adierazi du Inaxio Gabilondok: "Gabonetan egiteko bestelako ekitaldiren bat edo beste antolatzeko aukera ere aztertuko dugu datorren batzarrean. Zinema saioa berreskuratu, akaso".

## X. PILOTA TXAPELKETA

### GAUR, EGUENA, 20:00ETAN

Iban Retolatza-Diego Cantabrana / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga

### SAILKAPENA

	JOKATUAK	IRABAZIAK	GALDUAK	PUNTUAK	
NAGUSIEN TXAPELKETA					
1	Iñaki Ugarteburu-Jose Mari Zubiaurre	4	4	0	4
2	Angel Ibarluzea-Alberto Telleria	4	3	1	3
3	Jabier Bolinaga-Mikel Elkoro	4	2	2	2
4	Igor Irazabal-Iker Irazabal	4	1	3	1
5	Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga	4	1	3	1
6	Pello Larrea-Fernando Zenitagoia	4	1	3	1

### GAZTEEN TXAPELKETA

1	Odei Zenitagoia-Andoni Elortza	7	7	0	7
2	Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga	6	5	1	5
3	Oskar Saratsua-Iñaki Olaortua	7	5	2	5
4	Iban Retolatza-Diego Cantabrana	6	4	2	4
5	Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe	7	3	4	3
6	Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal	8	3	5	3
7	Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi	7	2	5	2
8	Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea	7	1	6	1
9	Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	7	1	6	1

## Elgetako Udal Liburutegiak marrazki lehiaketa antolatu du 5 eta 16 urte bitarteko umeendako

Gaia da *Non irakurtzen duzu?*, eta hiru adin tarte ezarri dituzte —5-8 urte, 9-12 urte, eta 13-16 urte—. Talde bakoitzeko irabazleak dagokion saria jasoko du, eta marrazki guztiak ikusgai ipiniko dituzte liburutegian edo kultura etxean, hilaren 20tik aurrera. Lanak aurkezteko epea zabalik dago hilaren 13ra arte. Informazio gehiago jasotzeko, jo Udal Liburutegira.

## Fronteniseko bikote txapelkunak: Haritz Gallastegi -Enrike Elkoro eta Rebeka Ubera-Xabier Ubera

Domekan jokatu ziren frontenis txapelketako bi finalak. Gizonen finalean Haritz Gallastegi eta Enrike Elkoro nagusitu ziren; 14 puntuan utzi zituzten Andoni Elortza eta Eneko Maguregi. Txapelketa mistoan, berriz, Rebeka eta Xabier Uberak jantzi zuten txapela. 25-16 nagusitu ziren Idoia Sernaren eta Asier Osororen aurka jokatuak finalean.

## Erretiratuek gonbidatuta Ikusi Makusik 'Vivir en Villa Titiritaina' antzeztuko du gaur Espaloian

Xalbadorpe erretiratu elkartearen 2013ko Kultura Astea abiatzear da. Gaur, 17:30ean, umorezko antzezlan izango dute antzokian. Astelehenean, berriz, bingoa egingo dute, 17:00etan, Ozkarbi elkartean. Bergarako Alai abesbatzaren emanaldia eguaztenerako, hilak 11, iragarri dute: 18:00etan izango da, antzokian. Azkenik, luntxa egingo dute Ozkarbin hilaren 13an, 18:00etan.

## Kalez kale eta tabernaz taberna kantuan aritzeko beste aukera bat Elgeta Kantuan ekimenarekin

Esperientzia, iaz, ondo joan zen, eta aurten jarraipena emango diote Elgeta Kantuan ekimenari. Abenduaren 22a aukeratu dute antolatzailerik Jose Gardokik lagunduta tabernaz taberna kantuan aritzeko. Entseguak ere deitu dituzte: interesatuek hitzordua dute hilaren 10ean eta 17an, 21:00etan, kultura etxean.





## Monika Belastegi

Kazetaria, Goiena Kooperatiba Elkarteko lan bazkidea

# Beste 25 urte, zuen ekarpenarekin

Aste berezia izan da lanean euskaraz dihardugun Goienako kazetariondako. Euskararen Eguna ospatu berri dugu, leloak dioen moduan Euskarak 365 egun dituen arren. Bestalde, *Arrasate Press* sortu zela 25 bete dira abenduaren 2an eta *Goiena.net*-ek 10 urte egin ditu egun berean.

Efemeride esanguratsuak: erakusten dutelako Debagoienez proiektu berezi eta arrakastatsuak egiteko gauza garela; duela 25 urte euskarazko kazetaritzan iraultza ekarri zuen egitasmoak bizirik dirauelako; eredu herririk herri zabaldu zelako eta eredu haren oinordeko Goiena delako.

Eta zergatik da Goiena arrakastatsua? Zuengatik: erabiltzaile, ikus-entzule, irakurle eta bezerok erakusten diguzuen jarraipen,

**Bertako komunikazio kooperatiba da Goiena; lagundu!**

babes eta laguntzarengatik; herriarengatik; gizarte zibil grinatsuagatik; erakundeengatik.

Bertako komunikazio kooperatiba da Goiena eta lan bazkideak gara proiektuaren oinarrietako bat. Lagun gaitzazu beste 25 urte betetzen. Ospa dezagun elkarrekin. Premiazko dugu zuen ekarpena horretarako.

**GOIENAK BEHAR ZAITU!**

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!





Markel Irizar, Jagoba Arrasate eta Igor Arenatza, Agorrosinen. | ENKO AZKARATE

**BERBALDIA**

# Izerditan ere, euskaraz

Euskararekiko sentimenduak eta testigantzak kontatu zituzten martitzenean Bergaran, Euskararen Egunean egindako berbaldian

ENKO AZKARATE / X.U. | ARRASATE

Jagoba Arrasate, Markel Irizar eta Igor Arenatza kirolariak Bergarako Agorrosingo areto nagusia bete zuten Kirola Euskaraz izeneko ekitaldian.

Hasteko, Estepan Plazaola Udaleko Euskara teknikariak Kirola Euskaraz ekimenean orain arte egindakoak eta asmoak azaldu zituen, eta euskara erabili eta berba egitearen garrantziaz ohartarazi zuen; bereziki, kirolean.

**Bertso eta guzti**

Plazaolaren aurkezpenaren ostean etorri zen hiru kirolari gonbidatuen tertulia. Igor Arenatza Aretxabaletako UDA klubaren zuzendaria eta Eskua proiektuaren bultzagileak moderatuta, laburra baina oso entretenigarria izan zen berbaldia. Eta amaitu ere gorenear amaitu zen, Jagoba Arrasate Realeko entrenatzailearen bertso batekin: "Halako jendetzarik ez nuen espero; euskararen inguruan hainbeste endredo; ea hobetzen dugun gaurko eta gero; euskaraz egin dezagun baina egunero". Jagoba Arrasateren bertsoekin amaitu zen ter-

**ESANAK**

**"Oñatiko gazteek Arrasatekoek baino gehiago erabiltzen dute euskara; erdara 'guai'-agoa da, ala?"**

MARKEL IRIZAR | ZIKLISTA

**"Realeko jokalaria euskaraz aritzen dira; hori abantaila da kontrarioaren aurrean"**

JAGOBA ARRASATE | REALEKO ENTRENATZAILEA

**"Tristea da ikustea 16 urteko gazte euskaldunak etengabe erdaraz berbertan"**

IGOR ARENATZA | UDA-KO KIROL ZUZENDARIA

tulia, baina, bertsoaren aurretik, hainbat kontu plazaratu zituzten: Irizarrek, esaterako, hainbat taldekidek euskararekiko izan duten joeraz egin zuen berba: "Tourrean, Andy Schleck-ek eskatu zidan eskertu nahi zituela euskal zaleek eman zizkioten animoak. Esan zidan zer jar nezakeen zaleak eskertzeko eta esan nion euskaraz idazteko. Txioa idatzi nion, eta hala bota zuen".

Jagoba Arrasatek, oster, Realarekin batera euskara ere Europara eraman dutela aipatu zuen: "Reala European eta euskaraz! Ukrainan euskaraz! Hantxe, Anso eta neu, berritxuar bi, euskaraz! Ez zara konturatzen daukan garrantziaz". Arenatzak, berriz, esker oneko berba izan zituen: "Bergarako Udalarari zorionak eman gura dizkiot kirola euskalduntzeko egiten duen lanagatik. Udala, eskolak, klubak... Elkarrekin aritu behar dugu nor bere aldetik beharrea".

Ekitaldi amaieran, eskertze-ekitaldian, kirol entrenamenduak euskalduntzeko egitasmoan parte hartzen duten Bergarako kirol taldeak omendu zituzten.

**ATLETISMOA**

## Santamas jaiak girotzeko asmoz, krosa hilaren 15ean

Nagusiendako eta gaztetxoendako lasterketak antolatuko dituzte, urtero moduan

X.U. | ARRASATE

Geroago eta gertuago daude Santamasak, eta astebete lehenago, ohiturari eutsiz, herritarrek izerdi egiteko hitzordu aproposa izango dute Arrasaten, Santamasetako 36. Krosarekin -Enrike Kabiketaren 11. omenezkoa.

Abenduaren 15erako Arrasate Atletiko Taldeak antolatu duen kirol hitzordua gazte eta nagusiendako izango da. Hala, 11:00etatik 12:00ak arte 5 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako

lasterketak egingo dituzte, hainbat distantzian -100 eta 800 metro bitartekoak, adinaren arabera.

**12:30ean, kuadrillak**

Nagusien txanda, berriz, eguerdi partean izango da. 12:30ean hasita herritarrek 6,4 kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre, betiko moduan, Arrasateko erdialdean egongo den zirkuituan. Lasterketa egunean eman ahal izango da izena, plazan (5 euro).

**ATLETISMOA**

## Garaipena Zarautzen, errekorraz

Zarauzko lasterketa mistoak 32. edizioa bete zuen joan den asteburuan, eta Debagoieneko lasterkari mordoia batu ziren bertan. Bikote bat, baina, podiumera igo zen, Mikel Muxika bergararrak eta Ainhoa Sanz urretxuarrak osatu zutena. Lasterketa irabazteaz batera, probako errekorra ere ondu zuten, marka ederra ezarriz (26.59). 800 bikote batu zituen 7,5 kilometroko lasterketak.

**FUTBOLA**

## Athleticekin eta Realarekin batera, Osasuna ere bai

Gabonetako emakumezkoen futbol txapelketa jokatu da; aurten, bederatzigarren aldiz

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Gizonezkoek hainbat eta hainbat aukera dituzte urteko edozein momentutan futbol txapelketetan parte hartzeko. Emakumeek, ordea, baliabide gutxi dituzte elkarren arteko torneoak jokatzeke, eta Arizmendi Ikastolak hori sustatzea helburu zuen proiektu bat jarri zuen martxan orain dela bederatzigarren urte. Gabonetako emakumezkoen futbol txapelketa bat antolatu zuten, Debagoieneko neskek futbole

zuten presentziaz ohartu ondoren. Aurten goa ez da salbuespena izango, eta abenduaren 30ean eta 31n zortziko eta hamaikako futbola ikusteko aukera egongo da Ibarra futbol zelaietan.

Alebinak, infantilak eta kade-teak arituko dira lehenengo egunean. Gipuzkoako hainbat taldek hartuko dute parte; besteak beste, Arizmendi, Mondra, Aloña, Bergara, Eibar, Lagun Onak, Lazkao... Hala ere, hitzordu garrantzitsuena bigarren



Eguaztenean aurkeztu zuten txapelketa Arkupen. | ANE ETXEBERRIA

egunean (hilak 31) izango da: senior maiako lau talderen arteko 25 minutuko partiduak jokatuko dira.

**Aurten, Nafarroa ere bai**

Txapelketa sortu zenetik, Real Sociedadeko talde nagusiak ez du inoiz kalerik egin. Athleticek

behin huts egin zuen, eta orain arte Eibarrekin eta Debagoieneko selekzioarekin batera osatu izan dute torneoak.

Antolatzaileek adierazi diguten, euren helburuetako bat probintzia bakoitzeko talde nagusiek parte hartzea zen, eta aurten lehenengo aldiz Osasuna etorriko da Nafarroa ordezkatzera.

**Debagoieneko selekzioa**

Lehen mailako taldeen aurka jokatzeke beste aukera bat izango dute, beraz, Debagoieneko emakume futbolariak. Arizmendik eta Mondrak soilik dituzte senior mailako taldeak, baina bailarako hainbat herritako neskek osatuta daude. Herri guztietako neskek egon ohi dira bailarako selekzioan, eta haiek sartzeko modu bat dela gaineratu digute antolatzaileek.



## FUTBOLA

## Antzuola eta Aloñak indarrak neurtuko dituzte Eztalan

Sailkapenean oñatiarrek antzuolarrei aurre hartzeko aukera paregabea dute

JOKIN MUJIKIA | ARRASATE

Zapatuko derbiak badu morbotik apur bat. Partidu berezia izango da askorendako, oñatiarrek estreinatuko gabeke zelai batean jokatuko dutelako, eta antzuolarrek ligako lehenengo derbia hartuko

dutelako etxean –ikusteko dago hitzordu horretan Eztalak ze giro erakusten duen. Baina seguru Aloñako entrenatzaile Azkargortak liga hasieratik daukala egun hori gorritz markatuta, herrikideen kontra jokatu duela, eta kon-

trario izango dituen horien entrenatzaile ere izan delako.

Lehen aipatu dugun morborako detaileak baino ez dira horiek, benetan partidu erakargarri egiten duena bi taldeen artean dagoen berdintasuna delako. Bi puntuko aldea baino ez du Aloñak, eta Antzuolak aurretik jartzeko aukera ederra du.

### Gainontzekoak

Gorka Valleren Aretxabaleta Donostiara joango da hirugarren postuan dagoen Beriori aurre egitera. Zapatuan izango da par-

tidua, 17:45ean. Puntuen beharra dute aretxabaletarrek, atzeko postuetatik ihes egiteko. Bergarak, ostera, joan den astean Tolosari lidergoa kendu arazi ostean, oraingo liderra izango du aurrean, Arrateren mutilak Anaitasunaren zelaira joango dira-eta.

Amaitzeko, erregional preferente mailan dagoen Mondrak Amaikak Bat Debako taldearen aurka jokatu du Mojategin. Lau partidu segidan irabazi ondoren, Orion bukatu zen Mondraren bolada ona, 2-0 galduta. Baina bidea zuzendu nahi dute ostera.



Antzuolako jokalaria. | GOIENA

## TXIRRINDULARITZA

## Madariagaren proiektuan izango da Mikel Aristi

X.U. | BERGARA

Euskadi Fundazioko presidente Miguel Madariagak aste barruan eman du aditzera ze txirrindulari izango dituen proiektu berrian. Eta Mikel Aristi bertan izango da. Hala, Bergarako txirrindulariaz batera taldean jarraituko dute Carlos Barberok, Jon Larriagak, Haritz Orbek eta Illart Zuazubiskarrek. Eta taldera etorriko dira Victor Etxeberrria (Naturgas amateur) eta Beñat Txoperena (Eki Sport-Gipuzkoa).

Kontinental mailan korrituko dute, eta Aritz Arberasek jarraituko du prestatzaile fisiko eta kirol zuzendari lanetan. Bada, orain, ikusi egin beharko da denboraldi txukuna egin ahal izateko ze aurrekontu duen proiektu berriak.

## TENISA

## Santamas txapelketa kanporaketa eran jokatu dute

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan eta hurrengoan jokatu dute Santamastako Tennis Txapelketa, eta AKE Tennis taldeko lagunek gogor arazi duten moduan, faboritok argi ibili beharko dute, aurtengoa kanporaketa modalitatean izango da-eta: "Ligaxkak alde batera utziko ditugu eta federazioko formatua eta balioa emango diogu txapelketari; hau da, kanporaketa hutsak izango dira. Argi ibili beharko dugu tenislariok, txapelketatik kanpo geratzea partidu bakarrek kontua izango baita".

Hogei lagunek baino gehiagok eman dute izena aurtan (laugarren edizioa da) eta abenduaren 21ean jokatu dute finala –partidu guztiak Mojategin izango dira, eta goiz eta arratsalde jokatu dituzte partiduak.



## Oñatiko kiwi naturalak ere 'Baserrisarea' atariko askotariko produktuen artean daude

Debagoienean oraindik ere garrantzia duten lehen sektoreko produktuei eta lanbideei lekua egiten die 'Baserrisarea.com' atariak. Bailarako baserritarren egitekoa ezagutzeko aukera ere eskaintzen du, gainera.

**O**ñatiko Olabarrieta auzoan dagoen Arrazola baserriko kiwiak zaintzen ditu Iker Arregi gazte oñatiarrek. Aurtengo uztak emandakoak jasota ditu eta dagoeneko izan ditu lehen bezeroen eskariak.

### Urrutikoa ei da jatorriz kiwia, baina Oñatin esan daiteke ia bertakoa dela, ezta?

Bai, bai. Duela 25 urtetik hona landatu eta zaindu dira kiwiak Oñatin. Zeelanda Berrikoa da jatorriz, eta exotiko fama hori ere izan du, baina Oñatin aspalditik lantzen den fruta da.

### Bertako lurretan eta bertako baserritarrek zaindutakoa, bezaz.

Bai, duda barik. Gainerako frutak bezala, kiwiak ere urte batzuetan bestetan baino gehiago hazten dira, baina gehiago edo gutxiago egon, horixe da bermea, bertakoa direla.

### Nola zaintzen dituzu zuk? Zer lan eskatzen dute?



“ Hemengo alea txikiagoa izan arren, gozoagoa da. Baditut urtero eskaria egiten didaten bezeroak; gustatzen zaien seinale da hori. Gozoak dira, eta naturalak, gainera ”

Hauek erabat naturalak dira, ez dute inolako tratamendu kimikorik. Nik ez diet ezer botatzen.

### Batu dituzu ale guztiak?

Aurtengo aleak jaso ditut, bai. Azaroan batu nituen eta orain, abendutik aurrera, saldu egingo ditut. Egia esan, dagoeneko jaso ditut lehen eskariak. Baditut urtero-urtero eskaria egiten didaten bezeroak. Gustatzen zaien seinale da hori; onak direlako. Otsailean kiwiondoak kimatzen hasiko naiz, hurrengo uztarako prestatzen.

### Nolakoa da Oñatiko kiwia?

Gozoa. Denda askotan ikusten ditugunak baino ale txikiagoak dira hemengoak, baina gozoagoa dira, eta produktu kimikorik gabeak.

### Asko irauten dute?

Toki freskoan edukiz gero, bai. Egia da hasieran gogorrak egoten direla, baina sagar artean jarriz gero, bigundu, heldu, egiten dira. Jaten diren kopuruaren arabera, adibidez, aldiro bospasei kiwi jarri etxeko frutaontzian, eta heldu egingo dira. Baina kontuz, alderan-

tziz eginez gero, hau da, sagarrak kiwien artean jarriz gero, denak batera helduko dira.

### Zelan saltzen dituzu?

10 kiloko kaxetan saltzen ditut. Herriko fruta-dendara eramaten ditut, batetik, eta bestetik, zuzenean salmenta ere egiten dut, noski. Baita *baserrisarea.com* webgunearen bitartez ere. Bailarako baserritarren produktuak eskaintzen ditu Interneteko atari horrek, eta hemengo askotariko produktuen barruan daude kiwiak ere.





# KULTURA

## Dotorezia ala azakeria?

- ▶ Abenduaren 28an, 19:00etan, Bergarako pilotalekuan izango da hirugarren tobera
- ▶ Bergarako auzotarrak izango dira aurtengoan akusazioaren protagonista nagusiak

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Duela hiru urte ekin ziotz Bagarak, kulturgintza esparrutik, Debagoieneko tobera antzerki satirikoa antolatzeari. Kultura ekimen komunitario bat sortuta, umorez, gure kontraesanak taula gainera ekartzea izan du hasieratik helburu; hausnarketa bultzatu eta herrigintzaren aldeko apustua plazaratzeko asmoz.

Abenduaren 28an, Bergarako Udal Pilotalekuan (19:00) egingo dute hirugarren tobera, bailarako *Partido Judizialean*, bada. Nabarmenki azakeria edo itxurakeria leporatuz, herriko hainbat auzotako ordezkariak izango dira akusazioko protagonista nagusiak; baina laguntzaile izango dituzte hainbat modutara Bergararekin harreman zuzena edo zeharkakoa duten beste hainbat herritako lekukoak ere.

### Handien trilogia ixteko tobera

Arrasateko eta Oñatiko toberen ostean, Debagoieneko hiru herri handien trilogia itxiko du aurtengoak, baina Bagararen asmoa litzateke tobera Debagoieneko herri guztietan egitea. Lehenengoan, Arrasatekoan, zenbait bergarar izan ziren Arrasateren kontrako epaiketan akusazio lanak egin zituztenak, eta aurtun, bueltan datorriko kontua.

Aurreko urteetan herrien arteko tirabirak landu gura izan dituzte, baina lokaltasunaren aldeko apustua ere egin behar zela ikusi zuten bultzatzaileek, herriko tirabirek ematen diote -eta forma bailarako herrien arteko tirabirei. Arrazoiak denetarikoak izango dira, historikoak eta gaur egungoak, lehenagoko eta gaur egungo testiguen ekarriko dituztenak.

### Aurtengo, oso bergararra

Datorrena oso bergararra izango dela dio Bagarako Iraitz Agirrek: "Horren isla izango da aurtengo toberako kartela. Egilea Unai Azkarate bergararra da, eta, oinarrian, Bergarako epaitegiko eraikinean dagoen justiziaren estatuaren irudia erabili du hari-kartoi materiala irudikatuz, zera adierazteko: dena ez dela dirudiena".

Tobera bakoitza egikaritzeko prozesua oso ezberdina izan ohi dela diote, eta halaxe izan dela oraingoan ere. "Aurrekoak herri-tar askoren ekarpenetatik abiatuta idatzi dira, nahiz eta pertso-



Begarako toberan parte hartuko dutenetako batzuk, astelehenean egin zuten entseguan. | AMAIA TXINTXURRETA

na bat edo bi izan diren oinarrian eduki horiei guztiei forma eman dietenak. Bergarakoan, oso prozesu parte hartzailea izan da, hamabost pertsona baino gehiagok lagundu dute-eta gidoirako edukiak proposatzen ez ezik, gidoia bera idazten. Horrez gainera, antzezle bakoitzak zegokion pasarteak sortu eta osatu ditu", azaldu dute Bagaratik.

### 30 antzezletik gora

Antzezle eta pertsonaia gehien lehen tobera izango da aurtengoak, baina Bagararen asmoa litzateke tobera Debagoieneko herri guztietan egitea. Lehenengoan, Arrasatekoan, zenbait bergarar izan ziren Arrasateren kontrako epaiketan akusazio lanak egin zituztenak, eta aurtun, bueltan datorriko kontua.

### ESANAK

**"Oso bergararra da arrazoiak askorengatik: akusazio, lekuko eta aktorengatik ere bai"**

IRAITZ AGIRRE | BAGARA

### Aurtengo abokatua eta fiskala



**ANE ZABALA**  
'Aupa Miren Etxebeste'

Batez ere, auzotarrek esaten duten mozolokerien aurrean Bergara ahalik eta ondoen defendatzen saiatuko naiz. Askotariko lekukoak ditut: garai, adin, herri-ikuspegi...



**JON OLIVARES**  
'Jon Martir'

Paper zaila tokatu zait, bai; sekula ez naiz epaiketa baten barruan izan, gainera. Baina, hala ere, Bergarari egurra ematera joango naiz eta zuek ere animatzen zaituztet!

tengoa, baina ez denena. Badira aurreko toberetan agertutako zenbait antzezle, nahiz eta batzuen kasuan oso pertsonaia ezberdinak antzeztuko dituzten. Jon Olivares osintxuarra izango da *Jon Martir fiskala* eta abokatua, berriz, Ane Zabala, *Aupa Miren Etxebeste*. Epailea, berriz, hirugarrenez, *On Piper Hautsa*, Mikel Irizar da.

Lekuko pertsonaiei dagokienez, denetik dago labetik ateratzear dagoen horretan ere: jokinak, konkistatzaileak, gazteen ordezkariak, auzotarrak, inguruko herrietakoak, pertsonaia historiko garrantzitsuak. "Era berean, badira aurreko urteetan irtendako pertsonaia xelebreak ere. Oso lantalde zabala da, adinez eta baita parte hartzen duten eremuengatik ere. Pentsa, eurentako gehienek ez dute aurrez elkar ezagutzen! Horrek tobera agertokira eraman, lantaldea egiteko asko balio du." azaldu du Bagarako Agirrek.

### Sarrerak bi aste barru salgai

Abenduaren 28an izango da, Udal Pilotalekuan, 19:00etan. Sarrerak, baina, abenduaren 16tik aurrera jarriko dituzte salgai zortzi eurotan, Bergaran, Oñatin eta Arrasateko ohiko salmenta tokietan eta baita [www.barrabarra.eu](http://www.barrabarra.eu) atarian ere.

**MIKEL IRIZAR**  
'ON PIPER HAUTSA'

**"Iruditzen zait badela ordua partekatutako ajeak elkarrekin bideratzeko"**

Toberako *On Prudentzio Piper Hautsa* epailearen azalean sartuko da, hirugarrenez, Mikel Irizar.



### Ze balorazio egiten duzu aurtengo toberaz?

Tobera tresna interesgarria da, herri ezberdinetan arazo asko ari dira-eta kaleratzen: arazo partikularrak dira batzuk; eta arazo komunak besteak. Partekatutako aje asko daukela ikusita, iruditzen zait badela ordua, aje horiek zuzentzeko edo bideratzeko helburuak, ekimen bateratuak egiten hasteko. Ikusiko dugu aurtengo toberak zer ematen duen; aurtengo eginda, bailarako hiru herri handiak epaituak izango dira, jada. Hirurak elkarren igurtzian daude, baina elkarri bizkarra emanda; akaso, hirurak elkarrekin lanean hasteko ordua heldu da.

### Nola egin daiteke hori?

Begara epaituko dugu lehenengo eta hiru herri handien arteko aje komunaren gainean jarriko dugu penitentzia, gero. Seguru aski, Bergarako toberakoa penitentzia komuna izango da. Ez noa ezer aurreratzera, laster ikusiko dugu, tobera bakoitzak bere bidea egin behar du-eta.

### Aldebietako iritziak jasotzen hasita zaude.

Hasi naiz, bai, dokumentazioa jasotzen, baina han izango ditugun lekukoak entzunda aterako dut aurtengo epaia; ez ahaztu tobera bene-benetako epaiketa bat dela.

### Abenduaren 28a bitartean, beraz, baduzu guztia irakurtzen lana.

Bai; hala da, baina alde bakoitzeko ordezkariak ere ondo egin ditzatela etxeko lanak. Horixe da nire gomendioa!



# Durangotik mundura, Azoka Telebistaren eskutik

Euskarazko tokiko telebisten CIEseko audientzia datuak kontuan hartuta, 204.000 ikus-entzule inguru izango ditu aurtengo Azoka Telebistak

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Durangoko Azokak atek ireki ditu gaur, abenduak 5. Ikasleak izan dira aurtengo lehenengo bisitariak eta domekara bitartean milaka pertsonak bisitatuko dute kulturaren plaza. Eta beste urte batez, Azoka Telebistak etxeetara eramango du azoka bera.

## Telebistaz eta Internetez

Bosgarren urtez kudeatuko du Goienak aurtengo Azoka TV. Azokan gertatzen dena zuzen-zuzenean jarraitu ahal izango da telebistaz eta streaming bidez. Landako gunean ipiniko duten pantaila erraldoian bertatik bertara jarraitu ahal izango da telebistako emisioa, baita euskarazko tokiko telebistetan ere: Goiena, Goierri, Erlo, Oizmendi eta Hamaika telebistetan eta 28. Kanalari.

Eta gainera, sarearen bidez mundu osora zabalduko da Azoka TV, streaming bidez ere jarraitu ahal izango baita, Goienaren, Durangoko Azokaren eta EITBren webguneetan.

Telebista bizia eta momentukoa izango da. Zuzeneko konexioek garrantzia izango dute telebistan, Durangoko Azokan protagonista izango diren musikariekin, idazleekin eta oro har, sortzaileekin elkarrizketak egingo dira, baita erreportajeak ere, eta aurtengo zerbait taldek ekoiztutako bideoak lehenengo aldiz ikusi ahal izango dira Azoka TVn... Gainera, Durangoko Azoka bera bisita-

tatzera joaten diren herritarrekin ere izango du hartu-eman.

"Gainera, aurtengo EITB izango du bidelagun Azoka Telebistak; azokaren gainean ekoizten dituen edukiak emango dira Azoka TVn, eta, gainera, aurtengo EITBn emititu diren hainbat saio arrakastatsu ere ikusteko aukera egongo da: *Tumatxak, Tribuaren berbak, Badubada eta Eskerrik asko Petrov*, besteak beste". Hala azaldu du Oihane Agirre Azoka Telebistako koordinatzaileak.

EITBk aurtengo jarraipen zabala egingo dio Durangoko Azokari eta gaueko albistegiaren ondoren, Azoka Telebistarekin elkarlanean, egunak eman duena iruditan jasoko dute egunero. Agirreren ustez, garrantzitsua da Durangoko Azokak telebista edukitzea: "Durangoko Azokak telebista propioa izatea oso garrantzitsua da, Durangotik haratago hedatzen da azoka. Lau egunez martxan izango den kanal tematikoa izango da, euskal kulturaren gaineko edukiekin osatua".

## ESANAK

**"Garrantzitsua da Durangoko Azokak bere telebista izatea; euskal kultura bizirik dagoen seinale da"**

OIHANE AGIRRE | AZOKA TV



Azoka Telebistako lantaldea. | XABI URZELAI

## Gertatzen dena, telebistaz

Azoka TV osatuko duen hamar lagunek lantaldeak 10:30etik 20:00etara kontatuko ditu Landakotik Larizdorre kalera kokatzen diren Azokan, Saguganbaran, Ahotsenean, Szenatokian, Plateruenean eta Irudienean jazotzen direnak. Esaterako, gaur, Saguganbaran ikasleak kazetari bilakatu dira, eta Fernando Morillo idazleari eta Esne Beltza musika taldeari elkarrizketa bana egingo diete. Eroso sentituko dira baita ere Kaban, teknologia berriekin aritzeko aukera izango baitute.

Bihar Szenatokian Argizaiola saria jasoko duen William Douglass antropologo estatubatuarrekin

elkarrizketa jarraitu ahal izango da Azoka TVn; eta zapatuan Alex Sarduik bere lehenengo nobela aurkeztuko du Ahotsenean eta zuzenean ikusteko aukera egongo da. Egun berean Azoka Telebistakoak Plateruenean egongo dira, gauean Urtz eta Kauta taldeek emango duten kontzertuaren aurreko entsegetan.

Domekan Azoka TV jarraituta Catriona Lexy Campbell eskoziarra ezagutzeko aukera egongo da; Irudienean egingo den Kamerateoia lehiaketaren lan sarituak ikusi ahal izango dira, eta Szenatokian estreinatuko den *Konpota* antzerkiaren aurrerapenaren testigu izango dira ikus-entzuleak.

**VITORIA-GASTEIZ**

abenduak  
**5.6.7.8**

[www.ardoaraba.com](http://www.ardoaraba.com)

facebook/ardoaraba  
@ardoaraba

Antolatzailea  
**gasteiz on**

**Ardo Araba**  
taste street

Jai ENOGASTRONOMIKO handia

**Informazio orokorra**

**Karpen ordutegiak**

Osteguna 5	[ 18:30-22:00 ]
Ostirala 6	[ 12:00-14:30 ] [ 18:30-22:00 ]
Larunbata 7	[ 12:00-14:30 ] [ 18:30-22:00 ]

**Informazioa**

**Gasteiz On**  
945 15 02 68 • [www.gasteizon.com](http://www.gasteizon.com) • [www.ardoaraba.com](http://www.ardoaraba.com)

**Vitoria-Gasteizko Turismo bulegoan**  
945 16 15 98 • [www.vitoria-gasteiz.org/turismo](http://www.vitoria-gasteiz.org/turismo)

**KALEZ KALEKO IBILBIDEA**

Zure tiketak hiriko 60 ostalaritza-establezimendutan baino gehiagotan aldatzeko aukera izango duzu.

Osteguna 5	[ 18:30-24:00 ]	Larunbata 7	[ 12:00-24:00 ]
Ostirala 6	[ 12:00-24:00 ]	Igandea 8	[ 12:00-24:00 ]

**Babesle ofizialak**

**BESTELAKO JARDUERAK**

Ardoaraba menua • Goxo-Goxo Azoka • Haurren bokoa  
Euskadi Gastronomika • Bisitaldi turistikoak • Zozketak eta sustapenak

**Babesle bereziak**





Aitor Furundarena akordeoi-jolea. | A.F.

Aitor Furundarena | Hauspoz elkarteko lehendakaria

## "Gure musika politika oso benetakoa da; horregatik datoz halako epaimahaikideak"

Akordeoiari eskainitako asteburu honek txoko guztietako akordeoi-joleak ekarriko ditu gurera

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Arrasate izango da bihartik domekara bitartean akordeoi-jole askoren kokaleku, Arrasateko akordeoi lehiaketak direla-eta. Aitor Furundarena Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko lehendakaria ibili da akordeoiari eskainitako asteburu hau antolatzen.

**Hiru ardatz nagusi izango ditu asteburuak. Nolako izan da planteamendua?**

Hiru ardatz hauek bi ataletan banatuko nituzke: batetik, zapatuan egingo den Gipuzkoako jaialdia azpimarratuko nuke. Lehiaketa kutsua izango du egun honek, baina ez da lehiakortasuna

lantzen; ikasleek lantzen dituzten piezak publiko egitean datza, baina jai kutsuarekin, betiere. Egubakoitzean eta domekan, Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa eta Gipuzkoako lehiaketa izango dira. Azken hau kontsaboratorioko ikasleei zuzenduta dago. Sari banaketa domekan izango

**"Hasieratik gure musika printzipioei fidel izatea izan da gure apustua"**

da, 20:00etan, eta ondoren, jazz talde baten musika kontzertua izango dugu: halakoekin saiatzen gara era honetako ekitaldiak erakargarriagoak egiten.

**Arrasate Hiria lehiaketak kanpoko jende asko ekarriko du gurera?**

Noski, lehiaketa garrantzitsua da, munduko garrantzitsuenetakoa. Musikan urteetako esperientzia dugu, hala tokatu zaigulako; eta gauzak benetan egiten direnean, norberaren printzipioak jarraituz, egiten dena iritsi egiten da publikora. Arrasate Hirian gure apustua hasieratik gure musika printzipioei fidel izatea izan da eta honek ekarriko du gure musikari politikoa oso benetakoa eta egokia izan delako: horrek dakar halako epaimahaikideak etortzea.

**Bihar hasiko dituzue lehiaketak. Nolakoak dira azkeneko 24 orduak musikariendako?**

Badakit guk nola prestatzen ditugun lehiaketak. Lan handia egiten da kontzertu aurretik, baina lehiaketa iristear dagoenean apur bat oxigenatzea gomendatzen diet nire ikasleei. Askotan, prestaketa baten amaierara iristen garenean saturatuta gaude eta musika bezalako zerbaitekin saturatuta egotean ez dugu geurea ematen. Hobe da aurretik lan handia egitea eta prestaketaren amaieran zerbait jotzea beste barik, gose handienaz iristeko, garrantzia eman nahi diogun momentu horretara.

**Zuentzako hain garrantzitsua den asteburu honetan parte hartzeko asmorik ba al duzu?**

Ni irakasle moduan joateaz gain, Hauspozeko kide moduan ere banoa, antolakuntzan erabat murgilduta nagoelako. Denbora aldetik esango nuke pisu handiena azken rol honek duela: antolakuntzan erabat murgilduta ibiliko naiz egunotan. Zapatuan 11:30ean egingo den kalejiran ere hartuko dut parte, baina hau gustuz egiten dudana zerbait da.

Esan bezala, irakasle moduan ere ibiliko naiz, baina hori lana aurretik dago. Gustatzen zait ikasleak entzutea, baina antolakuntzan ibilita nahiko lan izaten dut batzuk entzuteko.

## Keu Agirretxearen doinuek Arkupeko Zaraia aretoa ziprztinduko dute gaur

Ondarrutarrak ez du diskoa bakarrik aurkeztuko; Fignuh Experience laukotearekin etorriko da

A. LARRAÑAGA | ARETXABALETA

*Behe presioaren erdigunean*, hala du izena Keu Agirretxearen azken lanak eta gaur, 22:00etan, eskainiko du kontzertua Arkupeko Zaraia aretoan.

Hala ere, ez da bakarrik etorriko Ondarroako musikaria; Fignuh Experience laukotearekin batera dator diskoa aurkeztera. Sarrerak lau eurotan egongo dira salgai.

**Musikari beteteranoa**

Jakinekkoa da Agirretxea ez dela hasiberria musikan: Psychophony, Zain, Etsaiak, Fjord, Uek eta Governors taldeetan egurra ematen ibili da, besteak beste. Gainera, ibilbide honek eman dion esperientziak baliatuz, besteak beste, Xabi Solano, Eneko Mobydick, Esteban Valcarcel, eta Mikel Arakistain musikariak izan ditu bidelagun bere lan kuttun eta hain pertsonala den honetan.



Keu Agirretxea. | K.A.

## 'Gabrielen lekua' sentikariak geldiduna egingo du Elgetan

ANDER LARRAÑAGA | ELGETA

Gabriel Aresti eta bere lana eguneratzea helburu duen *Gabrielen lekua* izeneko ikuskizuna abenduaren 13an etorriko da Elgetara, Espaloia antzokira. Bilboko Arriagan egin zen estreinaldia eta jasotako kritika onen ostean Euskal Herriko hainbat txokotan plazaratu da *Gabrielen lekua* sentikaria: esan bezala, oraingoan bailarara etorriko da.

Ordu eta erdi inguruko ikuskizunak hainbat kultura adierazpide elkartuko ditu oholztan: bertsolaritza, musika, ikus-entzunezkoak, deklamazioa...

Arestiren obraren pasarteak kontatzeaz gain, sortzaileek emankizunerako propio sorturiko lan berriak ere egongo dira ikuskizunean.

**Izen handiko protagonistak**

Andoni Egaña, Oier Guillan eta Alain Urrutia parte-hartzaileek, besteak beste, aberastuko dute Arestiri eskainitako ikuskizuna eurek ondoen dakitena egiten.

Sarrerak salgai daude Espaloian bertan 12 euroren truke (bazkideendako 8). Erreserbak ere hartzen dira, 943 78 90 85 telefonoan.

## Hitzen balioa azpimarratzen, 'Balitzen hioa' antzezlanean

Bertsolari onenen hitzak hartuta egingo dute jauzi bertsotik antzerkira Begiradakekoek Bergaran

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Azkenaldian oihartzuna izaten ari den eta hitzak mamizat dituen ikuskizuna iritsiko da Bergarako Zabalotegi aretora, bihar. Gai beraren inguruan lau bertsolari, nor bere aldetik eta nahieran, idazten jarrita irteten den emaitza da *Balitzen hioa* antzezlana. Bada, hitzen balioa garantizatzeke egin den hizki mugimendu honetatik dator ikuskizunaren izenburua.

Begiradak antzerki taldeko Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei

Untzuetako aktoreek taularatuko dute Ainhoa Alberdik zuzendutako lana.

**Bertsoak, gorputz espresio**

Betiko antzerkia alde batera utziz eta zerbait berria egin nahian, bertsolaritza antzerki bilakatu dute lan honetan, eta, nola ez, punta-puntako bertsolarien hitzez baliatu dira bateraketa hori jaioarazteko.

Aipaturiko bertsolariak Ainhoa Agirrezaldegi, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Uxue

Alberdi dira eta gai honen inguruko hausnarketan esandakoa hartu eta antzezlana osatu dute Begiradak antzerki taldekoek.

Adierazi dutenez, bertsolarien hitzak gorputz mugimenduekin aberastea izan da aktoreendako erronka nagusienetako bat, zaila baita bien arteko uztarketa egitea eta komunikazio hori ulergarri egitea. Horregatik baliatu dira hitzen balioaz, bakoitzak hitzari ematen dionaz, alegia. Bide batez, bertsolarietako euren hitzak egituratzeko askatasunak (errima, doinu, neurri... librea) esperimentaziorako eta eraberritzera bidea eman die.

Esan bezala, Bergarako Zabalotegi aretoan izango da Begiradak antzerki taldearen taularatzea, bihar, hilaren 6an, 19:00etan hasita, eta sarrerak 8 euroren truke egongo dira salgai.

## Aretxabaletako Goroetako eliza, ezkutuko altxorren kokaleku

A.L. | ARETXABALETA

Ignaziotar Lurraldeak antolatuta, Ezkutuko Altxorrek izeneko bisita gidatuak antolatu dira asteburu honetarako Gipuzkoako hiru herritan: Azkoitian, Ezkio-Itsason eta Aretxabaletan. Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeetako garapen turistikorako proiektu komuna da Ignaziotar Lurralde proiektu turistikoa.

Merkatu segmentu kultural eta erlijiosora zuzenduriko sustapen eta dinamizazio turistikorako proiektua da. Horregatik antolatu dituzte bisita gidatu hauek bailara bakoitzeko herri batean.

Azkoitiko San Jose ermitan izango da lehenengo geldiduna bihar; zapatuan, hilaren 7an, Aretxabaletan, Goroetako Santiago elizako erretaularen txanda izango da; amaitzeko, domekan, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Museoko bisita gidatua egingo da.

**Bailaran, Aretxabaleta**

Esan bezala, bailaran badute geldiduna Ezkutuko Altxorrek bisita gidatuek: Goroetako Santiago elizan kokatuta, Gipuzkoan Santiagoren bizitzari eskainitako erretaula bakarra da bertakoa. Zapatuan izango da bisita, 12:00etan.



## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasate.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolako Sailuente plazan. Hiru logela, bainugela, sukalde hornitua, egongela, despentsa eta trasteleku. Antolamendu ezin hobea, dena kanpoaldera begira eta oso argitsua. Egoera oso onean. 630 70 81 23

**Bergara.** Matxiategi 10ean, 115 metro koadroko etxebizitza salgai. Berritua eta oso argitsua. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 60 26 55

**Duplexa salgai Oñatin.** 88 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalean. Sukaldea, egongela, bi komun, estudioa, bi logela eta gela txiki bat dauka. Iggogailudun eraikuntza berriko etxea. 625 70 54 44 edo 607 58 00 99

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Trasteleku eta igogailuarekin. Berokuntzarekin. Etxe berria da. 500 euro hilean. Interesatuok deitu telefono honetara: 653 70 84 09

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Jantzia. Oso argitsua. Interesatuok deitu telefono honetara: 690 12 06 00

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, bainugela bat eta sukade-egongela. Iggogailuarekin. Merke. Interesatuok deitu telefono honetara: 619 69 23 36

## 104. ERRENTAN HARTU

**Baserría.** Baserría hartuko nuke errentan Bergara, Sorraluze edo Eibar inguruan. Interesatuok deitu telefono honetara: 680 36 22 41

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan. Gehienez, 400 euro ordaintzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 631 36 17 62

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. Gutxienez bi logelakoa. Terraza badauka, hobeto. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 77 58 82

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 638 62 85 02

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Logelak behar dira atzeritik etorriko diren ikasle batzuentzako. Otsailaren haise-ratik ekainaren amaiera arte. Interesatuok deitu telefono honetara: 656 77 66 32

**Arrasate.** Erdigunean logela ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Logelak emango nituzke errentan Zubiaure inguruan. Emakumeentzat nahiago. 637 18 07 23

## 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60 edo 689 36 86 42

## 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 672 31 42 97

**Bergara.** Garajea errentan hartuko nuke Artzamendi kalean. Interesatuok deitu telefono honetara: 658 74 73 23

## 4. LANA

## 402. ESKAERA

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Haur Hezkuntzan graduatua den gazte euskalduna prest haurrak zaintzeko: eskolara eramateko, gaixorik jarri gero beraiekin egoteko... Esperientzia haurrekin. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 87 12 97

**Arrasate edo Bergara.** Laguntza behar duten nagusien zaintzarako formazioa dut eta lan bila nabil. Zaintzan, garbitasunean zein etxeko lanak egiten jardun naiteke. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 08 14 33

**Arrasate.** 50 urteko emakumea haurren zaintzan zein etxeko lanetan jarduteko prest eskaintzen da. Esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 67 97 84

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

**Arrasate.** Sukalde laguntzaile gisa lan egingo nuke: pintxoak, platerak eta abar. Zazpi urteko esperientzia daukat sukaldean. Garbiketarak ere egingo nituzke taberna, elkarte eta abarretan. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 45 33 59

**Bergara, Antzuola eta Zumarraga.** Esperientzia eta erreferentziadun bikotea garbitasunean lan egiteko gertu: etxeak, atariak, elkarteak, bulegoak eta abar. Langileak gara. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 91 81 73

**Bergara.** 49 urteko emakume arduratsua lan bila dabil. Edozein lan mota egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 52 39

**Bergara.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko, orduka, Maite. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 17 74 87

**Bergaran, Arrasate edo Oñati.** Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Eritzaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia daukat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa daukat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** 24 urteko neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota tabernatan aritzeko. Eritzaintza laguntzaile graduatua eta esperientzia handia daukat nagusiekin. Gidabaimena eta autoa daukat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Asteburuetan orduka edo gauetan lan egingo nuke. Legezko paperak, gidabaimena eta autoa daukat. 632 83 32 68

**Debagoiena.** Emakume bergararra, zazpi urteko esperientziaduna, emakumeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 626 86 35 92

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. 606 50 25 67

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEENAKO

## - Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

## Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

## - Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskaraek  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdtu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

## 10. RELAX

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanetan, tabernan, sukaldean zein nagusiak eta umeak zaintzen lan egiteko. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu, nagusiak zaintzen, garbitasunean. Etxean bizi izaten, egunez, orduka zein gauetan. 638 59 04 71

**Debagoiena.** Emakumea nagusiak zaintzeko gertu, etxean bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 84 02 30

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: nagusiak zaintzen, garbitasun lanak egiten edo mekanikari laguntzaile jardungo nintzateke. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 06 66 71

**Debagoiena.** Lan behar dut, urgentziaz. Edozetan lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 24 79 09

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta erreferentziaduna lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, ospital zein egoitzatan eta abar. Egun osoz, orduka edota asteburuetan. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaindu eta sukaldeko laguntzaile lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 04 46 37 edo 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: garbiketarak, sukalde laguntzaile, gidari, eraikuntzan eta abar. Ez dituxu seuproposamenak egiteko, mesedez. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila pertsona nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 09 46 26

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edota garbitasunean lan egingo nuke. Esperientzia dut geriatrian eta erizain laguntzaile

moduan. Interesatuok deitu telefono honetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta atari, taberna, elkarte eta abarretan garbitasun lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu telefono honetara: 625 86 99 51

**Debagoiena.** Neska arduratsua, oinarriko sukaldaritzaren eta geriatria ikasketaduna, nagusiak zaindu edo garbitasun lanetan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarak orduka egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. Interesatuok deitu telefono honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska espainiarra lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. Asteburuetan edo gauetan ere bai. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 32 43 67

**Debagoiena.** Neska euskalduna eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu, baita gauak ospitalean pasatzeko ere. Garbiketarak ere egingo nituzke. Disponibilitatea. Kotxea daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, zein etxeko lanak egin eta garbitasun lanetan jarduteko. Ospitalean gauak ere egingo nituzke. Autoa daukat eta erabateko prestutasuna. Esperientzia eta informea. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen, tabernan, garbiketarak eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 40 64 65

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzen, tabernan, garbiketarak eta abar. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Baita baserrietan ere. Gidabaimena eta autoa daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Garbitasun lanetan ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 602 64 68 17

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Orduka, nagusiak zaintzen. 648 46 90 51

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: tabernan, etxean eta abar. Neska arduratsua, langilea eta euskaleritarra. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 53 28 45 edo 659 34 31 43

**Debagoiena.** Orduka, egun erdiz edo osoz lan egingo nuke. Nagusiak zaintzen, garbitasunean, tabernan eta abar. Interesatuok deitu telefono honetara: 671 18 50 83 edo 943 10 96 89

**Emakumea lan bila.** Garbitasunak egiten, zaintzaile, kamioi gidari, banaketa lanetan, nagusiak zaintzen eta abar. Autoa eta gidabaimena daukat. Euskal Herri guztian lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 696 32 13 69

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Bergara.** "Ordenagailu bidezko diseinua" goi mailako zikloa ikasten ari den gazteak laguntza eta orientazio eskolak jasoko lituzke. Interesatuok deitu telefono honetara 21:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 03 75

**Fisika eta kimika.** Batxilergoa ikasten dihardunen mutiko bati fisika eta kimika eskola partikularrak emateko norbait behar dugu, Aretxabaletan. Interesatuok deitu telefono honetara: 649 55 48 10

## 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskola partikularrak ematen ditut. Kanada eta Erresuma Batuan esperientziaduna prest ingeleseko partikularrak emateko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta gazteei. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 01 85 84

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Hamsterrak.** Hamsterrak ematen dira opari. Kaiola ekarri behar da. Amaia. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 90 78 17

**Txakurkumeak.** Arratoi txakurkume bi ematen dira opari. Emeak dira. Interesatuok deitu telefono honetara: 680 55 17 65

## 704. BESTELAKOAK

**Katua galdtu Arrasaten.** Musakolan katu emea galdtu da. Bularraldea eta hankak zuriak dauka eta bizkaraldea marroika. Buztana beltza eta ezkerreko belarri erdi, kolore bakoa. ikusi edo aurkitu baduzu deitu mesedez zerbaki hauetara: 943 79 59 34 edo 677 69 15 26

## 8. DENETARIK

## 802. EROSI

**Motozerra.** Stihl etxeko motozerra erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono honetara: 656 75 76 98

## 803. EMAN

**Sofak eta besaulkiak.** Sofa bat besaulki batekin eta bestea bi besaulkirekin, ematen dira opari. Ia berriak dira eta egoera onean daude. Jasotzera etorri beharko da Bergarara. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 41 40 90

## 805. TRUKATU

**Korrika egiteko zinta.** gimnasia egiteko beste aparatu bategatik aldatuko nuke. 615 79 51 89

## 806. GALDU

**Landarea.** "Diru landarea" galdtu dut Bergaran, Ninika lora denda eta Artzamendi artean. Aurkitu duenak dei dezala zerbaki honetara: 943 76 52 39

## 807. AURKITU

**Kandatuak.** Kandatu sortabaturkitu nuen Ibargarai kalean azaro hasiera aldera. Galdtu duenak dei dezala zerbaki honetara: 656 76 67 70

## 808. BESTELAKOAK

**Informatikaria.** Nire webgunean 103 orriko poesia lana jarriko didan informatikariak behar dut. Prezioa adosteko. Manu. 699 77 86 38

**Lursaila.** Lursaila behar dut, Bergara edo Sorraluze inguruan, bi zaldi denboraldi batez edukitzeko. Interesatuok deitu 639 09 95 22 edo 680 36 22 41 telefono honetara.

## GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)

- Aireztatuak eta 4 metro baino gehiagoko altuera.
- Camper estiloko furgonetentzat edota kirol materiala gordetzeko egokia.



INFORMA ZAITEZE!  
943 31 68 68



ASTEAGOIENAN



**Asteburuan kirolak emandakoa ikusgai**

Asteleheneko *Harmailatik* kirol saioan, asteburuan Debagoienean izandako kirol kontuak erreperasatuko ditugu. Besteak beste, ikusi ahal izango duzue Aloñaren eta Antzuolaren arteko erregional mailako derbia, Xabi Urzelai aurkezlearen eskutik.

**'Harmailatik'**  
Astelehena, 21:25



**Bergarako tobera 'Magazinea'-n**

Asteleheneko *Magazinea* saioan, Bergaran hilaren 28an, Inuzente Egunean, egingo den tobera antzerki satirikoari buruzkoak jasoko ditugu lehenengo zatian. Bigarrenean, berri, egunerokotasuneko gaiei buruzko tertulia izango du.

**'Magazinea'**  
Astelehena, 20:10

GOIENA TELEBISTA

EGUENETIK domekara



Durangoko Azoka jendez lepo, ia. | GOIENA

**48. Durangoko Azokaren nondik norakoak**

Durangoko Azokaren begi, belarri eta erakusle izango da Azoka telebista. Sortzaileei eginiko elkarrizketez, egunean zehar eginiko erreportajeaz eta zuzenean gertatzen ari denaz osatzen da telebista, eta

azokako pantaila erraldoien ematen dena ikusteko aukera izango da Goiena telebistan. Liburu eta disko azokaz gain, gainerako plazetan gertatzen denaren berri ere emango dizuegu, 10:30ean hasita.



ASTELEHENA, 9

- 12:00 Magazinea
- 13:00 Erreportajea
- 13:15 Ikusmira
- 13:43 Ekogune
- 14:12 Onein
- 14:42 Zorion Agurrak
- 14:46 Berriak
- 15:16 Eguraldia
- 15:19 Zorion Agurrak
- 15:24 Ur eta lur
- 16:02 Onein
- 16:27 Zorion Agurrak
- 16:32 Berriak
- 17:02 Eguraldia
- 17:05 Zorion Agurrak
- 17:10 Bideo klipak
- 17:46 Klaketa
- 18:23 Ekogune
- 18:53 Zorion Agurrak
- 19:00 Berriak
- 19:25 Eguraldia
- 19:28 Ekogune
- 20:03 Zorion Agurrak
- 20:10 Magazinea
- 20:55 Berriak
- 21:20 Eguraldia
- 21:25 Harmailatik
- 22:10 Berriak
- 22:35 Eguraldia
- 22:38 Magazinea
- 23:23 Gurean gaur

MARTITZENA, 10

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Harmailatik
- 13:25 Aizank!
- 14:10 Aniztasunean bizi
- 14:30 Ikusmira
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Harmailatik
- 15:53 Onein
- 16:23 Zorion Agurrak
- 16:30 Berriak
- 16:50 Eguraldia
- 16:53 Zorion Agurrak
- 16:58 Klaketa
- 17:35 Harmailatik
- 18:20 Klaketa
- 18:59 Berriak
- 19:24 Eguraldia
- 19:27 Zorion Agurrak
- 19:32 Kantari
- 20:02 Zorion Agurrak
- 20:10 Magazinea
- 20:55 Berriak
- 21:20 Eguraldia
- 21:23 Durangoko azoka
- 22:08 Berriak
- 22:33 Eguraldia
- 22:36 Magazinea
- 23:21 Gurean gaur

EGUAZTENA, 11

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Onein
- 13:21 Kantari
- 13:51 Aniztasunean bizi
- 14:11 Ekogune
- 14:41 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Aizank!
- 15:58 Ikusmira
- 16:26 Zorion Agurrak
- 16:31 Berriak
- 16:56 Eguraldia
- 16:59 Harmailatik
- 17:39 Ur eta lur
- 18:17 Durangoko azoka
- 19:02 Berriak
- 19:22 Eguraldia
- 19:25 Bideo klipak
- 19:42 Asmatu baietzi!
- 20:12 Magazinea
- 20:57 Berriak
- 21:22 Eguraldia
- 21:24 Ekogune
- 21:54 Magazinea
- 22:39 Berriak
- 23:24 Eguraldia
- 23:54 Gurean gaur

EGUENA, 12

- 12:00 Magazinea
- 12:50 Onein
- 13:28 Ikusi irratia
- 14:09 Ekogune
- 14:39 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Ikusmira
- 15:31 Bideo klipak
- 15:43 Ikusmira
- 16:11 Zorion Agurrak
- 16:20 Ikusmira
- 16:30 Berriak
- 16:55 Eguraldia
- 16:58 Planik bai?
- 17:18 Aniztasunean bizi
- 17:38 Ekogune
- 18:08 Durangoko azoka
- 18:53 Zorion Agurrak
- 19:00 Berriak
- 19:20 Eguraldia
- 19:23 Planik bai?
- 19:43 Kantari
- 20:11 Magazinea
- 20:56 Berriak
- 21:21 Eguraldia
- 21:24 Planik bai?
- 21:44 Berriak
- 22:14 Eguraldia
- 22:17 Magazinea
- 23:02 Gurean gaur
- 23:32 Planik bai?
- 00:13 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

**Asteko gainbegitua zapatu eta domekan 10:00etan entzungai**

Asteazkenean zehar Arrasate Irratian eskaini dizkizuegun elkarrizketak entzun ahal izango dituzue asteburuan. Besteak beste, Realeko entrenatzaile Jagoba Arrasateri egindako elkarrizketa entzungai izango duzue, eta hark kontatuko dizkigu Realaren eta euskararen inguruko kontuak.

**'Komunikazioa inkomunikazioa' ikusteko sarrerak**

*Komunikazioa inkomunikazioa* dantza emanaldia eskainiko dute Kukai eta Tanttaka taldeek Amaian hilaren 14an, 19:30ean. Bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu eta zozketatuko ditugu 943 25 05 05era deitu edo [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)-era idatzi behar duzue.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Eguena, 5	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Egubakoitzea, 6	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Zapatua, 7	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 8	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 9	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Martitzena, 10	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerías kalea 1	943 79 15 15
Eguaztena, 11	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99

BERGARA

Eguena, 5	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Egubakoitzea, 6	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Zapatua, 7	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 8	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 9	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Martitzena, 10	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 11	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05

OÑATI

Eguena, 5	ANDUAGA	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Egubakoitzea, 6	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Zapatua, 7	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 8	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 9	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 10	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 11	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta ([www.altria.es](http://www.altria.es)).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 14°  
Min. 6°



Max. 16°  
Min. 7°


ZAPATUA, 7

Egubakoitzean baino ostarte zabalagoak nagusituko dira zeruan zapatuan. Temperatura ere igo egingo da.

DOMEKA, 8

Eguraldiak hobera egiten jarraituko du. Temperatura zapatukoa baino epelagoa izango da eta giro eguzkitsua espero da.

EUSKAL HERRIA



Hegoaldean eta batez ere Nafarroan ia asteburu osoan giro eguzkitsua egongo da.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

**Graduondoko ikasketak.** Obra Social La Caixak 145 beka deitu ditu, Espainian (25), Europan (65), Estatu Batuetan eta Kanadan (48) eta Asian (7) graduondoko ikasketak egiteko. Epe ezberdinak. Azken eguna: otsailak 10.

**Ikasketak osatzeko.** MA Fundazioa. Medikuntza (MIR), Farmazia (FIR) eta Erizaintza (EIR) ikasketak egiteko beka. Azken eguna izango da: otsailak 13.

LANA

**Udaltzainak.** Beasaingo Udalak bi udaltzain behar ditu. Azken eguna izango da: abenduaren 16a.

**Kudeaketarako erdi mailako teknikaria.** Getxoko Udala. Baldintzak: gradua, ingeniari-

tza tekniko, arkitektura, diplomatura edo III. Lanbide Heziketa. Epea: abenduak 23.

**Kudeatzailea.** Gasteizko Hiri Garraioak. Epea: abenduak 12. Euskara eta euskal kulturako bi irakurle. Etxepare Euskal Institutua. Argentinarako eta Budapestarako. Baldintzak: unibertsitateko gradua edo lizentziatura (lehentasuna: euskal filologia, Euskal Ikasketetako lizentzia edo gradua, itzulpengintza eta interpretazioa) eta 3. HE edo balioidea. Epea: abenduak 21.

LEHIAKETAK

**Ruta Quetzalera parte hartzaileak aukeratu nahi dira.** Aurtun Peru eta Espainian izango da bidaiak. Baldintzak: 15-16 urteko ikasleak. Proiektu bat eta lan bat aurkeztu behar dira. Urtarrilak 28.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:  
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net)  
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net)





### Ainhoa eta Oscar

Ainhoa Gonzalez eta Oscar Sousa zapatuan, abenduaren 7an, ezkonduko dira Bergarako udaletxean, 13:00etan. "Zorionak, bikote! Familiakoak eta lagunak egun berezi hori zuekin pasatzeko desiratzen gaude. Besarkada handi bat!".



### Mikel eta Puri

Mikel Oteiza eta Puri Parra zapatuan, abenduaren 7an, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean, 18:30ean. "Zorionak eta ospatu eguna, bikote!".

## HILDAKOAK

**Luis Maria Ugarte Aldanondo.** Oñatin, azaroaren 27an. 56 urte.

**Regina Garcia Martinez.** Arrasaten, azaroaren 28an. 70 urte.

**Milagros Felisa Badiola Karetxea.** Arrasaten, azaroaren 28an. 93 urte.

**Eduardo Murua Zabaleta.** Oñatin, abenduaren 1ean. 90 urte.

**Pedro Rodriguez Flores.** Bergaran, abenduaren 1ean. 77 urte.

**Gaspar Fernandez Pinto.** Aretxabaletan, abenduaren 2an. 90 urte.

**Jesus Garai Elortza.** Arrasaten, abenduaren 3an. 85 urte.

**Mari Carmen Dominguez de la Torre.** Bergaran, abenduaren 3an. 53 urte.

**Valentin Mondragon Oñate.** Donostian, abenduaren 4an. 84 urte.

### URTEURRENA

## Luis Mendarozketa Heriz



Arrasaten hil zen 2012ko abenduaren 6an, 82 urte zituela.

Bere oroimenez lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 8an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

*Zure mendi maitteetan  
poza ezagutu zenduan  
zoriona laga duzu  
bizi izan zeran lekuan.*

*Orain joan zara gure ondotik  
nola zaitugun goguan!  
Bila ezazu mendi eder bat  
guztiantzako zeruan.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2013ko abenduaren 5ean.**

### URTEURRENA

## Hilaria Mendizabal Sagastigutxia



2012ko abenduaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 8an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2013ko abenduaren 5ean.**

### OROIGARRIA



## Mari Carmen Dominguez de la Torre



*Betiko izango zaitugu gogoa.*

**Nagixak kuadrilla.  
Bergaran, 2013ko abenduaren 5ean.**

### ESKER ONA



## Mari Carmen Dominguez de la Torre



*Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei,  
eskerrik asko sendikoen izenean.*

**Bergaran, 2013ko abenduaren 5ean.**

### HILETA

## Valentin Mondragon Oñate



Donostian hil zen 2013ko abenduaren 4an, 84 urte zituela.

Haren emaztea: Begoña Aiausti; seme-alabak: Iñaki eta M. Luisa Goikoetxea, Agurtzane eta Koldo Etxebarria, Anabel eta Fernando Okina, Arantzazu eta Jon Perez; anai-arrebak: Jose Mari eta Maritxu Arriaran, Pili eta Valentin Gonzalez (+); bilobak: Ander, Uxue, Lierni, Asier eta Unax; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Haren aldeko meza gaur, eguena, izango da, abenduak 5, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Familiak Arrasateko tanatorioan hartuko zaituzte: 10:00-13:00 eta 16:00-18:30.

**Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2013ko abenduaren 5ean.**

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardua handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



**maribi 617 44 21 55  
BERGARA**

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

### ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.





**ELGETA 'Amama Anaren bidaia'**

La Papa taldekoek amonaren zahartzaroko zailtasunek familiarterko hartu-emanari zelan eragiten dioten erakutsiko dute. Izaskun Asua, Nazaret Froufe eta Markos Gimeno dira protagonistak, *amama Ana, alaba Tere* eta *Antonio suhiaren* paperetan, hurrenez hurren.

Abenduak 8, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.

DURANGO-UDALA.NET



GOIENA

**ESKORIATZA Lukas Prest! eta Anger taldeen kontzertua**

Inkernu tabernaren 10. urteurreneko emanaldia egingo dute Lukas Prest! eta Anger taldeek tabernan bertan. Era berean, Lukas Prest! taldeko bateria-jotzaile *Piña*-ren agur kontzertua izango da aste bukaerakoa.

Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:00etan.

**MUSIKA****ESKORIATZA Euskararen Eguna: kantu kalejira**

Euskararen Egunaren harira eta gaur, eguena, pintxo-poteoa dagoela aprobetxatuz, kantu kalejira egingo dute herriko txistulariez lagunduta.

Gaur, eguena, herriko kale eta tabernetatik, 19:00etan.

**ARETXABALETA Keu Agirretxea**

*Beha presioaren erdigunean* azken lana aurkeztuko du ondarrutarrak Fignuh Experience laukotearekin batera.

Gaur, eguena, Zاراia aretoan, 22:00etan.

**ARRASATE Who the Bitch**

Japoniako hirukotea bi neska kementsuk eta bateria-jotzaile batek osatzen dute. Taldeak punk-rocka du oinarri, baina tarteka doinu modernoagoak eta dantzagarriagoak ere lantzen ditu. Duela bi urte egingoaren antzera, Kooltur Ostegunetako oholtza berotuko du hirukoteak.

Gaur, eguena, gaztetxean, 22:00etan.

**OÑATI Bagauda taldea**

Oñatin jaiotako talde gazteak hard rocka, stonerra eta Eskandinaviako rock-and-roll gogorra biltzen dituen maketa erakutsiko du lehen aldiz. Euren lehen lana salgai ipiniko dute.

Bihar, egubakoitza, Ona tabernan, 20:00etan.

**BERGARA 'Kaleko mobida' irratsaioaren laugarren festa**

Black Eyed Bruisers, Erasoka, Derailed eta Odolkiak Ordainetan taldeak igoko dira oholtzara eta gaztetxea punk-oi! doinuz girotuko dute. Info 7 irratiko *Kaleko mobida* irratsaioaren laugarren festa da. Sarrera, sei euro.

Bihar, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**ARRASATE Akordeoilarien kalejira**

Udaletxe parean hasita, kalerik kale ibiliko dira.

Etzi, zapatua, herriko kaleetan, 11:30ean.

**ESKORIATZA Akerbeltz taldea**

Akerbeltz taldeak erromeria egingo du.

Etzi, zapatua, Inkernu tabernan, 22:00etan.

**NON-ZER**

**Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

ABENDUA 5  
ABENDUA 12

**ELGETA Alai abesbatza**

Erretiratuek kultura astea egiten dihardute. Alai abesbatzak emanaldia egingo du.

Abenduak 11, eguaztena, Espaloian, 18:00etan.

**ANTZERKIA****ELGETA 'Vivir en Villa Titiritaina' antzezlan**

Oñatiko Ikusi Makusi erretiratu elkarteko antzerki taldearen antzezlan berriena da. Kasualitatez Arantzazun topo egin eta elkarrekin bizitzera joatea erabakitzen duten sei adineko pertsonaren istorioa kontatzen du: Ritxar, Consuelo, Alizia... dira protagonistak. Asun Artzuaga zuzendariak idatzitako jatorrizko lana da.

Gaur, eguena, Espaloian, 17:30ean.

**BERGARA 'Balitzen hioa' bertso-antzerkia**

Gai beraren inguruan lau ber-

tsolari, nor bere aldetik eta nahieran, idazten jarrita irteten den emaitza da *Balitzen hioa* antzezlan. Begiradak antzerki taldeko Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Untzueta aktoreek taularatu dute Ainhoa Alberdik zuzendutako lana. Ainhoa Agirreazaldeggi, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolarien hitzak erabiliz idatzitako antzezlan da.

Bihar, egubakoitza, Zabalotegin, 19:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ARRASATE San Nikolas boloa**

Uribarri eta Musakola auzoetan egingo dute, 12:00etan. Ostera, 12:30ean Herriko Plazan egingo dute San Nikolas boloa. Euria egiten badu, Uarkapen elkartuko dira ume eta gurasoak, goxokiak eta bestelako produktuak batzeko asmoz.

Bihar, egubakoitza, Herriko plazan, 12:30ean.

**IRTEERA****OÑATI Durangoko Azokara irteera**

Elkar Hezik antolatuta Landako gunera irteera egingo dute. Ikastetxeko ikasle, irakasle, guraso, aitona-amona, ikasle ohi eta beste daude gonbidatuta.

Bihar, egubakoitza, Santa Marinaran, 09:30ean.

**ERAKUSKETAK****ARRASATE Arrasateko arte tailerreko ikasleen lanak**

Arrasateko arte tailerrean diharduten ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak ikusgai daude Harresi aretoan.

Abenduaren 5era arte, Harresin, arratsaldez.

**BERGARA Taila elkartearen erakusketa**

Taila elkarteko lanekin osatutako erakusketa.

Abenduaren 22ra arte, Aroztegin.

**HITZALDIK****ARRASATE 'Eraikuntza pil-pilean'**

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako Eraikuntza Heziketa Zikloaren baitan *Eraikuntza eta hirigintza birziklatutako produktuak* hitzaldia egingo dute.

Abenduak 10, Arimendiko Ferixalekuko eraikinean, 11:30ean.

**ARRASATE Arrasateko iragana astintzen**

Alfredo Morazak *Arrasateko Teileriek* delako berbaldia egingo du. Hain zuzen ere, Markuleteko Teilerixe baserriko eta Zigorrolako Aranguren teileriak izango ditu hizpide bereziki. Teilerietan nola egiten zen lan, zer ekoizten zuten, materiala nondik ateratzen zuten, garraioa eta beste hainbat kontu izango ditu hizpide. Arrasateko Iragana Astintzen bigarren zikloren zken hitzaldia Maria Ines Olaranek egingo du abenduaren 17an.

Abenduak 10, kulturatan, 19:00etan.

**ARRASATE Endavant elkarteko bi kideren hitzaldia**

Askapenaren Europa Astinduz kanpainaren barnean kokatzen da hitzaldi hau. *Herriak burujabe eta sozialismoruntz* lelopean berba egingo dute Katalanuatik datozen Endavant erakunde



GOIENA

**OÑATI Rap gaua**

Urretxuko eta Zumarragako hiru taldek girotuko dute Antixenako oholtza: hain justu ere, Agresion Verbal, Throw Rap eta Artilleria Pesada & Kartal taldeek. Rap doinu gordinak egingo dituzte hiru taldeek, eta euren azken make ten kantuak ezagutzeko aukera izango dute rap-zaleek.

Bihar, egubakoitza, Antixenatan, 22:00etan.





GOIENA

### ARRASATE Nazioarteko akordeoi lehiaketa

Hauspoz elkarteak antolatuta, Arrasateko Udalaren eta SUDC elkartearen laguntzarekin, nazioarteko eta bertako akordeoi-lari onenen topaleku izango da Arrasate. Iazko irabazle Maciej Frackiewckek kontzertua egingo du hilaren 6an, 20:00etan. Bihartik domekara arte, Amaia antzokian.

bi kidek. Euren herrialdean bizi duten egoera soziopolitikoaren inguruan egingo dute berba. Abenduak 10, Irati tabernan, 19:30ean.

## BESTELAKOAK

**ARETXABALETA** **Bisita gidatua:** **Aretxabaleta Goroetako parrokiak** Ezkutuko Altxorrek egitasmoan bisita gidatua egingo dute Aretxabaleta Goroeta auzoko parrokiara. Han, Santiagoko erretaularen gaineko azalpenak emango dituzte. Izena alde aurretik eman behar da: 943 79 64 63 telefonoan edo [turismo@deba-goiena.net](mailto:turismo@deba-goiena.net) helbidean. Etzi, zapatua, Koruetako parrokian, 12:00etan.

**OÑATI** **Bisita gidatuak** Sancti Spiritu unibertsitatea eta Mikel Deunaren parrokiak ezagutzeko hainbat bisita gidatu egingo dituzte aste bukaeran: hilaren 6an eta 7an 12:00etan; eta hilaren 8an 11:00etan. Informazio gehiagorako eta izena emateko, Oñatiko Turismo Bulegoran. Bihartik domekara arte, turismo bulegotik abiatuta.

**ELGETA** **Erretiratuen bingoa** Ozkarbi elkartearen bingo-jokoa egingo dute erretiratuendako. Sari bikainak banatuko dituzte irabazleentzako. Abenduak 9, Ozkarbi elkartearen, 17:00etan.

**ELGETA** **Entsegua: 'Elgeta kantuan'** *Elgeta kantuan* ekimenaren dihardutenek entsegua egingo dute Jose Gardokirekin. Abenduak 10, kultura etxean, 21:00etan.

## LITERATURA

**OÑATI** **Joxean Agirrekin solasaldia** Azpeitiko idazleak *Adiskide bat nuen* liburua aurkeztuko du liburutegian. Ekitaldi irekia da herri-tar guztiendako. Gainera, Irakurketa Klubeko kideek *Zwei frauen: bi emakume* liburua berba egingo dute egilearekin berarekin. Abenduak 11, liburutegian, 18:30ean.

## JAIK

### OÑATI Santa Lutzia jaiak

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte Berezo auzoan, aste bukaera honetan eta hurrengoan: hilaren 6an mus txapelketa (22:00); hilaren 7an auzo afaria eta erromeria (21:00); hilaren 14an haurrendako jolasak eta merienda (17:00); eta hilaren 15ean meza eta luntxa (12:00).

Bihar eta etzi, egubakoitza eta zapatua, Berezoan, 22:00etatik aurrera.

## DEIA

### OÑATI Trikitilariak, muralak margotu, koplak ...

Euskararen Nazioarteko Eguna-ren harira, askotariko ekintzak egingo dituzte, gaztetxeko kideek antolatuta.

Gaur, eguena, Ongi tabernan, 19:00etan.

### OÑATI Afari tematikoa

Euskararen Nazioarteko Eguna-ren harira, Iñaki Artolarekin solasaldia egingo dute euskararen egoeraz berba egiteko. Afalostean tertulia egingo dute. Afarirako txartelak salgai kultura etxean, Boga eta Izarraitz tabernatan. Bihar, egubakoitza, Antitxenan, 20:30ean.

## IKASTAROAK

### BERGARA Dantza afrikarren ikastaroa

Bi astean behin elkartzen dira kartzela zaharrean. Zuzeneko musikarekin, dantza afrikarrak lantzen dituzte. Etzi, zapatua, gaztetxean, 16:00etan.

### BERGARA GPSaren erabilera eta ordenagailua

Lehenengo zatian GPSari buruzko teoria, funtzionamendua, koordenatu sistema eta koordenatuak landuko dituzte. Bigarren GPSaren erabilera, ereduak, kudeatzeko programak, offline eta online aplikazioak eta web orriak egiten ikasiko dute. Abenduak 9, Miguel Altuna Institutua.

## ZINEMA

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Blue Jasmine**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**Monstruos University**  
Zapatua eta domeka:  
17:00

#### ARETXABALETA

#### ARKUPE

**Gravity**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 16:00

**Zarafa**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

### EIBAR

#### COLISEO

**Prisioneros**  
Zapatua: 19:15, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**El poste de la alegría**  
Zapatua: 17:00, 19:45,  
22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

#### ANTZOKIA

**El consejero**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Frozen 3D**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Frozen, el reino del hielo**  
Eguena: 18:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
12:00, 16:30, 18:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:00.

**Blue Jasmine**  
Eguena: 18:00, 20:00,  
22:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 18:30, 20:30,  
22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:00, 20:00.

**Plan Las Vegas**  
Eguena: 20:15, 22:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:30, 22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 20:15.

**Zipi y Zape y el club de la canica**  
Egubakoitza eta zapatua:  
12:00.

**El extraordinario viaje de Lucius Dumb (euskaraz)**  
Eguena: 16:50.  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:30.

**El extraordinario viaje de Lucius Dumb**  
Eguena: 18:35.  
Egubakoitza eta zapatua:  
12:00, 18:15.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:00.

**De tal padre, tal hijo**  
Eguena: 20:20, 22:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:00, 22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 20:00.

**Turbo**  
Egubakoitza eta zapatua:  
12:00.

### 3 bodas mas

Eguenetik domekara:  
17:00, 18:45, 20:30,  
22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:30, 20:00.

### Le weekend

Eguenetik domekara:  
18:00, 20:15, 22:30.  
Astelehena: 18:00, 20:15.  
Martitzena eta eguaztana:  
20:15.

### Los juegos del hambre: en llamas

Eguenetik domekara:  
17:00, 19:45, 22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:00, 19:45.

### El consejero

Eguenetik domekara:  
17:30, 20:00, 22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:30, 20:00.

### GORBEIA

#### 3 bodas de mas

Zapatua: 00:00.  
Zapatua eta domeka:  
16:00.  
Eguenetik domekara:  
18:00, 20:00, 22:00.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 19:00, 21:00.

#### Carrie

Zapatua: 00:30.  
Zapatua eta domeka:  
16:00.  
Eguenetik domekara:  
18:10, 20:15, 22:20.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:30, 20:45.

### Frozen: el reino del hielo

Eguena: 18:20, 20:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:10, 18:20, 20:30,  
22:40.  
Domeka: 16:10, 18:20,  
20:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:20, 20:30.

### Frozen 3D

Zapatua eta domeka:  
15:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:40.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:40.

### El consejero

Egubakoitza eta zapatua:  
17:45, 20:10, 22:35.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:00, 20:20.

### Los juegos del hambre: en llamas

Zapatua: 00:20.  
Zapatua eta domeka:  
15:50.  
Eguenetik domekara:  
18:40, 21:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:30, 20:15.

### Septimo

Zapatua: 00:10.  
Eguenetik domekara:  
22:10.

### Thor: el mundo oscuro

Eguenetik domekara:  
19:50.  
Zapatua eta domeka:  
16:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 19:00, 20:30,  
22:00.

### Malavita

Eguena eta domeka:  
22:40.  
Zapatua: 00:50.

### Turbo

Zapatua eta domeka:  
15:45.

#### BOULEVARD

#### 3 bodas mas

Eguena: 18:40, 20:40,  
22:40.  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:40.  
Zapatua eta domeka:  
16:40.  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:40, 20:40, 22:40.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:40, 20:40.

### Plan de escape

Eguena: 17:50, 20:10,  
22:25.  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:40.  
Zapatua eta domeka:  
15:35.  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:50, 20:10, 22:25.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:50, 20:10.

### Carrie

Eguena: 18:35, 20:40,  
22:45.  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:50.  
Zapatua eta domeka:  
16:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:35, 20:40, 22:45.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:35, 20:45.

### Los juegos del hambre: en llamas

Eguena: 17:30, 19:00,  
20:30, 22:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:30.  
Zapatua eta domeka:  
16:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 19:00, 20:30,  
22:00.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 19:00, 20:00.

### El consejero

Eguena: 17:50, 20:10,  
22:30.  
Zapatua eta domeka:  
15:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:50, 20:10, 22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:10, 20:35.

### Septimo

Eguena: 22:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 20:25.

### Frozen

Eguena: 17:45, 18:45,  
20:00, 21:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:15.  
Zapatua eta domeka:  
15:30, 16:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:45, 18:45, 20:00,  
21:00.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:30, 18:00,  
20:15.

### Frozen 3D

Eguena: 18:15.  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:00, 18:15, 20:30.  
Domeka: 16:00, 18:15.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:30.

### Blue Jasmine

Eguena: 20:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:45.  
Domeka: 20:30.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 20:50.

### Somos los Miller

Eguena: 22:45.  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:45.  
Domeka: 22:45.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 17:45.

### Thor: el mundo oscuro

Eguena: 18:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:00.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 18:00.

**Plan en Las Vegas**  
Eguena: 20:15, 22:25.  
Astelehena eta abenduaren  
12ra: 20:20.

### Turbo

Egubakoitza: 16:00.

**Doraemon y Nobita Holmes**  
Zapatua eta domeka:  
16:00.

**Zipi y Zape y el club de la canica**  
Zapatua eta domeka:  
16:00.

## KRITIKA



### DETAL PADRE, TAL HIJO ★★★★★

Zuzendaria: Hirokazu Koreeda.

Herrialdea: Japonia.

Urtea: 2013.

Aktoreak: Masaharu Fukuyama, Yōko Maki eta Jun Kunimura.

Iraupena: 120 minutu.

## Drama argitsua

Hirokazu Koreedak modu naturala eta harmoniatsua du familiaren gaira hurbiltzeko. *Nadie Sabe*, *Still Walking*, *Kiseki* edo *De tal padre, tal hijo* filmean, guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta haurren mundua aztertzen ditu. *Nadie Sabe* film hunkigarria eta latza zen, eta maisutasun handia erakutsi zuen haurren psikologiara gerturatzeko. Gai horrekin jarraitu izan duen arren, aipatutako beste filmak ez dira horren mingarriak izan, eta momentu askotan umoreak ere garrantzi handia zuen. Zuzendari japoniarrak bizitzari buruzko begirada lasaia dauka. Momentu onak eta txarrak erakusten ditu; drama eta komedia oso ondo

batzen ditu, eta gizakien sentimenduen epeltasuna islatzen du.

*De tal padre, tal hijo*-n kontatzen zaigun istorioan bi familia ikusiko ditugu. Biek ala biek, sei urte pasa ostean, ospitaletik dei bat jasoko dute. Dei horretan esaten zaie egun berean jaiotako semeak aldatuta ditzutela. Ospitalearen errua izan zen eta umeak elkartrukatu egin zituzten. Berriak gurasoen eta haurren bizitza astintzen du. Zer egin: euren odola duen haurra hartu ala momentu horretara arte maitatu eta semetzat izan duten haurrekin geratu? Zer da garrantzitsuagoa, odola ala sentimendua? Oso momentu latzak dira eta Koreedak bi

familien portaera ezagutzeko aukera ematen digu. Hauxe irakurrita pentsa genezake drama gogor bat dela, baina ez da horrela. Filma drama argitsu bat da. Gurasoen sentimendua hiltzen zaizkigu, baina haurren ere. Baina hori dena azaltzerakoan zuzendariak pertsonaiengan duen maitasuna nagusitzen da. Denen, helduen eta haurren, izaera hiltzen zaigu, bere gauza onekin eta erruekin. Zuzendariak, oso modu harmoniatsuan, familietan sortzen diren sentimendu guztiak erakusten dizkigu eta lortzen du bizitzaren alde argitsua nabarmentzea bestea guztien gainetik.

ANTONIO ZABALA





# goiena

2013-12-05

BUKATZEKO

## Movember Oñati taldearen mezua

- ▶ Prostatako minbiziaren kontzientziazio kanpainarekin bat egin eta taldea sortu dute hiru gaztek
- ▶ Azaroan izaten den mundu mailako ekimena da eta ikurra da mutilek bibotea uztea

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aratz Losada, Jon Lopez eta Jorge Vazquez oñatiarrak dira argazki nagusian ageri diren hiru gazte horiek. Eguneroko *look*-aren kontrara, bibotea utzi dute eta ez dute kendu azaro osoan. Movember ekimenarekin bat egin dutelako egin dute hori, Movember Oñati taldea sortu dutelako.

Prostatako minbiziaren aurkako mundu mailako ekimena da Movember, azaroan egiten dena, eta bere ikurra da gizonak bibotearekin egotea. Ordiziako errugbi jokalaria ere agertu dira prentsan bibotearekin, eta Donostian bizikleta martxa egin zuten itxura horrekin hainbat mutilek.

### Galdera asko

Duela 10 bat urte sortu zen ekimena da, baina oraindik ez da hain ezaguna. Hiru oñatiar hauei, behintzat, askok galdetu diete ea zergatik utzi duten bibotea, eta, horren harira, baita Movember ekimena zer den ere. "Elkarri WhatsApp mezuak bidaliz jarraitu dugu bakoitzak nola bizi izan duen bibotearen esperientzia hau, eta hirurok komentatu dugu gauza bera, jende askorendako ezezaguna dela ekimena. Baina pozik gaude, guk horren berri eman



Lopez, Vazquez eta Losada, bibotearekin. | EUSKALFOTO



Fieltrozko brotxea. | LIDE OSINAGA

gura genuelako eta lortu dugulako azaltzea ekimen honen helburua zein den. Azken batean, kontzientziazio kanpaina bat da eta hori zabaltzea zen asmoa", dio Aratz Losadak. Mezuarekin bat zetorren brotxe bana egiteko ere eskatu zioten Lide Osinaga artista oñatiarrari. Hark hitza hartu eta brotxea jantzita ibili ziren hiru mutilak azaroko azken egunean. Ekarpene ekonomikoa ere egin diote ekimenari, dirua gaitzaren ikerketan erabiltzeko.

Hiru elkartu dira aurrean, baina datorren urtean gehiago izatea gura dute. "Asmoa da herri mailako eta baita Debagoien mailako ekimenen bat antolatzea", aurreratu du Losadak.

### AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



## Olatuak eta gu

Olatu handiak beldurgarriak dira. Inor gutxi gerturazten da haiengana. Zaratatsuak dira, harroak. Borrokarako prest. Gandorra igota beti.

Olatu txikiak oharkabean pasatzen dira. Denak dira hain berdinak... Isilak, xumeak. Siesta usainekoak. Bareak.

Badira bestelako olatuak ere. Orain txinpartatsu orain lasaieran, itsasoari kolore berezia ematen diotenak. Alaiak dira, ez arranditsuak. Sorpresaz beteak. Jolaserako gertu daude.

Gu ere olatuak lako-txeak gara.

Batzuetan harkaitza jotzen dugu. Erasokor, amorru. Nahiz eta badakigun ez dela apurtuko.

Besteetan erdi hilak dirudigu. Ilusioa galduta. Astiro goaz, isilik. Inoiz inor ito ez bagenu bezala. Edo gainerako olatuen beldur. Ez dugu nabarmendu nahi.

Baina gai gara inguruko denak ziprizzintzeko ere.

Gure ilusioarekin, bizi-pozarekin.

Halakoetan, itsasoak ere gurekin batera egiten du dardar

Eta hori gozamina da!

Arrasateko hipermerkatua

**EROSKI**  
zurekin

2. ALEA  
%70

Eskaintza baliagarriak Arrasateko Eroski hipermerkatuan:  
Eskaintza orokorra: 12/11ra arte. Frutategian, harategian eta arrandegian  
12/04ra arte. Ehunkietan, azokan eta ebetresna elektrikoetan 12/31ra arte.



**59,90€**

I-JOY  
NEON 7 mod. tableta

Dual Core 1,2 Ghz  
prozesadorea  
Micro SD sartzekoa  
BIOX DC7 mod.  
eskuragarri.



Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30